

# Dokumentoskopia: Dokumentuen peritatzea, polizia-ikerketaren eta kriminologiaren jardunbidearen testuinguruan

---

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Tamara Mayans Carabelos  
Zuzendaria: Joseba Ezeiza Ramos  
Kriminologiako Gradua  
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU  
2018-2019 ikasturtea

## LABURPENA

Lan honen helburua polizia-ikerketari eta krimen-ikerketari begiratu orokor bat ematea da, zer diren eta zein funtzio betetzen dituzten ikusteko krimen bat gertatzen denean. Hori dela eta, polizia judiziala eta polizia zientifikoa aztertuko ditugu, ikerketaz arduratzen diren subjektuak baitira. Haratago joanez, lan honen bidez, polizia-ikerketaren objektu bat aztertuko dugu: dokumentuei loturiko delituak. Hemen parte hartzen du Dokumentoskopiak. Dokumentoskopia, dokumentuen egiazkotasuna frogatzeaz arduratzen den kriminalistikaren adarra da. Hori dela eta, dokumentuak zer diren azalduko dugu, hauek izaten dituzten segurtasun neurriak eta Dokumentoskopiak dokumentuak aztertzeko erabiltzen dituen teknika instrumentalak ere. Horrez gain, Dokumentoskopiari loturiko beste gai batzuk aipatuko ditugu: grafistika, auzitegiko hizkuntzalaritza eta aditu-txostena. Azkenik, pasaporte baten inguruko aditu-txostena eta txosten tekniko-polizialak erantsiko ditugu, Dokumentoskopiaren alderdi praktikoa ikusteko.

## RESUMEN

Este trabajo tiene como objeto analizar la investigación policial e investigación criminal, para ver cuales son sus funciones ante la comisión de un crimen. Por ello, hablaremos de la policía judicial y la policía científica, puesto que son los sujetos que llevan a cabo la investigación. Además de eso, mediante este trabajo, también analizaremos uno de los objetos de la investigación policial: los delitos relacionados a los documentos. Es aquí dónde toma parte la Documentoscopia. La Documentoscopia es la rama de la Criminalística que se ocupa de establecer la autenticidad de los documentos. Por ello, explicaremos que es un documento y sus medidas de seguridad y las técnicas instrumentales que posee la Documentoscopia para llevar a cabo este análisis. Además, hablaremos de otros temas relacionados tales como la grafística, la lingüística forense y el informe pericial. Para concluir, añadiremos un informe pericial y un informe técnico-policial de un pasaporte, para ver la parte práctica de la Documentoscopia.

## ABSTRACT

The aim of this work is to analyze de police investigation and criminal investigation, to see their functions when a crime happens. For this reason, judicial police and scientific police will be analyzed since they are the subjects that carry out the investigation. Going beyond, one of the objects of police investigation will be analyzed too: the crimes related to documents. Here is where Documentoscopy takes part. The Documentoscopy, is the branch of Criminalistics that analyzes the documents with the aim of proving their authenticity. Thus, we will explain what a document is, the security measures it has and the instrumental techniques Documentoscopy owns to carry out this analysis. Furthermore, another topics related to Documentoscopy will be explained too, such as: graphystic, forensic linguistics and expert report. To conclude, an expert report and a police report of a passport will be added, to see the practical part of Documentoscopy.



0. Sarrera .....	9
- Aurkezpena .....	9
- Lanaren justifikazioa eta helburuak .....	9
1. ATALA: Polizia-ikerketa eta krimen-ikerketa .....	13
1.1. Sarrera .....	13
1.2. Krimen-ikerketa kriminologiaren eta kriminalistikaren erdigunean .....	14
1.3. Polizia-ikerketa .....	16
1.3.1. Polizia eta polizia-ikerketa... ..	16
1.3.2. Krimen-ikerketa .....	18
1.3.3. Ikerketaren subjektuak .....	21
1.3.3.1. Polizia judiziala eta polizia zientifikoa .....	21
1.3.3.2. Ikerketaren subjektua eta objektua .....	23
1.3.4. Krimen-ikerketaren helburuak .....	24
1.4. Krimen-ikerketaren erregulazioa .....	24
1.5. Udal Polizien zeregina eta egitura .....	31
1.6. Konklusioa .....	33
2. ATALA: Polizia-ikerketaren objektua: delitua: dokumentuak .....	35
2.1. Sarrera .....	35
2.2. Zer da dokumentu bat? .....	35
2.2.1. Kontzeptua .....	35
2.2.2. Sailkapen periziala eta dokumentu ohikoenak .....	37
2.3. Dokumentuei lotutako delituak .....	41
2.4. Dokumentuen segurtasun neurriak .....	48
2.5. Dokumentuetan ikertu daitekeena .....	53
2.6. Konklusioa .....	54

3. ATALA: Dokumentuen peritatzea edo dokumentoskopia .....	56
3.1. Sarrera .....	56
3.2. Kontzeptua eta helburuak .....	57
3.3. Teknika instrumentalak .....	58
3.3.1. Espektroskopia atomiko eta molekularra .....	59
3.3.2. Mikroskopia .....	60
3.3.3. Mikroargazkia eta makroargazkia .....	61
3.3.4. Kromatografia .....	61
3.3.5. Elektroforesi kapilarra .....	62
3.3.6. Neurketa instrumentuak .....	62
3.3.7. Argiztapena .....	63
3.3.8. Gailu informatikoak .....	65
3.4. Dokumentoskopiaren mugak .....	66
3.5. Grafistikari aipamena .....	67
3.6. Auzitegiko hizkuntzalaritza eta Dokumentoskopia .....	68
3.7. Aditu-txostena .....	69
3.8. Konklusioa .....	71
4. ATALA: Dokumentoskopia aplikatuta: txosten tekniko-poliziala eta aditu-txostena .....	73
4.1. Testuingurua .....	73
4.2. Helburuak .....	74
4.3. Metodologia .....	74
4.3.1. Txosten tekniko-poliziala .....	75
4.3.2. Aditu-txostena .....	75
4.4. Emaitzak .....	76
4.5. Ondorioak .....	77

5 . ATALA: Lanaren ondorioak eta gogoeta .....	79
5.1. Lanaren ondorioak .....	79
5.2. Gogoeta .....	81
5.3. Lan honen ekarpenak .....	85
- Erreferentziak .....	86
1. Eranskina: txosten tekniko-poliziala .....	90
2. Eranskina: aditu-txostena .....	107
3. Eranskina: txosten exekutiboa .....	119
4. Eranskina: ikaslearen tutorearen azken balorazioa eta ziurtagiria .....	132





## 0. Sarrera

---

### - Aurkezpena

Lan hau, Kriminologia graduko Gradu Amaierako Lana da. Lan hau egiteko hiru aukera eskaintzen ziren: ikerketa proiektu bat burutzea, txosten kriminologiko bat egitea eta praktikei loturiko lan bat egitea. Lan hau hirugarren modalitateari dagokio.

Lan honi loturiko praktikak Donostiako Udaltzaingoa egin dira, 2019ko otsailaren 1etik apirilaren 8ra bitartean. Udaltzaingoko polizia zientifikoaren sailean hain zuzen ere. Sail honetan Ikerketa Kriminalerako Teknikak erakusten dira eta egokitutako gaia Dokumentoskopia izan da. Praktika honetan hainbat ezagutza ezberdin eskuratu dira, hala nola:

- Ikerketa kriminalean erabiltzen diren teknika ezberdinak zertan datzan ikasi eta praktikan jarri Udaltzaingoa burutzen diren aktibitate ezberdinen bidez.
- Dokumentoskopia eta honi loturiko guztia ezagutu.
- Dokumentuak ikertzen ikasi eta dokumentu hauen egiazkotasuna, faltsutasuna eta aldaketak/manipulazioak zehazten ikasi.
- Dokumentu faltsu edo aldatuen kasuan, faltsifikazioak edo aldaketak nola egin diren identifikatu.
- Aurretik aipatutakoa ikertzeko erabiltzen diren teknika eta metodo ezberdinak ezagutu eta erabiltzen ikasi.
- Atestatuak zer diren eta hauek idazten ikasi.
- Txosten tekniko-polizialak erredaktatzen ikasi.
- Photoshop erabiltzen ikasi, dokumentuak editatzeko, beharrezkoa den kasuetan.

### - Lanaren justifikazioa eta helburuak

Lan hau, polizia-ikerketaren/krimen-ikerketaren eta Dokumentoskopiaren ingurukoa da. Honen helburua, irakurleari gai hauen inguruko ikusmira orokor bat eskaintzea da, Kriminologiaren ikuspegitik. Hori dela eta, Kriminologiako ikasle gisa, polizia-

ikerketak eta krimen-ikerketak duten garrantzia eta Kriminologiarekin duen lotura nabarmendu nahi izan ditut.

Jakina denez, polizia-ikerketak gai ezberdinak barnebiltzen ditu, hala nola, identifikazio lofoskopikoa, genero indarkeria, drogen salerosketaren inguruko ikerketa... Kasu honetan, Dokumentoskopiari buruz arituko gara. Dokumentoskopia, dokumentuen egiazkotasuna zehazteaz arduratzen den Kriminalistikaren adarra da eta lan honetaz polizia-ikerketa arduratzen da.

Guzti hau kontutan izanik, helburu ezberdinak bereizi daitezke lanean:

- Kriminologiak, krimen-ikerketarekin eta Kriminalistikarekin duen harremana nabarmentzea.
- Polizia-ikerketa eta krimen-ikerketa zer diren azaldu eta burutzen dituzten funtzioak azaltzea.
- Krimen-ikerketa bat modu egokiak eginga izateko, izan behar dituen ezaugarriak ikusi.
- Polizia judiziala eta polizia zientifikoa desberdindu eta hauen funtzioak azaldu.
- Erregulazioa aztertu, legeak poliziari, krimen-ikerketari... buruz esaten duena ikusteko.
- Udal Polizien zeregina azaldu eta egitura, kasu honetan, Donostiako Udaltzaingoen organigrama baten bidez.
- Dokumentuak zer diren azaldu eta motak ikusi.
- Zigor Kodeak dokumentuen inguruan xedatzen duena azaldu.
- Dokumentuek dituzten segurtasun neurriak ikusi.
- Dokumentuetan ikertu daitekeena azaldu.
- Dokumentoskopiaren ikusmira orokor bat eskaini, hau zer den, zer egiten duen, helburuak...
- Dokumentoskopiak dokumentuak ikertzeko erabiltzen dituen teknika instrumentalak zeintzuk diren azaldu.
- Dokumentoskopiak izan ditzakeen mugak ikusi.
- Dokumentoskopiaren barruan nabarmentzen diren beste gai batzuk ikusi: grafistika eta auzitegiko hizkuntzalaritza.
- Aditu-txostena zer den eta bete behar dituen baldintzak azaldu.

Laburbilduz, lanak hiru helburu nagusi ditu: lehenik, polizia-ikerketa eta krimen-ikerketaren inguruko ikusmira orokor bat eskaintzea eta polizia judizialak eta polizia zientifikoak burutzen duten papera ikustea. Bigarrenik, dokumentuei buruzko informazioa eskaintzea, zer diren, dituzten segurtasun neurriak, hauetan ikertu daitekeena ikustea eta dokumentuei loturiko delituak ikustea. Eta azkenik, dokumentuen peritatzea edo Dokumentoskopia zer den azaltzea eta lan horretarako erabiltzen diren teknika instrumentalak azaltzea.

Beraz, lan hau lau bloketan banatzen da:

- Lehen blokea, polizia-ikerketa eta krimen-ikerketari buruzkoa.
- Bigarren blokea, dokumentuei, hauen segurtasun neurriei eta dokumentuei loturiko delituei buruzkoa.
- Hirugarren blokea, Dokumentoskopiari eta erabiltzen dituen teknika-instrumentalei buruzkoa.
- Laugarren blokea, alderdi praktikoari dagokio. Hemen txosten tekniko-poliziala eta aditu-txostenak atxikiko dira, dagozkien metodologiarekin.

Eta lau bloke hauek egin ahal izateko, lau bibliografia iturri nagusi erabili dira:

1. Lege iturriak, polizia-ikerketaren lege-testuingurua finkatzeko.
2. Dokumentoskopiaren inguruko bibliografia teknikoa.
3. Aditu-txostenak egiteko jarraibideei buruzko bibliografia espezifikoa.
4. Nazioarteko ISO-AENOR arauak.

Bukatzeko, lanaren edukiarekin hasi baino lehen, bi gauza aipatu nahiko nituzke lan honen inguruan. Batetik, Dokumentoskopiaren inguruan eskuragarri dagoen bibliografia nahiko mugatua dela eta horrek zenbait zailtasun suposatu dituela lan honen marko teorikoa idazteko informazioa eskuratzeko orduan. Izan ere, liburuak egon badaude, baina asko beste hizkuntza batzuetan zeuden idatzita edo eskuraezinak ziren, ez baitzeuden ez liburutegian ezta interneten ere. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honen zuzendariari eskerrak eman nahiko nizkioke, lan hau egiteko merkatuan dauden libururik onenak utzi baitizkit eta laguntza horri esker lan apala egin ahal izan dut. Izan

ere, ez bazen bere laguntzagatik izango, ahalegin ekonomiko handia suposatuko luke lan honek niretzat, liburu horiek oso garestiak baitira.

Bestetik, lan honek esfortzu handia suposatu duela, izan ere, Dokumentoskopiaren inguruko lehenengo euskarazko lana da. Hori dela eta, terminologiaren alorrean izugarritzko ahalegina egin behar izan da, lanean zein txostena idazteko orduan, hizkera jaso zaindu ahal izateko. Hala ere, hau euskararen garapenaren ikuspegitik ekarpen esangarria da, eta erakusten du Kriminologia euskaraz irakasteari esker, euskarak eremu berriak irabazten dituela.

# 1. ATALA: Polizia-ikerketeta eta krimen-ikerketeta

---

## 1.1. Sarrera

Atal honetan zehar, bereziki polizia-ikerketaren eta krimen-ikerketaren inguruan arituko gara. Atala sei atalez osatzen da eta atal bakoitzean polizia-ikerketari eta krimen-ikerketari lotutako gaiak landuko dira. Lehenik, krimen-ikerketak, kriminalistikarekin eta kriminologiarekin duen loturaz hitz egingo dugu, bi hauek krimen-ikerketan jokatzeko duten papera nabarmentze aldera. Bigarrenik, polizia-ikerketaren nondik norakoak azalduko ditugu. Atal hau, lau azpiatalez osatzen da, lehen azpiatalean, poliziaren kontzeptua, funtzioak eta motak azalduko ditugu eta baita polizia-ikerketak zer den eta honen garrantzia. Bigarren azpiatalean, krimen-ikerketaren inguruan hitz egingo dugu, bereziki ikerketaren funtzioak eta ezaugarriak azalduz. Hirugarren azpiatalean, krimen-ikerketan parte hartzen duten subjektuak nortzuk diren adieraziko ditugu. Ikerketak honetan, alde batetik, polizia judiziala eta polizia zientifikoa izango ditugu ikertzaile gisa eta beste aldetik, delitua eta delitugilea, ikertu beharreko egitate eta egitatearen egile gisa. Aipatzekoa da, badaudela krimen-ikerketan parte hartzen duten beste subjektu batzuk, hala nola, soziologoak, psikologoak, ikertzaile pribatuak etab., hauek delitua fenomeno gisa ikertzen dute eta badute lekua krimen-ikerketaren barruan, baina kasu honetan, polizia-ikerketan zentratuko gara, hauek alde batera utziz. Azkenik, laugarren azpiatalean, krimen-ikerketak dituen helburuez arituko gara, delitu baten ikerketaren xedea ikusteko. Hirugarrenik, krimen-ikerketaren erregulazioa errebisatuko da, legeak honi buruz zer esaten duen ikusteko. Laugarrenik, udal polizien lana ikusteko, hauen zereginak azalduko dira eta baita egitura. Kasu honetan, adibide praktikoa gisa, Donostiako udal polizien organigrama bat erabiliko da, hauen egitura modu bisualago batean irudikatzeko. Azken atalean, aurreko atal guztietan ikusitakoaren sintesi bat egingo da, konklusio modura.

## 1.2. Krimen-ikerketa kriminalistikaren eta kriminologiaren erdigunean

Atal honen helburua, krimen ikerketaren, kriminalistikaren eta kriminologiaren arteko lotura nabarmentzea da, hiruen ikerketa-objektuak delitua eta delitugilea diren aldetik, elkarren osagarri gisa jokatu bai dezakete. Funtzio eta helburu ezberdinak badituzte ere, batak besteari falta zaiona edo behar duena eskaini dakioko krimen-ikerketa aurrera eramateko orduan, hori dela eta estuki lotuta daudela esan genezake. Beraz, ikus dezagun krimen-ikerketa, kriminalistika eta kriminologia nola erlazionatzen diren.

Krimen-ikerketaren inguruko definizio anitz badaude ere, Fernandezek (2009, 51. or.) honen inguruko definizio labur bat ematen digu. Autore honen hitzetan, krimen-ikerketa delituaren ikerketarako erabiltzen den metodo tekniko-poliziala da. Aurrerago esaten duen moduan, gramatikalki aztertuz, krimen-ikerketa bi hitzez osatzen da: krimen eta ikerketa. Krimen hitzak, delitu bat burutu duen, burutzen saiatu den edo delitua onartu edo ezkutatu duen pertsonari egiten dio erreferentzia eta ikerketa hitzak ikertzearen ekintzei eta ondorioei.

Baina Peña Torreak (Fernandez, 2009, 51. or.) krimen-ikerketaren inguruko definizio zabalago bat eskaintzen digu:

*“El trabajo de investigación criminal se trata, en esencia, de descubrir verdades que se ignoran tales como comprobar la realidad de un delito, esclarecer las formas y circunstancias de su perpetración, averiguar las causas y móviles que lo provocaron, determinar los instrumentos que sirvieron para realizarlo e identificar al autor o autores, demostrando de una manera taxativa y terminante su participación en los hechos.”*

Beraz, bi autoreek esandakoa laburbilduz, krimen-ikerketa delitu edo egitate kriminal bat ezagutu eta frogatzeko, honen inguruabarrak ezagutzeko eta egiletza (mota guztiak) zehazteko egiten den lan tekniko-polizial eta judiziala dela esan genezake, beti ere, zuzenbidearen arabera egina. Beraz, ikus dezagun, kriminalistikak ze lotura izan dezakeen krimen-ikerketarekin.

Antónek eta De Luis y Túreganok (1993, 23. or.) diote, zentzu zabal batean, kriminalistika eta ikerketa-poliziala gauza bera direla. Hauentzat, kriminalistika, delituaren inguruabarrak argitzeaz eta delitugilea bilatzeaz arduratzen den

kriminologiaren adarra da. Jean Nepoterentzat, kriminalistika krimen ikerketaren arte eta teknika da eta Ceccaldi, frantziarrantzat, frogak lortze aldera, delituaren ikerketan aplikagarriak diren prozedura multzoa da. Beraz, autore hauek, kriminalistika, delitua ikertzeaz arduratzen den zientzia gisa definitzen dute eta bat datoz, kriminalistikaren eta krimen-ikerketaren arteko erlazioari dagokionez.

Jada esan dugun moduan, krimen-ikerketak delituaren inguruabarrak ezagutzeko eta delitugilea aurkitzeko erabiltzen den metodo poliziala da eta kriminalistika, krimen-ikerketak helburu hau lortzeko erabiltzen duen tresna edo bidea dela esan genezake. Orain, kriminologiak bi hauekin duen erlazioa azalduko dugu, hiru hauen arteko korrelazioa nabarmentze aldera.

Kriminologia, delitua, delitugilea, biktima eta portaera kriminalaren gizarte kontrola aztertzen dituen zientzia enpiriko eta diziplinartekoa da. Honen helburua, delituaren sorkuntzaren, dinamikaren eta aldagaien inguruko baliozko informazioa, prebentziorako programak, delitugilearentzat baliagarriak diren esku hartze teknikak eta delituari erantzuteko modelo ezberdinak eskaintzea da (García-Pablos de Molina, 2013, 35. or.).

García-Pablos de Molinak (2013, 35. or.), aipatu duen modura, kriminologia zientzia bat da, izan ere, delinkuentziaren arazoaren inguruko informazio baliozkoa, ziurra eta kontrastatua eskaintzen du. Hori horrela izanik, bere ezagutza objektua, metodoa eta doktrina sendo bat du delituaren fenomenoari buruz. Beraz, delituari buruzko informazioa eskaintzeko tresna fidagarri bat da.

Beraz, kriminologia, delituari eta honen inguruabarrei buruzko informazio fidagarria eskaintzeko tresna da eta kriminalistika, krimen-ikerketak delitua ikertzeko erabiltzen duen zientzia edo bidea. Beraz, Fernandezek (2009, 23. or.) esaten duen moduan bi zientzia hauek ez dira gauza bera, baizik eta elkarrekin lan egiten dute, hau da, osagarriak dira nolabait. Jada esan dugun moduan, krimen-ikerketarentzat baliagarriak kontsideratu daitezke, delitua ikertzeko erabiltzen den metodo tekniko-poliziala den aldetik, bi hauen laguntza ongi etor dakiokelako bere helburua betetzeko. Gainera, hiru hauen arteko erlazioa nabarmentze aldera, ezinbestekoa da Thotek kriminalistikaren inguruan esandakoa kontutan izatea:

“Criminalística significa en sentido amplio “investigación criminal”. Es la parte de la Criminología que se ocupa de los métodos y modos prácticos de dilucidar las

circunstancias de la perpetración de los delitos e individualizar a los culpables”. (Antón eta De Luis y Túregano, 1993, 23. or.).

Autoreek gauza ezberdinak esaten badituzte ere, hala nola, krimen-ikerketa eta kriminalistika sinonimoak direla, kriminalistika kriminologiaren adar bat dela, kriminalistika krimen-ikerketak erabiltzen duen zientzia dela... Esan genezake, krimen-ikerketaren, kriminalistikaren eta kriminologiaren arteko erlazioa nabarmena dela eta modu batera edo bestera elkarren osagarriak edo laguntzaileak direla delitu bat ikertzeko eta egilea aurkitzeko orduan.

### 1.3. Polizia-ikerketa

#### 1.3.1. Polizia eta polizia-ikerketa

Ikerketa-poliziala, beste izen batekin edo beste metodo, teknika... batzuekin ezagutu arren, betidanik existitu izan da. Hau da, historian zehar delituen ikerketak egin izan dira, modu batera edo bestera. Adibide bat emateagatik, Erroman, K.a jada delituen ikerketak egiten ziren errudunak aurkitzeko eta hauek zigorra bete zezaten (Ferro, 2013, 10. or.). Baina horiek aspaldiko kontuak dira eta delituaren ikerketarako erabiltzen ziren teknikek ez dute gaur egun ikerketa polizialean erabiltzen diren teknika metodiko eta zientifikoekin zerikusirik. Beraz, ikus ditzagun poliziaren egitekoak eta polizia-ikerketa zertan datzan.

Antónek eta De Luis y Turéganok dioten bezala, etimologikoki, Polizia hitza grekotik dator “Politeia” eta herritarren kolektiboari eta hauen bizimoduari, eskubideei eta estatuari egiten dio erreferentzia. Latinean ere aurkitu dezakegu polizia “Politia” izenarekin. Kasu honetan, herrietan eta errepubliketan dagoen ordena egokia izango litzateke. Beraz, polizia, komunitatearen mesedetan, legea betetzeaz eta betearazteaz, ordena mantentzeaz, lasaitasun eta segurtasun publikoa eta pertsonak eta hauen ondasunak legez kontrako egitateengandik babesteaz arduratzen den kidego eta indarra da. Hori horrela izanik, honako funtzio hauek dagozkio:

- Herritarren eskubideak eta askatasunak babestea



- Herritarren segurtasuna mantentzea
- Delituak prebenitu eta ikertzea
- Delitugileak aurkitu eta segurtatu
- Delituekin lotutako objektuak, instrumentuak eta frogak bildu eta kontrolatu
- Autoritate administratiboek eta judizialek aldarrikatutako legeak eta arauak betetzen direla zaindu

Funtzio poliziala, herritarrek segurtasun bermearen, babesaren eta beraien ondasunen zaintzaren beharra sentitzen dutenean sortzen da. Egoera honetan, bizitza normala garatu ahal izateko beharrezkoak diren gizarte baldintza egokiak lortzeko pertsonen erakunde bat sortzen da.

Poliziaren kontzeptu honetatik habiatuz, Stein-ek hiru egoera polizial bereizten ditu:

1. Segurtasun-polizia: funtzio prebentiboa du, hau da, herritarren segurtasuna zaintzeaz arduratzen da. Kaleen eta eraikinen zaintza, ordena publikoa mantentzea... dagokio. Orokorrean uniformeaz ezagutzen dugun poliziari dagokio.
2. Polizia-betearazlea edo ikertzailea: delituen ikerkuntzaz, egileen identifikazioaz eta atxilotzeaz arduratzen da. Lan hau polizia judizialari dagokio.
3. Polizia-administratiboa: ondarea babestean, establezimendu publikoen zaintzaz... arduratzen da. Hau da, administrazioetik datozen disposizio eta arauak betetzen direla bermatzeaz arduratzen da.

Beraz, hemendik ondorioztatu genezake, poliziaren funtzio nagusia herritarren segurtasuna bermatzea eta delituzko ekintzetatik babestea dela, horretarako, egitate zigorgarriak gertatuz gero, hauek ikertu eta egileak aurkituz eta atxilotuz. Eta hemen parte hartzen du polizia ikerketak. Izan ere, polizia-ikerketak, delituen ikerkuntzaz eta delitugilea identifikatzeaz eta atxilotzeaz arduratzen den poliziaren funtzio garrantzitsuenetako bat da. Lan hau, polizia judizialaren esku geratzen da, eta aurrerago azalduko dugun moduan, polizia zientifikoak ere esku hartzea du polizia-ikerketan.

Polizia-ikerketaren garrantzia ukazina da, izan ere, polizia, gizarteak eta bertako kideek babesteko duten mekanismo nagusia da. Delituari aurre egiteko instituzioa da eta beraz, justizia egikaritzeko eta gizartearen segurtasuna bermatzeko ere. Gainera, hau Espainiako Konstituzioak jasotzen du 104. artikuluan, zeinak segurtasun indarren

zeregina zehazten duen, esanez hauen betebeharra gizarteko kideen eskubide eta askatasunen jardute librearen babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea dela.

#### *104. artikulua*

*1. Segurtasun Indar eta Kidegoek, Gobernuaren mende direla, eginkizun hauek izango dituzte: eskubide eta askatasunen erabilera librea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea.*

### 1.3.2. Krimen-ikerketak

Polizia eta polizia-ikerketaren nondik norakoak azaldu eta gero, krimen-ikerketari ekingo diogu, estuki lotzen baita bi hauekin.

Ikertzea, zerbait aztertze edo aurkitze egiten diren aktibitate, diligentzia edo gestio multzoa da. Baina krimen-ikerketaren kasuan, aktibitate hauek, garrantzi juridiko-penala duten delituzko egitateak ikertzeko burutzen dira. (González et. al. 2010, 96. or.).

Hasieran jada aipatu den bezala, Fernandezek (2009, 51. or.), krimen-ikerketak delituari erantzuna emateko metodo gisa ikusten du. Hau da, delituaren ikerketari loturiko metodo tekniko-polizial bezala. Beste modu batera esanda, krimen-ikerketak, delituaren fenomenoari buruzko egia ezagutzeko baliagarria den diziplinarteko ezagutza eta ekintza sistematiko multzoa da eta honakoak barne hartzen ditu (Lago, 2017, 13-14. or.):

- Biktimaren, delitugilearen eta delituaren papera testuinguruan jartzen duten estrategien erabilera.
- Delituzko ekintzak murriztera, kontrolatzera eta prebenitzera bideratutako tekniken ikerketak.
- Dagokion zientzien hastapenetan eta teorietan, prozedura juridikoetan eta gertaeren berreraikitzean oinarritzen den ikerketak metodologikoaren ezagutza, modu tekniko-zientifikoan, ustezko delitua argitzeko eta honen autoreak aurkitzeko.

- Ekintza ikertzailea sostengatzen duten zientzien hastapenen eta teorien, eta hauei dagozkien diziplinen erabilera.
- Prozedura juridikoen erabilera.
- Egitateen berreraikuntza, gertatutakoaren osotasuna ikusteko inguruabar hauen bidez:
  - o Denbora: egitate baten gertaeraren iraupena edo lapsusak.
  - o Modua: egitatea burutzeko moduak.
  - o Denbora: erabilitako leku fisikoak.

Horrez gain, Lagok (2017, 15-16. or.) krimen-ikerketak izan behar dituen ezaugarriak aipatzen ditu:

### 1. Jarraitutasuna

Krimen-ikerketa, ikertu beharreko delituaren inguruan egiten diren aktibitate edo sekuentzia multzoa da. Honi esker, ikertzaileak bere helburua lortzen du, delituaren inguruabarrak argitu, delitugilea(k) harrapatu eta egiaren aurkikuntza.

Ikusten den moduan, krimen-ikerketaren ezaugarrietako bat jarraitutasuna da, izan ere, delitu baten ikerketa pausoz pauso egin behar da, pauso bakoitzak helburua lortzen laguntzen baitu eta pauso horiek indibidualki emanez gero, ezinezkoa delako bilatzen dena lortzea.

### 2. Metodikoa

Prozesu bat den aldetik, planeatu egiten da. Ikertzaileak badaki zer bilatu nahi duen, nola bilatu eta nora jo hipotesiari aurre egiteko.

Jada esan dugun moduan, krimen-ikerketa teknika metodiko eta zientifikoa da. Lan konplexua den aldetik, planifikazioa behar du finkatutako helburuetara hurbiltzeko eta bilatzen duena lortzeko.

### 3. Esplikatzaile-kausala

Krimen-ikerketaren bidez, ikertzaileak, nor izan den, non gertatu den, noiz, nola eta delitua burutzearen zergatia aurkituko du.

Ikertzailearen helburua delituaren inguruabarrak argitzea da, gertatutakoa ulertzeko eta delituzko egitatearen azalpen logiko bat eskaintzeko.

#### 4. Aurreikuspena

Krimen-ikerketaren fase edo prozesu guztiek aurreikuspena eta planeamendua behar dute, ikerketa prozesuak bilatzen duen emaitza lortu ahal izateko. Zenbat eta gehiago planeatu, arazoa konpontzetik gertuago egongo da ikertzailea.

Hau da, ezinbestekoa da krimen-ikerketan emango diren pausoak, faseak... ongi planifikatzea, helburura ahalik eta gehien hurbiltzeko.

#### 5. Organizazioa

Krimen-ikerketa, lortu nahi den helburura bideratutako sekuentzia multzoa da eta horretarako ordena logiko, metodologiko eta ordenatu batean oinarritzen da.

Hasieran esan dugun moduan, krimen-ikerketaren ezaugarrietako bat jarraitutasuna da. Jarraitutasun hori mantendu ahal izateko, ezinbestekoa da ordena mantentzea, ematen diren pausok koordinatuta eta ordena logiko baten egon daitezen.

#### 6. Aktibitate analitiko-sintetiko

Etengabeko analisi eta sintesian aritu behar da krimen-ikerketa, hau da, arazoa eta honen osagaiak deskonposatzen eta analizatzen, ondoren berrosatu eta elkarrekin erlazionatzeko. Modu horretara, inferentziak eginez, errealitatean oinarritzen diren konklusioetara heltzeko.

Ikerketaren fase ezberdinetan eskuratutako informazioa ordenatu egin behar da, prozesu konplexua den aldetik, organizazioa beharrezkoa delako. Informazio hori, ondoren deskonposatu eta birlotu egingo da, ikerketan lagundu dezaketen konklusio ezberdin eta logikoak lortzeko.

#### 7. Legezkoa

Ikerketan ematen den edozein pauso, legeak esaten duenaren arabera egin behar da. Batez ere, kontutan izanik, ikerketa egiten duen subjektua Estatuko organismo baten parte dela.

Krimen-ikerketak, logikoa den bezala, legeak esaten duena hertsiki jarraitu beharko du, helburuetako bat delitugilea harrapatzea den aldetik, oinarrizko eskubideak daudelako kontutan.

Ikusi dugu krimen-ikerketak ezaugarri oso zehatzak dituela eta horien artean metodikotasuna eta organizazioa nabarmentzen direla, bereziki. Lan konplexua da eta

horrenbestez, alderdi asko aintzat hartu behar dira bilatzen den helburua lortzeko. Orain, krimen-ikerketaz arduratzen diren subjektuak ikusiko ditugu eta baita hauen ikerketa-objektua.

### 1.3.3. Ikerketaren subjektuak

Krimen-ikerketaren barruan subjektu anitz daude, baina hitzak berak esaten duen moduan delitua eta ikertzailea izango ditugu subjektu nagusitzat. Krimen-ikerketa bat existitzeko ezinbestekoa izango bi alderdi hauen parte hartzea edo interrelazioa. Ikertzailearen aldean, polizia judiziala eta polizia zientifikoa daude eta beste aldean, delitua eta delitugilea.

#### 1.3.3.1. Polizia judiziala eta polizia zientifikoa

Espainiako Konstituzioak, 126. artikuluan poliziala judizialaren inguruan hitz egiten digu, esanez hauen helburua delitua ikertzea eta delitugilea aurkitzea direla.

Queraltek eta Jimenezek (1989, 23 eta 24. or.) polizia judiziala, poliziaren barruan funtzio espezifikoak duen polizia bezala definitzen dute. Polizia zientifikoan oinarritzen da eta honen funtzioen artean egitate zigorgarrien ikerketa, jazarpena eta segurtatzea daude, ondoren autoritate judizialaren esku jartzeko eta azkenik, Ministerio Fiskalaren esku. Polizia zientifikoan oinarritzearen arrazoia, polizia judizialaren espezializazioa izan da, delituei aurre egiteko estrategia bezala.

Delituak ikertzeari dagokionez, bi funtzio nagusi ditu:

1. Autoritate judizialak parte hartu baino lehen delituak ikertzea.
2. Ministerio Fiskalak kasu konkretuetan eskatzen dizkion eginkizunak betetzea.

Lehena, delituzko egitateen eta erantzuleen ikerketa eta hauen atxilotzean oinarritzen da, ondoren, autoritate judizialari eta fiskalari berri emateko legeak esaten duenaren

arabera. Bigarren funtzioak zentzu bikoitza du. Batetik, aurretik aipatu bezala, autoritate judizialaren edo fiskalaren agindupean, egitate konkretuak aztertzean datza eta bestetik, hauek hartutako erabakiak betearazten laguntzea, kasu honetan indarraren erabilerarekin, beharrezkoa bada.

Aipatutako funtzioak, 769/1987 *polizia judizialaren errege-dekretuan* ere jasotzen dira. Baina Blázquezek (1998, 140-146. or.), polizia judizialaren inguruko beste funtzio batzuk eskaintzen dizkigu.

- Prebentzioa: *Espainiako Konstituzioak*, 104 eta 149. artikuluetan segurtasun publikoari eta herritarren segurtasunari buruz hitz egiten digu. Polizia judizialak paper garrantzitsua jokatzeko du hemen, izan ere, herritarren segurtasuna zaintzeko modua delituaren prebentzioaren bidez egikaritzen da eta hau polizia judizialaren esku dago.
- Funtzio orokorrak: delitu publikoak aztertu eta beharrezkoa bada delitu pribatuak ere, hauek ikertzeko beharrezko diligentziak egin, delitugilea bilatu eta garrantzitsuak diren objektuak, frogak etab. bildu autoritate judizialari bidaltzeko.
- Funtzio espezifikoak: aktibitate operatiboak, hau da, ikerketan zehar polizia judizialak erabiltzen dituen teknika, metodo eta prozedurak (zaintzak, X izpien erabilera jendea eta ondasunak erregistratzeko, finantza ikerketak, informazioa trukatzeko Estatuaren artean, delitugileekin kolaborazioa...), aktibitate tekniko-zientifikoak, orokorrean inspektzio tekniko-okularrean erabiliak, baina baita beste alor batzuetan, hala nola, balistika, grafistika, ADN, SAID (hatz-marken identifikaziorako sistema automatikoa)... eta biktimen laguntzarako aktibitateak.

Polizia judizialak, lan guzti hauek egin ahal izateko, atxikitako beste unitate batzuk ditu, eta horien artean polizia zientifikoa dago. Aurretik aipatu bezala, delinkuentziari aurre egiteko espezializatutako unitate bat da.

Antónek eta De Luis y Turéganok (1993) diote, polizia zientifikoak delituaren aztarna materialak ikertzeaz arduratzen diren prozedura zientifikoak biltzen dituela, gertatutakoa argitzeko eta pertsona konkretu bati egotzi ahal izateko. Polizia zientifikoak gaur egun dituen baliabideei esker, frogaren administraziorako balio handiko elementu objektiboak lortzen dira.

Beraz, polizia zientifikoa, zientzia teknologiko gisa definitzen dute eta hauen hastapen eta oinarriak poliziak teknikoki aplikatzen ditu ondorengo helburuekin:

- Delitua ikertzeko
- Delitu horren egileak identifikatzeko
- Egitate zigorgarria zehazten duten zirkunstantziak ezagutzeko
- Elementu frogagarriak lortzeko

Polizia zientifikoak, bere metodo, doktrina eta irizpide propioak ditu, hori dela eta, ez da ezagutza multzo bat bakarrik, baizik eta egiazkoa eta ukaezina den zientzia bat da.

Beraz, ikusi dugun moduan, polizia judizialak hainbat funtzio ditu eta horietako bat krimen-ikerketak da. Baina ikerketaren garrantzia dela eta, polizia zientifikoa dago zehazki krimen-ikerketaz arduratzeko. Jarraian, polizia zientifikoaren eta krimen-ikerketaren subjektua eta objektua zeintzuk diren azalduko dugu.

### 1.3.3.2. Ikerketaren subjektua eta objektua

Jada aritu gara ikerketaren subjektu aktiboez, hau da, delitu bat gertatu ostean parte hartzen duten subjektuez, polizia judiziala eta polizia zientifikoa hain zuzen ere. Orain ikerketaren bestea aldean dauden objektuaz eta subjektuaz hitz egingo dugu, delitua eta delitugilea.

Delitua, zigor kodean tipifikatzen diren portaerak izango dira. Enciclopedia Juridicak<sup>1</sup> delitua modu honetara definitzen du: zigor kodearen urraperen bat suposatzen duen portaera tipiko, antijuridiko eta erruduna. Horrez gain, Cuellok (Enciclopedia Jurídica), aurreko ezaugarriez gain, zigor batekin zigorgarria den portaera bat dela dio eta Rodríguezek (Enciclopedia Jurídica), ez egiteak aipatzen dizkigu. Beraz, delitua, legeak aurreikusten duen eta zigorgarria den egite edo ez egite bat da, doluz edo zuhurtziagabekeriak egindakoa eta kalteak sortzen dituena.

Delitua, legezkoa ez den portaera bat emateagatik edo ez emateagatik sortzen den ondorioa da, beraz honen atzean subjektu edo egile bat dago: delitugilea edo delitua

---

<sup>1</sup> Enciclopedia jurídica: <http://www.encyclopedia-juridica.biz14.com/d/delito/delito.htm>

burutu duen pertsona, zeinak delituaren ondorio juridikoak jasoko dituen. Krimen-ikerketan ezinbesteko elementu bat izango da izan ere, delituaren inguruabarrak aztertzeaz gain, delitugilea aurkitzea krimen-ikerketaren helburuetako bat da. Hala ere, ondoren azalduko dugun bezala, krimen-ikerketak helburu gehiago ditu.

#### 1.3.4. Krimen-ikerketaren helburuak

Krimen-ikerketaren nondik norako guztiak aipatu ondoren, jada nahiko argi dago zein den honen helburua, baina krimen-ikerketaren barruan helburu ezberdinak daude, delituaren inguruabarrak argitzeaz eta delitugilea harrapatzeaz gain.

Lagok, *La práctica de la investigación criminal: inspección técnico ocular* (2017, 14. or.) liburuan, krimen ikerketaren helburuez hitz egiten digu eta sei helburu nagusi aipatzen dizkigu:

1. Salaketa edo kereila bidez jasotako egitateak ikertu.
2. Arau penaletan tipifikatzen den egitate zigorgarri bat gertatu den edo ez zehaztu.
3. Analisi tekniko-zientifikoen emaitzetan eta diligentsia judizialean oinarrituta, egitate kriminal baten erantzulea identifikatu.
4. Dagokion autoritate judizialarekin batera, delituarekin zerikusia duten pertsonak edo delitugileak harrapatu.
5. Prozesu penalaren etapa guztietan parte hartu eta frogak eskaini.
6. Zigorgarria den egitate batean edo dagokion autoritate judizialarekin egindako ikerketa baten ondorioz beharrezkoak diren lapurtutako edo ebatsitako ondasunak berreskuratzea eta hauetaz arduratzea.

Beraz, esan genezake, krimen-ikerketaren helburu nagusia delituaren ikerketa dela, modu horretara delitugilea nor den ezagutzeko eta justizia egikaritzeko. Baina helburu hauek lortu ahal izateko, legeetan, dekretuetan... erregulatutako betebeharrak edo jarraibideak izan behar dituzte kontutan.



#### 1.4. Krimen-ikerketaren erregulazioa

Polizia judiziala eta polizia zientifikoa dira krimen-ikerketaz arduratzen diren subjektuak, hori dela eta, krimen-ikerketaren erregulazioa hauen jardunaren erregulazioan oinarrituko da.

Polizia judizialaren inguruan bereziki lau lege nabarmentzen dira: *Espainiako Konstituzioa*, *Prozedura Kriminalaren Legea*, *martxoaren 13ko 2/1986 Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoa* eta *769/1987 Polizia Judizialaren Errege-dekretua*.

- *Espainiako Konstituzioak* IV. Tituluan: Gobernua eta administrazioa, Segurtasun Indar eta Kidegoen eginkizunak jasotzen ditu: herritarren eskubideak, askatasunak eta segurtasuna bermatzea.

##### *104. artikulua*

*1. Segurtasun Indar eta Kidegoek, Gobernuaren mende direla, eginkizun hauek izango dituzte: eskubide eta askatasunen erabilera librea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea.*

*2. lege organiko batek zehaztuko ditu Segurtasun Indar eta Kidegoen funtzioak, jarduera-printzipio oinarritzakoak eta estatutuak.*

VI. Tituluan: Botere Judiziala, Konstituzioak Polizia Judiziala noren menpe dagoen esaten digu delitua ikertzeko orduan.

##### *126. artikulua*

*Polizia judizialak epaileen, auzitegien eta Ministerio Fiskalaren mende dihardu delitua ikertzeko eta delitugilea aurkitu eta zaintzapean edukitzeko eginkizunetan, legeak ezarritako moduan.*

- *Prozedura Kriminalaren legeak*, polizia judizialaren buruz hitz egiten digu III. TITULUAN 282-298. artikuluetan hain zuzen ere. Orokorrean hauen helburuei buruz, osatzen duten kideei buruz eta jardun beharreko moduari buruz arituko gara.

#### *282. artikulua*

*Polizia Judizialaren xedea eta hori osatzen duten guztien betebeharra da euren lurralde edo mugapean gertatzen diren delitu publikoak ikertzea; eurek dituzten eskumenen arabera, delituok egiaztatzeko beharrezkoak diren eginbideak gauzatu eta delitugileak atzematea; eta delituaren efektuak, tresnak edo frogak, desagertzeko arriskuan daudenak eta agintaritza judizialaren esku uztea.*

*Delitua alderdi legitimoak hala eskatuta soilik pertsegi badaiteke, aurreko lerrokadan aipatu betebeharrak bera izango dute, baldin eta horretarako galdatuak izan badira. Salaketarik ez egoteak ez du eragotziko jabetza intelektualari eta industria-jabetzari buruzko delituetan lehen aurreneurriak hartzea eta lehenengo segurtasun-eginbideak gauzatzea.*

Artikulu honek esaten digu, Polizia Judizialaren funtzioa delituak ikertzea izango dela eta horretarako eskuragarri dituen teknika eta baliabideak erabili ahal izango dituela. Horrez gain, ere aipatzen du, ikertu beharreko delituak publikoak ez badira ere, delitu publikoen ikerketarako dituen baliabide berberak erabili ahalko dituela.

#### *283. artikulua*

*Jarraikoek polizia judiziala eratuko dute, beraiek zigor-arloan eskumena duten epaile eta auzitegien nahiz Fiskaltzaren laguntzaileak izango dira, eta delitua ikertzeko eta delitugileak pertsegitzeko agintari haiengandik jasotako jarraibideok bete beharko dituzte:*

- 1. Segurtasun publikoaz eta delitu guztiak edo zenbait delitu berezi pertsegitzeaz arduratzen diren administrazio-funtzionarioek.*

2. *Segurtasuneko poliziaren enplegatuek edo mendekoek, euren izena edozein izanda ere.*
3. *Alkateek, alkateordeek eta auzo-alkateek.*
4. *Gaizkileak pertsegitu behar dituzten Guardia Zibileko edo beste edozein indarretako buruak, ofizialak edo gizabanakoek.*
5. *Hirizaingo edo landa-poliziako gauzainek, zelariak edo udaleko agenteetatik beste edozeinek.*
6. *Basoen, zelaien eta soroen zaintzaileak, Administrazioak zin egin eta berretsitakoek.*
7. *Espetxeko kidego bereziko funtzionarioek.*
8. *Agente judizialek, eta auzitegi eta epaitegien mendekoek.*
9. *Trafikoko Burutza Nagusiaren mendeko langileak, istripuen ikerketa teknikoaz arduratzen direnek.*

Ikusten den bezala, Polizia Judiziala hainbat unitatez osatzen da, baina batzuek besteek baino pisu edo betebeharrak gehiago izango dute krimen-ikerketan.

#### *287. artikulua*

*Polizia Judizialeko funtzionarioek atzerapenik gabe eta kasuan-kasuan dituzten eskumenen arabera gauzatuko dituzte Fiskaltzaren funtzionarioek delitua egiaztatzeko eta delitugileak nor diren jakiteko agintzen dizkieten eginbideak, bai eta instrukzio-epaileek eta udal-epaileek auzian zehar agindutako gainerako eginbide guztiak ere.*

#### *292. artikulua*

*Polizia Judizialeko funtzionarioek eurek gauzatutako eginbideei buruzko atestatua luzatuko dute, dela paper zigiludunean dela paper arruntean; atestatu horretan, zehaztasun handienarekin adieraziko dira eurek ikertutako egitateak, jasotako adierazpen eta txosten guztiak barneratuta, eta delitu-frogak edo – zantzuak izan daitezkeen inguruabar guztiek idatzoharra eginda.*

*Polizia judizialak txostena igorriko du atestatuarekin batera, eta, txosten horretan, aurretik egindako atxiloketak eta deia egiteko eta bilatzeko errequisitoriak aipatuko dira, haren datu-baseetan hori jasota badago.*

Polizia Judizialak, krimen-ikerketan eskuratutako frogak, gauzatutako eginbideak, delitu zantzuak etab. atestatu baten jarri beharko ditu eta dagokion gainekoari igorriko dio.

- *Martxoaren 13ko 2/1986 Segurtasun indar eta kidegoen Lege Organikoan, segurtasun indar eta kidegoen betebeharra zehazten da, delituen ikerketari dagokionez.*

*11.f eta g artikulua*

*Estatuko Segurtasun indarren eta kidegoen betebeharra izango da herritarren eskubide eta askatasunen erabilera askea eta segurtasuna bermatzea, horretarako funtzio hauek egikaritzuz:*

*f) Delituzko egitateen prebentzioa*

*g) Delituak ikertu, errudunak aurkitu eta atxilotzeko, instrumentuak, gauzak eta delituaren frogak segurtatu, dagokion Epaille edo Tribunalaren esku uzteko eta dagozkien txosten teknikoak eta aditu txostenak egin.*

Aipatutako bi funtzio hauek dira zuzenean krimen-ikerketari lotu dakizkiokeenak eta Espainiako Konstituzioak 104. artikuluan esaten duenaren antzekoa jasotzen du. Kasu honetan, Estatuko Segurtasun indarren eta kidegoen betebeharrak zehazten dira eta horiek betetzeko egikaritu beharreko funtzioak.

Horrez gain, jada Espainiako Konstituzioan aipatutako 126. artikuluari erreferentzia egiten dio Lege Organiko honek V. kapituluan.

## *29. artikulua*

*1. Konstituzioko 126. artikuluan aipatzen diren Polizia Judizialaren funtzioak, Estatuko Indar eta Kidegoek gauzatuko dituzte, kapitulu honetan erregulatzen diren Unitateen bidez.*

*2. Funtzio honen betearazpenerako, Autonomia Erkidegoetako Poliziek eta Korporazio Lokalek izaera kolaboratzailea izango dute Estatuko Indar eta Kidegoekiko.*

- Azkenik, 769/1987 Polizia Judizialaren Errege-dekretua dugu. Hemen Polizia Judizialaren erregulazioa dago: funtzioak, jarraitu beharreko irizpide eta arauak, atxikitako unitateak... Krimen-ikerketari dagokionez, nabarmentzekoak dira hurrengo artikulua:

## *1. artikulua*

*Segurtasun Indar eta Kidegoetako guztiei dagozkie Polizia Judizialaren funtzio orokorrak, edozein izaera edo dependentzia delarik. Hauek hala eskatuz gero, Autoritate Judizialarekin edo Ministerio Fiskalarekin lan egingo dute delituaren azterketan edo delitugileen aurkikuntzan eta segurtatzean, legeak esaten duenaren arabera jardunez.*

## *18. artikulua*

*Polizia Judizialaren Unitate Organikoen funtzioa izango da krimen ikerketa, izaera iraunkor eta bereziarekin. Hau modu eraginkor batean burutu ahal izateko, behar dituzten langileak eta bitartekoak izango dituzte eta beharrezkoa izanez gero, delituaren ikerkuntzan espezializatutako taldeak eratuko dira Unitate hauen barruan.*

Atxikitako unitateei dagokionez, polizia zientifikoa dago eta 28. artikuluan honen funtzioak zehazten dira.

#### *28. artikulua*

*Bereziki atxikitako unitateek, ordena jurisdikzional penala duten organoentzat eta batik bat, zaintzako Epaitegiarentzat eta Fiskalarentzat lan egiterakoan, polizia zientifikoan oinarritutako krimen ikerketari loturiko lanak burutuko dituzte.*

*Funtzio hauen barruan, ondorengo kargu egingo dira:*

- a) Begi-ikuskapena*
- b) Lehenengo datuak eskaini, etxebizitzan eta egonlekuen aurkikuntza, portaera edo sinesgarritasun txostenak igorri*
- c) Presazko peritu txostenak igorri, ahoz behar bada, erabaki judizial urgenteak hartu behar direnean*
- d) Gorpuen altxaketa*
- e) Frogen bilketa*
- f) Berehalako interbentzioa*
- g) Aurretik aipatutakoen antzeko izaera duten funtzioak*
- h) Presidenteentz, Epaileen eta Fiskalaren ordenen berehalako exekuzioa*

Lege guzti hauek krimen-ikerketari egiten diote erreferentzia. Alde batetik, Espainiako Konstituzioak 104. artikuluan, oinarritzko eskubideen eta askatasunen erabilera askea eta segurtasuna bermatzearen betebeharra esleitzen die Segurtasun Indar eta Kidegoei eta 126. artikuluan, Polizia Judizialari delitua ikertzeko eta delitugilea aurkitzeko betebeharra. Beraz, elkar erlazionatu daitezke, izan ere, Polizia Judizialaren lanari esker 104. artikuluan galdatzen dena betetzen da. Bestalde, Prozedura Kriminaleko Legeak ere gauza bera esaten digu Polizia Judizialaren betebeharrei buruz, baina haratagoa doa eta delitua ikertzeko eta delitugilea pertsegitzeko jarraitu beharreko jarraibideak adierazten dizkigu eta Polizia Judizialaren atestatuari buruz hitz egiten digu. Estatuko Segurtasun indarren eta kidegoen Lege Organikoak, beste horrenbeste esaten digu, hauen betebeharez hitz egiten digu eta Espainiako Konstituzioak 126. artikuluan esaten

duena aipatzen du. Azkenik, 769/1987 Polizia Judizialaren Errege-dekretuak Polizia Judizialaren erregulazio zehatzagoa eskaintzen digu eta honi atxikitako unitateak eta honen funtzioak aipatzen dizkigu.

Beraz, legeek, krimen-ikerketa kontutan izaten dute herritarren oinarrizko eskubideak, askatasunak eta babesa bermatzeko orduan.

### 1.5. Udal Polizien zeregina eta egitura

Udal Poliziek, herrien/hirien zaintzan eta herritarren babesean paper garrantzitsua jokatzeko dute. Hori dela eta, interesgarria da ikustea zein funtzio dituzten eta nola egituratzen diren.

Prozedura Kriminalaren Legearen 183. artikuluan dagoeneko aipatu den bezala, udal poliziak polizia judizialaren parte izango dira eta delitua ikertzeko eta delitugileak pertsegitzeko epaile eta auzitegien nahiz Fiskaltzarengandik jasotako jarraibideok bete beharko dituzte.

Tradizionalki, udal polizien kidegoak Kidego nazionalen laguntzaile soil gisa kontsideratzen ziren. Baina, *Segurtasun indar eta kidegoen Lege Organikoak* tradizio honekin hautsi zuen eta funtzio hauek esleitu zizkien (Blázquez, 1998, 36 eta 37. or.):

- Korporazio lokaletako autoritateak babestu eta hauen eraikin eta instalazioen zaintza.
- Hiriguneko trafikoa ordenatu, seinaleztatu eta bideratu.
- Hiriguneko trafiko istripuen atestatuak izapidetu.
- Polizia Administratiboaren lana, ordenantzei, bandoei eta bestelakoei dagokienez.
- Segurtasun indar eta kidegoen Lege Organikoko 29.2 artikuluan zehatzen denaren arabera Polizia Judizialaren funtzioak burutu.
- Laguntza ematea istripu eta hondamendietan Babes Zibilerako planen exekuzioaren bidez eta legeak esaten duenaren arabera.
- Prebentziorako diligentziak eta beharrezkoak diren jarduketak delituzko egitateak ekiditeko, Segurtasun Batzarrak zehazten duenaren arabera.

- Toki publikoak babestu eta beharrezkoa denean Estatuko Segurtasun indar eta kidegoekin lan egin manifestazioetan eta jende ugari dauden tokietan ordena mantentzeko.
- Hala dagokienean, gatazka pribatuen ebazpenetan kooperatu (Segurtasun indar eta kidegoen Lege Organikoko 53.2. artikulua).

Beraz, Polizia lokalen funtzioak administratiboak, laguntzaileak, segurtasunekoak eta trafikoari lotutakoak dira bereziki. Polizia Judizialaren funtzioari dagokionez, oso mugatua da. Dena den, aipatu dugun modura, legeak Polizia Judizialaren estatusa ematen die eta izaera kolaboratzailea izango dute.


Egiturari dagokionez, Autonomia Erkidego bakoitzak bere lege propioa du. Kasu honetan, Euskal Herriko Polizia lokalen egituran zentratuko gara. *Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Lege Organikoa*, 118. artikuluan esaten digu Polizia lokalen kidegoak modu honetara sailkatzen direla:

- Eskala teknikoa: intendente kategoria, A taldeari dagokiona eta komisarioa eta komisario ordea, B taldeari dagozkienak.
- Inspekzio eskala: ofizial eta ofizial orde kategoriak, C taldeari dagozkienak.
- Oinarrizko eskala: agente lehena eta agente kategoriak, D taldeari dagozkienak.

Eskala teknikoa soilik 100.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan sortu ahal izango da eta intendente kategoria 300.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan eta gainera, Polizia kidego horrek 400 funtzionario edo gehiago izan beharko ditu.



Euskal Herriko Polizia lokalen egituraren adibide gisa Donostiako Udal Polizien organigrama daukagu. Organigrama honetan bertako langileen egitura hierarkikoa ikusten da.



Beraz, ikusi dugun moduan, udal poliziak Polizia Judicialaren parte dira eta hauen funtzioez gain, beraien funtzio propioak ere badituzte, bereziki hiriaren zaintzara bideratuak, grafikoan ikus daitekeen moduan.

## 1.6. Konklusioa

Atal honen helburua polizia-ikerketaren eta krimen-ikerketaren inguruko ikusmira orokor bat eskaintzea zen, polizien lana eta ikerketaren nondik norakoak aditzera emateko.

Lehendabizi, krimen-ikerketaren, kriminalistikaren eta kriminologiaren lotura nabarmendu dugu, ikusteko nola metodo tekniko-polizial eta zientzia hauek

erlazioatzen diren eta zein modutara lan egin dezaketen elkarrekin. Hemendik ondorioztatu genezake, kriminalistika, krimen-ikerketak bere helburuak lortzeko erabiltzen duen zientzia dela eta kriminologia, delituari eta honen inguruabarrei buruzko informazio fidagarria eskaintzeko tresna. Hori dela eta, hiru hauen arteko elkarlanak delituaren inguruabarrak eta delitugilea aurkitzen lagundu dezake.

Hiru hauen arteko erlazioari dagokionez, autore batzuek, zientzia independente eta osagarriak direla defendatzen dute eta beste batzuek kriminalistika krimen-ikerketaren sinonimotzat eta kriminologiaren adar gisa definitzen dute. Hemendik ondorioztatu daiteke, autoreen arteko adostasunik ez badago ere, hiru hauen arteko erlazioa nabarmena dela delitua ikertzeko orduan.

Ondoren, poliziaren eta ikerketa-polizialaren funtzioak ikusi ditugu eta esan daiteke hauen funtzio nagusia herritarren segurtasuna bermatzea eta delituzko ekintzetatik babestea dela. Aurrerago, krimen ikerketaren nondik norakoak azaldu ditugu, hala nola, barne hartzen dituen kontuak eta ezaugarriak, helburuak eta parte hartzen duten subjektuak. Azken honetan, alde batetik, Polizia judizialaren eta polizia zientifikoaren kontzeptuak azaldu ditugu, bi hauek baitira krimen-ikerketaz arduratzen diren subjektuak eta beste aldetik, delitua eta delitugilea, krimen-ikerketak ikertzen dituen subjektuak baitira. Krimen-ikerketari lotuta, honen erregulazioa errebisatu dugu, legeak zer esaten duen ikusteko.

Bukatzeko, udal poliziei buruz aritu gara, hauen funtzioa eta egitura ulertzeko bereziki. Zalantzak sor ditzakeen kontzeptua da, izan ere, hasiera baten beste polizia batzuen kolaboratzaile gisa ikusten bazen ere, gaur egun hainbat funtzio ditu. Egiturari dagokionez, Euskal Herriko Udal Poliziena azaldu dut, izan ere Autonomia Erkidego bakoitzak bere Lege Organiko propioa du eta beraz, egiturak ezberdinak izan daitezke. Beraz, azken atal honetan, ikusi dugu, betidanik kontutan izan ez badira ere, Udal Polizien lana garrantzitsua eta beharrezkoa dela.

## 2. ATALA: Polizia-ikerketaren objektua: delitua: dokumentuak

---

### 2.1. Sarrera

Jada polizia-ikerketari eta krimen-ikerketari buruz hitz egin ondoren, hauek ikertzen duten gai bati buruz hitz egingo dugu: dokumentuei loturik dauden delituak. Bigarren atal honetan zehar, dokumentu bat zer den azalduko dugu, izan ere, batzuetan kontzeptu korapilatsua izan daiteke eta honen inguruko kontuak ikusiko ditugu. Horretarako, lehen atalean, legeak esaten duena ikusiko dugu eta ondoren adituen ikuspegiaren arabera dokumentu bat zer den. Horrez gain, adituek dokumentuen inguruan egiten duten sailkapena edo sailkapen periziala azalduko dugu, dokumentuak nola sailkatzen diren ikusteko. Hemen egiazko edo zalantzarik gabeko dokumentuak, zalantzazkoak, aldatutakoak eta dokumentu erakusgarriak izango ditugu. Gainera, faltsifikazio gehien izaten dituzten dokumentuak eta faltsifikazio motak ere aipatuko ditugu. Bigarren atalean, dokumentuei loturiko delituak ikusiko ditugu eta Zigor Kodeak hauei buruz zer esaten duen eta nola zigortzen dituen portaera hauek. Hirugarren atalean, dokumentuen segurtasun neurriez arituko gara, izan ere, ikusiko dugunez hainbat daude eta mota ezberdinetakoak. Bereziki hiru motatakoak azpimarratzen dira: edukitzailean daudenak, inprimaketa bidez eransten direnak eta elementu gehigarrien bidez eransten direnak. Laugarren atalean, dokumentuetan ikertu daitezkeen gaiez hitz egingo dugu. Bukatzeko, azken atalean, aurreko atal guztietan ikusitakoaren sintesi bat egingo da, konklusio modura.

### 2.2. Zer da dokumentu bat?

#### 2.2.1. Kontzeptua

“Dokumentua” hitza entzuterakoan zalantzak sor dakizkiguke honen inguruan, zer da dokumentu bat eta zer ez? Soilik idatziz jasotzen direnak dira dokumentuak edo elektronikoak ere izan daitezke?... Dokumentua kontzeptu zabal bat, zalantzak

argitzeko helburuarekin, hemen dokumentu bat zer den azalduko dugu eta ondoren honen inguruko beste elementu, sailkapen, motak...

Dokumentua zer den ulertzeko, Zigor Kodeko 26 artikulua honakoa dela esaten digu: *agiritzat hartzen da datuak, egitateak edo kontaketak adierazi edo barneratzen dituzten euskarri materialetatik edozein, baldin eta datu, egitate edo kontaketok frogageraingarritasuna edo beste edozein motatako garrantzi juridikoa badute.*

1995ko Zigor Kodea indarrean egon arte, ez zegoen dokumentuaren inguruko definiziorik legean eta ondorioz, jurisprudentziatik interpretatu beharra zegoen. Hori dela eta, soilik paperean idatzita zeudenak kontsideratzen ziren dokumentu. Baina Zigor Kode honi esker eta jurisprudentziaren egokitzapenei esker, definizioa gaur egungo egoeretara egokitzen joan da eta jada dokumentu elektronikoak ere kontutan hartzen dira. Beraz, Zigor Kodeak esaten duen moduan “euskarri materialetatik edozein” izango da dokumentu bat. (Martín, 2010. 163-164. or.).

Horrez gain, Martinek (2010, 164-165. or.) esaten digu aditu ikuspegia ere kontutan hartzekoa dela. Izan ere, ikuspegi honek dokumentuaren kontzeptuari zenbait xehetasun gehitzen dizkio:

*“Documento es todo objeto cuyas cualidades físicas o contenidos sean susceptibles de analizarse con diferentes métodos, para llegar a establecer su autenticidad, su autoría, su estado o su origen”.*

Beraz, aditu ikuspegia kontutan hartuta, peritatze objektu gisa sailkatuko dira esku idazkiak, mekanografiatuak, inprimatuak, argazki motakoak... eta euskarri magnetikoetan dauden disketeak, disko trinkoak, bideoak, erregistro magnetofonikoak etab.

Hortaz, aurreko bi definizioen harira, esan daiteke dokumentu oro bi atalez osatzen dela: edukitzailea eta edukia. Edukitzailea, edozein euskarri material izango da, fisikoa zein elektronikoa, eduki bat irudikatzeko balio duen heinean, eta edukia, dokumentuan jasotzen dena.

Ikusi dugun moduan, dokumentuen inguruko definizioa oso zabala da, paperean, formatu elektronikoan... egon daitezke. Gainera, dokumentuak izaeraren (formal eta

fisikoa) arabera modu ezberdinean sailkatzen dira. Hurrengo atalean, dokumentuen sailkapen periziala ikusiko dugu.

### 2.2.2. Sailkapen periziala eta dokumentu ohikoenak

Lehenengo atalean esan dugun modura, dokumentuak modu ezberdinetara sailka daitezke hauen izaeraren arabera. Kasu honetan, adituek egiten duten sailkapena ikusiko dugu, hurrengo atalarekin lotura estua izango baitu.

Sailkapen perizialaren inguruan, Martinek (2010) esaten digu, dokumentuaren egiazkotasuna, faltsutasuna, egiletza... hartzen direla kontutan eta hauen arabera oinarrizko sailkapena egiten dela: zalantzarik gabeko dokumentuak eta zalantzazko dokumentuak.

- Egiazko edo zalantzarik gabeko dokumentuak

*Prozedura Zibilaren Legearen* 350. artikulua zalantzarik gabeko dokumentuen inguruko definizioa ematen digu.

*350. artikulua: alderatzea egiteko, zalantzarik gabeko agiriak edo idazketa-multzoa.*

*1. Idazkera zein alderdik alderatu eta horrek adieraziko du, berori zein agiri zalantzagaberekin egin behar den.*

*2. Idazkera alderatzeko, ulertuko da honako hauek zalantzarik gabeko agiriak direla:*

*1.) Aditu-frogak zein alderdi ukitu eta alderdi horiek guztiek halakotzat aitortu dituzten agiriak.*

*2.) Eskritura publikoak eta nortasun-agiri nazionalari buruz artxibo publikoetan ageri direnak.*

3.) *Zalantzagarritasuna eratzikitzen zaion alderdiak agiri pribatuek daramaten letra edota sinadura epaiketan aitortzea.*

4.) *Aurkaratutako idazkia, berorrek nori kalte egin eta horrek idazkera berea dela onartu zatian.*

3. *Aurreko paragrafoan aipatu agirietatik kanpo, aurkaratutako agiria, edo agiria baimentzen duen sinadura zein alderdiri eratziki eta horri errekeritu ahal izango zaio, aurkako alderdiak hala eskatuta, idazketa-multzoa egiteko, berori auzitegiak edo idazkari judizialak diktatuz.*

*Errekerituak idazketa-multzoa egiteari ezezkoa ematen badio, ulertuko da aurkaratuta agiria aitortu dela.*

4. *Zalantzarik gabeko agirik ez badago eta idazketa-multzoarekin alderatzea ezinezkoa bada, berori egin behar zuena hilda edo absente dagoelako, aurkaratu agiriaren balioa aintzat hartuko du auzitegiak, kritika zintzoaren erregelen arabera.*

Beraz, ikusten den moduan, egiazko edo zalantzarik gabekoak izango dira: aditu-frogek hala zehaztu dituztenak, idazki publikoak eta artxibo publikoetan ageri direnak, epaiketa baten egiazkotasuna frogatuta duten idazki pribatuak eta aurkaratutako idazkiak, baina egileak onartu dituenak. Hau oinarri moduan izanik, ikus ditzagun zeintzuk ez diren zalantzarik gabekoak.

- Zalantzazko dokumentuak

Zalantzazkoak kontsideratuko dira, hasieratik, autentikotasunaren edo egiletzaren inguruan zalantzak sortzen dituzten dokumentuak. Hauek izango dira, peritu jarduketaren objektua.

Dena den, argi utzi behar da, zalantzazkoa izateak ez duela esan nahi dokumentu bat faltsua edo manipulatua denik, soilik egiazkotasuna frogatu nahi dela edo zalantzan dagoela.

- Aldatutako dokumentuak

Aldatutako dokumentuak deritze, atal baten aldaketa partzial edo totala jasan duten dokumentuei. Aldaketak mota ezberdinetakoak izan daitezke, adibidez: edukia ezabatu eta berriz idaztea, datuak gehitzea, aldatzea edo kentzea...

- Dokumentu erakusgarriak

Beste dokumentuen eredu gisa erabiltzen diren dokumentuak dira. Hau da, dokumentu mota hauek erreferentzia izango dira zalantzazkoak diren dokumentuekin konparatzeko orduan. Horrenbestez, dokumentu hauek ezaugarri konkretu batzuk izan beharko dituzte:

- Originalak: dokumentu baten kopia ez izatea, hau da, bertsio originalak izan behar dute.
- Egiazkoak: zalantzazkoak ez izatea, helburua zalantzazkoekin alderatzea baita.
- Egokiak edo aproposak: zalantzazkoen egoera berdinetan (formatua, papera...) egindako dokumentuak izatea.
- Garaikideak: garaian egindakoak. Beste modu batera esanda, gaur egun indarrean dauden dokumentuen garai berekoak
- Formatuaren inguruko betekizunak izatea.
- Dokumentu hauen kopuru nahikoa egotea.
- Laborategian ikertu ahal izatea eta horretarako epea ez mugatzea. Esan bezala, helburua zalantzazkoekin alderatzea baita, hauen egiazkotasuna edo zalantzagarritasuna frogatzeko.

Jada ikusi dugun sailkapen perizialaren harira, Romero eta beste adituek (2018, 165. or.) beste sailkapen bat eskaintzen digute. Taula honetan, gehien faltsifikatzen diren dokumentuak agertzen dira:

Ofizialak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Identitatezkoak: nortasun gutunak orokorrean eta Espainiar NANA</li> <li>- Bidaiatzekoak: pasaporteak, bisak eta ibiltzeko baimenak</li> <li>- Atzerritarrenak: atzerritarren identitate txartelak, Europar Batasuneko hiritartasun ziurtagiriak</li> </ul>
Merkataritza eta ordainketa bitartekoak	Bankuko billeteak, kreditu eta zor txartelak, Traveller´s txeke eta antzekoak
Zirkulazio eta garraiokoak	Gidabaimenak, zirkulazio baimenak,
Bestelakoak	<p>Loteria, ONCE, apustu jokoak...</p> <p>Ikuskizunetarako sarrerak</p> <p>Erregistratutako markei gehitutako etiketak</p> <p>Kopia digitalen, inprimatutako eta mekanografiatutako dokumentuen inguruko ikerketak</p>

Taula honi loturik, faltsifikazio mota ohikoenak agertzen dira (Romero et. al., 2018, 166. or.):

- Faltsifikazio osoak: adibidez, txanponen edo kreditu txartelen faltsifikazioak. Hemen daude, baita, fantasia dokumentuak. Hau da, originalekin zerikusirik ez duten dokumentuak.
- Egiazko dokumentuen aldaketak: egiazko dokumentuen aldaketa partziala, titularra ez den beste pertsona batek erabili ahal izateko.
- Oinarrizko edukiaren aldaketa: data edo oinarrizko informazioa aldatzen da.
- Erregistratutako marken zeinu bereizgarrien faltsifikazioa.

Ikusi ditugun sailkapenen bidez, hots, adituek dokumentu moten inguruan egiten dutena eta gehien faltsifikatzen diren dokumentuen ingurukoa, jada badakigu nola sailkatzen diren eta zeintzuk diren faltsifikazioekiko zaurgarrienak. Beraz, ikus dezagun Zigor



Kodeak zer esaten duen dokumentuetan egiten diren aldaketei, faltsutzei edo manipulazioei buruz.

### 2.3. Dokumentuei lotutako delituak

Adituak zalantzazko dokumentu baten analisia egin ondoren, aditu txostenean dokumentua ez dela ofiziala edo egiazkoa xedatzen bada, delitu baten aurrean aurkitzen gara. Zigor Kodeak, dokumentuei loturik burutu daitezkeen delitu mota ezberdinez hitz egiten digu. Ikus ditzagun bada, Zigor Kodean aurreikusten diren portaerak eta hauei dagozkien zigorrak.

Dokumentuei loturiko delituak *1995eko Zigor Kodean* jasotzen dira. XVIII. Kapituluak faltsutzei buruz hitz egiten digu eta honen barruan delitu mota ezberdinak bereizten dira, dokumentu motaren eta izaeraren arabera.

Kapitulu bereko I. tituluan dirua eta efektu tinbredunak faltsifikatzearen inguruko delituak jasotzen dira eta hauei dagozkien zigorrak.

#### *386. artikulua*

*Zortzi urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta diruaren ageriko baliotik horren hamar halako arteko isuna:*

- 1.) Diru faltsua egiten duenari edo dirua aldatzen duenari.*
- 2.) Diru faltsu edo aldatua Espainian sartzen duenari edo hori esportatzen duenari.*
- 3.) Faltsifikatzailearekin, aldatzailearekin edo dirua Espainian sartzen dutenekin ados jarrita, diru faltsu edo aldatua garraiatzen, saltzen edo banatzen duenari.*

*Diru faltsua edukitzea, saltzeko edo banatzeko, gradu bat edo bitan txikiagoa den zigorrarekin zigortuko da, kontuan hartuz diru faltsuaren balioa eta aurreko zenbakietan aipatutako egileekin dagoen ados-jartze maila. Zigor berbera*

*ezarriko zaio, dirua faltsua dela jakinda, hori eskuratzen duenari, beraren helburua bada dirua zirkulazioan jartzea.*

*Norbaitek, diru faltsua onustez jaso eta faltsua dela jakin ondoren, diru hori saldu edo banatzen badu, horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik 24 lau arteko isuna ezarriko zaio, diruaren ageriko balioa 400 euro baino handiagoa bada.*

*Erruduna sozietate, antolakunde edo elkarte bateko kidea bada, eta sozietate, antolakunde edo elkarte horrek, modu iragankorrean bada ere, halako jarduerak egiten baditu, epaile edo auzitegiak ezar ditzake kode honen 129. artikuluan agindutako ondorioetatik bat edo batzuk.*

Artikulu honek, diru faltsu edo aldatuari buruz hitz egiten digu eta honekin egin daitezkeen gauza ezberdinez, diru faltsua egiteaz edo aldatzeaz, diru honekin trafikatzearaz eta inguruabar ezberdinez, hain zuzen ere. Hurrengo artikuluan, aurretik aipatutakoaren inguruko zenbait zehaztapen azaltzen dira eta dirutzat hartzen diren bestelakoak aipatzen dizkigu.

#### *387. artikulua*

*Aurreko artikulua ondoeetarako, dirutzat hartzen dira legezko txanpon eta diru-papera. Ondore berberei dagokienez, dirutzat hartzen dira kreditu-txartelak, zordunketa-txartelak eta ordainbide moduan erabil daitezkeen gainerako txartelak, bai eta bidaiatxekeak ere. Era berean, nazio-diruarekin parekatuko dira Europar Batasuneko beste herri batzuetakoak eta atzerrikoak ere bai.*

#### *388. artikulua*

*Berrerortze-ondoreetarako, atzerriko auzitegi batek ezarritako kondena eta Espainiako epaile edo auzitegiek emandako epaia baliobestekoak dira, baldin eta delituaren izaera eta kapitulu honetan dauden delituen izaera berdinak*

*badira. Ez dago baliobestekotasunik, zigor-aurrekaria ezereztu bada, edo ezereztu badaiteke Espainiako zuzenbidearen arabera.*

### *389. artikulua*

*Norbaitek, faltsifikatzailearekin ados jarririk, posta-zigilu nahiz efektu tinbredunak faltsifikatu edo saldu, edota, faltsuak direla jakinda, Espainian sartzen baditu, orduan, horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio. Norbaitek posta-zigilu edo efektu tinbredunak onustez erosten baditu, eta, faltsuak direla jakinda, 400 euro baino gehiagoko zenbatekoa banatzen badu, orduan, horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.*

Kasu honetan, posta-zigiluak eta efektu tinbredunak faltsifikatzeak eta salerosteak sortzen dituen ondorioak aipatzen dizkigu 389. artikulua.

II. Tituluak, lehenengo atalean, agirien faltsifikatzeen inguruko delituak jasotzen ditu: agiri publikoak, ofizialak, merkataritza-agiriak eta telekomunikazio-zerbitzuen bidez bidalitako idatzagiriak.

### *390. artikulua*

*1. Espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, hiru urtetik sei artekoa, agintari edo funtzionario publikoari, bai eta isuna, sei hilabetetik hogeita lau artekoa, eta desgaitasun berezia ere, bi urtetik sei arteko denboran, bere eginkizunak betetzean faltsutzea egiten badu:*

*1.) Agiri baten oinarritzko osagai edo betekizunen bat aldatuz.*

*2.) Agiri baten itxura oso-osoan edo zati batean sortuz, baldin eta itxura sortze horrek agiriaren kautotasunari buruzko okerra eragiten badu.*

3.) *Egintza batean pertsona batzuek esku hartu ez arren, horiek esku hartu dutela aditzera eman ez; edota egintza horretan esku hartu duten pertsonen euren egin ez dituzten adierazpenak edo agerpenak eratziz.*

4.) *Egitateak kontatzean egia esan gabe.*

2. *Aurreko idatz-zatian adierazitako zigorrak ezarriko zaizkio edozein erlijiotako arduradunari, aurreko zenbakietan azaltzen diren jokabideetatik bat egiten badu, jokabide horiek pertsonen egoeran edo ordena zibilean ondoreak sortitzaketen egintza edo agiriei buruzkoak izanda.*

Artikulu honek agiri publikoei buruz hitz egiten digu, eta funtzionarioek, hauen eginkizunak betetzen daudela, aipatzen diren portaeretakoa bat egiten badute jasoko duten zigorrari buruz, hain zuzen ere hiru urtetik sei urte arteko espetxe zigorra, sei hilabetetik hogeita lau hilabete arteko isuna eta bi urte eta sei urte arteko desgaitasuna. Gainera, erlijio arduradunak ere aipatzen ditu. Kasu honetan deluz jokatzeko dutela suposatzen da, baina hurrengo artikuluan zuzentzeaz aritzean izan ditzaketen ondorioak aipatzen ditu eta hurrengoan funtzionarioak ez diren pertsonetaz.

#### *391. artikulua*

*Agintari edo funtzionario publikoak, zuzentzeaz aritzea astunaren ondorioz, aurreko artikuluan ezarritako faltsutze bat egiten badu, edo bide ematen badiu beste bati faltsutze horiek egiteko, orduan, horri sei hilabetetik hamabi urteko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik urtebete arte etengo zaio.*

#### *392. artikulua*

*Norbanakoak egiten badu 390. artikuluko 1. idatz-zatiaren lehenengo hiru zenbakietan azaltzen diren faltsutzeetatik bat, agiri publikoan, agiri ofizialean nahiz merkataritza-agirian, orduan, hari sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta sei hilabetetik hamabi urteko isuna.*

Aurretik aipatutako hiru artikuluek (390, 391 eta 392art.) gauza beraz hitz egiten dute, baina egile ezberdinei egiten diete erreferentzia, zuhurtziagabekeria eta dolua kontutan izanda. Ikus ditzagun hauen artean dauden ezberdintasunak:

390. artikulua	Funtzionario publikoa edo erlijio arduraduna	Doluz	3-6 urte bitarteko espetxea zigorra  6-24 hilabete arteko isun zigorra  2-6 urte arteko desgaiakuntza
391. artikulua	Funtzionario publikoa	Zuhurtziagabekeriaz	6-12 hilabete arteko isun zigorra  6-12 hilabete arteko etena kargualdi publikoan
392. artikulua	Norbanakoa	Doluz	6 hilabete eta 3 urte arteko espetxe zigorra  6-12 hilabete arteko isun zigorra

Beraz, taula honetan ikusten den moduan, doluz egiten diren egitateak zigor askoz altuagoarekin zigortzen dira eta funtzionario publikoa izateak pisu handia du. Izan ere, 390. artikuluan ikusten den moduan, ezartzen den espetxe zigorra 3-6 urte bitartekoa da eta 392. artikuluan ezartzen denaren iraupen maximoa da hiru urtekoa.

### *393. artikulua*

*Norbaitek epaiketan aurkezten badu edo, beste bati kalte egiteko, erabili egiten badu aurreko artikuluetara bildutako agiri faltsuetatik bat, agiri hori faltsua dela jakinda, orduan, pertsona horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.*

### *394. artikulua*

*1. Agintari edo funtzionario publikoak, telekomunikazio-zerbitzuetako arduraduna izanik, idatzagiri telegrafiko bat edo zerbitzu horietako beste edozein agiri asmatu edo faltsifikatzen badu, orduan, horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta bi urtetik sei arteko desgaikuntza berezia.*

*2. Norbaitek, beste bati kalte egiteko, idatzagiri faltsua erabiltzen badu, faltsua dela jakinda, orduan, horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.*

Artikulu honek ere funtzionario publikoek hitz egiten digu, baina kasu honetan telekomunikazio-zerbitzuetako arduradunetz. Ikusten den moduan, nahiz eta ekintza doluz egin, zigorra baxuagoa da, 390. artikuluekin alderatuz.

Horrez gain, II. Tituluak, bigarren atalean, agiri pribatuak faltsifikatzearen inguruko delitu eta zigorrak jasotzen ditu. Aurreko artikuluek jasotzen dituzten egitate berberak jasotzen dira, baina kasu honetan, agiriak pribatuak izateagatik zigorra aldatzen da.

### *395. artikulua*

*Norbaitek, beste bati kalte egiteko, agiri pribatuan 390. artikuluko 1. paragrafoaren lehenengo hiru zenbakietan ezartzen diren faltsutzeetatik bat egiten badu, orduan, horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, sei hilabetetik bi urte artekoa.*

*396. artikulua*

*Norbaitek epaiketan aurkezten badu edo, beste bati kalte egiteko, erabili egiten badu aurreko artikulura bildutako agiri faltsuetatik bat, agiri hori faltsua dela jakinda, orduan, horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.*

Azkenik, II. Tituluak hirugarren atalean, ziurtagiriak faltsifikatzearen inguruko delituak eta zigorrak jasotzen ditu. Ikusiko dugun moduan, delitu hauen zigorrak ez dira agiriak faltsutzearen zigorrak bezain altuak.

*397. artikulua*

*Adituak ziurtagiri faltsua ematen badu, aditu horri isuna ezarriko zaio, hiru hilabetetik hamabi artekoa.*

*398. artikulua*

*Ziurtagiri faltsua agintari edo funtzionario publikoak ematen badu, horri enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik bi urte arte etengo zaio.*

*399. artikulua*

*1. Norbanakoak faltsifikatzen badu aurreko artikuluetan adierazitako ziurtagirietatik bat, isuna ezarriko zaio, hiru hilabetetik sei artekoa.*

*2. Zigor berbera ezarriko zaio, jakinaren ganean egonik, ziurtagiri faltsua erabiltzen duenari.*

Azkenik, III. Kapitulua, aurretik aipatutako delituei loturiko gailuei buruzko xedapen orokor bat ematen digu.

#### *400. artikulua*

*Lanabesak, materialak, tresnak, gaiak, makinak, ordenagailuen programak edo aparatuak fabrikatu edo edukitzea zigortu egingo da, egileei kasuan-kasuan dagokien zigorrarekin, baldin eta horiek guztiak zehazki erabiltzekoak badira aurreko kapituluetan azaldutako delituak egiteko.*

Beraz, Zigor Kodeak artikulua hauetan zehar faltsutzei buruz hitz egiten digu. Bereizketa bat egiten da ziurtagirien eta agirien artean, azken hauei loturiko delituek jasoz zigorrik altuenak. Logikoa den bezala, funtzionario publikoen eta norbanakoen arteko bereizketa bat egiten da, kontutan izanik doluz edo zuhurtziagabekeriaz egindako delitu bat den edo ez. Ikusi dugun moduan, faltsifikazioari loturiko deliturik baxuena isun zigorra izango da eta altuena 3-6 urte arteko espetxe zigorra.

## 2.4. Dokumentuen segurtasun neurriak

Aurreko atalean aipatu diren egitateak ekiditeko asmoarekin eta erabiltzaileen edo titularren segurtasun bermatzeko, dokumentu guztiek dituzte segurtasun neurriak. Ondoren, segurtasun neurriak zer diren azalduko dugu eta dokumentuek, hauen izaeraren arabera izan ditzaketenak.

Gaur egun merkatuan dauden aurrerapenei esker, segurtasun altuko dokumentuak sortzea ahalbidetzen duten elementuak daude. Elementu hauen helburua, dokumentuen egiazkotasuna eta hauetan jasotzen den informazioa segurua dela bermatzea da. Elementu hauek segurtasun neurriak dira, hau da, segurtasunerako elementu, dispositibo edo sistema multzoa; egiazko dokumentuek izan ditzaketen zaurgarritasunei aurre egiteko eta faltsifikazioa edo manipulazioa ekiditeko sortuak. Segurtasun neurri hauen kopurua eta kalitatea, dokumentuaren garrantzia dela eta, nahi den segurtasun mailaren arabera izan daiteke (Romero et. al., 2018. 167. or.).



Romerok eta beste adituek (2018, 167-168. or.) diote edozein dokumentuk, berdin dio garrantzitsua den edo ez, segurtasun neurriak izango dituela. Horrez gain, segurtasun neurrien sailkapen bat egiten dute hauen intentsitate mailaren arabera:

- Baxua: erabiltzaileei zuzendutako segurtasun neurriak dira. Hau da, pertsona guztiek ezagutzea dute helburua, hala nola, ur marka, inprimatze kalkografikoaren erliebea edo OVI (tinta optikoki aldakorra) tintak, hologramak, erliebedun egiturak...
- Ertaina: espezializatutako laborategietan, bitarteko tekniko eta elektronikoen bidez (lupak, bideo-espektroa...) eta argiztapen eta bitarteko optiko ezberdinen bidez ikusgai diren segurtasun neurriak dira. Hala nola, tinta erreaktiboak, mikrotextuak, segurtasun hondoak, kodifikatutako argazkiak...
- Altua: segurtasun maila altuko segurtasun neurriak dira, soilik sortu dituen lantegi edo laborategiak ezagutzen dituenak eta ez direnak publiko egiten.

Segurtasun neurriak zer diren eta zein mailatan sailkatzen diren ikusi ondoren, dokumentuek izan ditzaketen segurtasun neurriak azaltzera ekingo diogu. Horretarako, Romero eta beste adituek (2018, 168-185. or.) egindako sailkapenean oinarrituko gara. Segurtasun neurriak dokumentura erantsi daitezkeen moduaren arabera, hiru mota ditugu:

SEGURTASUN	NEURRIAK	Edukitzailearen bidez
dokumentura eransten dira:		Inprimaketa bidez
		Elementu gehigarrien bidez

### Edukitzailearen bidez

Ikusi dugunez, edukitzailea, dokumentuaren euskarri materiala da eta segurtasuna bermatzeko bitartekorik hoberena. Edukitzaile motaren arabera, segurtasun neurri ezberdinak erantsi ahal izango zaizkio dokumentuari. Bi edukitzaile ohikoenak papera eta plastikoa dira eta bakoitzak segurtasun mota ezberdinak izango ditu.

Paperezko edukitzailean erantsi daitezkeen segurtasun neurriak:

- Zuritzaile optikoaren gabezia: zuritzaile optikoa, paperaren fabrikazioan gehitzen den sustantzia da papera zuriagoa egiteko. Segurtasun papera, kotoiz

egiten denez, berez du kolore zuria, hori dela eta, segurtasun paper bat argi ultramore bidez begiratzen badugu, ikusten den kolorea ez da zuria (beste paperetan bezala) baizik eta urdina edo gorrixka. Gainera, paper honi, batzuetan beste segurtasun neurri batzuk gehitzen zaizkio.

- Ur marka: faltsifikazioen aurkako neurri eraginkorra kontsideratzen da. Ur marka, paperaren fabrikazioan gehitzen den segurtasun neurri bat da, argi transmititu bidez begiratzekoan marrazki itxura duena.
- Segurtasun haria: paperaren euskarrian jartzen den plastikozko edo beste material batez eginiko tira bat da eta mota ezberdinetakoa izan daiteke (argi ultramore azpian erreakzionatzen duena, polimerozkoa...).
- Harizpi fluoreszenteak: paperaren masarekin nahasten dira ausaz eta argi ultramore bidez ikusi daitezke.
- Koloreztatutako harizpiak: paperari itsasten zaizkio hau egin ondoren eta orokorrean ez dira fluoreszenteak izaten.
- Plantxeteak: paperaren masari gehitzen zaizkion disko borobilak txiki batzuk dira eta mota ezberdinetakoak izan daitezke.
- Erreaktiboak: kasu batzuetan paperaren masari gehitzen zaizkio, erreakzio kimiko bidez paperean kolore aldaketak sortzeko eta egiazkoa den edo ez ikusteko.
- Tactocel: segurtasun hari antzeko paperezko banda bat da, dokumentuaren euskarriaren gainean inprimatzen dena.

Plastikozko edukitzailean egon daitezkeen segurtasun neurriak:

- PVCez eginiko edukitzaileen gainean banda magnetikoa (datuak gordetzen dituen banda) eta enbosatua (erliebedun estanpatua) erantsi daitezke. Orokorrean, kreditu txarteletan dauden segurtasun neurriak dira.

### Inprimaketa bidez

Segurtasunezko dokumentuetan, inprenta komertzialetan erabiltzen diren inprimaketa sistema berdinak erabiltzen dira, tradizionalekin konbinatuz. Honen helburua,

segurtasun inprentetan erabiltzen diren teknika sofistikatuak esker, faltsifikazioak ekiditea da.

- Tinta motak: OVI, fluoreszenteak, fosforeszenteak, irisatuak, kalkografiak, luminiszenteak... daude. Bakoitzak efektu ezberdina sortzen du dokumentuan. Adibidez, tinta fosforeszenteak erradiazio azpian egon ondoren argia izaten jarraitzen du edo OVI tintak kolore ezberdinak ditu begiratzen den angeluaren arabera.
- Inprimaketa teknika motak: kalkografia, offset, tipografia eta serigrafia. Inprimaketa teknika bakoitzak efektu ezberdinak sortzen ditu dokumentuan. Adibidez, offset bidezko inprimaketaren kasuan, marrazki ongi definitzen dira eta ertzak eta karaktereak ere eta kalkografiaren kasuan, erliebedun emaitzak lortzen dira.
- Segurtasun hondoak.
- Guillocheak: marrazki xeheak dira, erreproduzitzen zailak.
- Medel efektua: hiru dimentsio itxurako argazkien efektuak sortzen ditu.
- Mikroinpresioak: tamaina oso txikiko testuen inprimaketak dira, begi bistara marra bat diruditenak. Egiazkoak irakurterrazak izan behar dute dagozkien gailuen bidez begiratzerakoan.
- Irudi estalia: optikoki aldatutako den elementu bat da. Dokumentua okertzean edo arraseko argiarekin begiratuta antzematen da.
- Iris efektua: offset inprimaketa teknikaren bidez, ertzak difuminatzen dira. Hau lortzea ezinezkoa da faltsifikatzaileek erabiltzen dituzten inprimaketa tekniken bidez.
- Kointzidentzia motiboa: dokumentu baten orriaren alderdi bietan elkarrekin bat datozen motibo berak inprimatzen dira segurtasun neurri gisa.
- Kolore bikoteak: argi zuri bidez begiratzerakoan kolore berdina dute baina argiztapen zehatzen bidez begiratzerakoan ezberdina.
- Kodifikatutako irudiak: begi bistara ikusezinak diren testuak edo legendak dira, orokorrean segurtasun hondoetan inprimatzen direnak eta kodifikatuta daudenak.
- Banda irisatuak: tinta irisatu bidez inprimatutako tirak dira eta angelu ezberdinetatik begiratuta kolore ezberdina dute.

- OVI tintaren efektuak: angelu ezberdinetatik edo argi ezberdinekin begiratuta modu dinamikoan kolorea aldatzen duen tinta da.
- Ur marka digitala: informazio zifratua duten inprimaketa ezkutua da.
- Irudi fantasma edo bigarren irudia: dokumentuaren titularraren argazkiaren bigarren inprimaketa da. Orokorrean titularraren argazkia faltsutzea ekiditeko jartzen da.
- Propietate infragorriak: tresneria bereziarekin soilik ikus daitezkeen ezaugarri grafikoak dira. Adibidez argi infragorri bidez.

### Elementu gehigarrien bidez

DOVak (dispositibo optikoki aldakorak) sofistikazio maila altua duten elementuak dira. Orokorrean teknika tradizionalekin konbinatzen dira eta segurtasuna indartzeko helburua dute, izan ere, erreproduzitzen zailak dira hauen salneurria dela eta. Gehien erabiltzen diren DOVak honakoak dira:

- Hologramak, kinegramak eta antzekoak: hiru dimentsiotako irudiak dira.
- Laminatua (overlay): datu pertsonalen orrialdea babesteko erabiltzen den plastikozko lamina da. Irudi, marrazki edo segurtasun neurri ezberdinak izan ditzake inprimatuta.
- Irudi laser aldakorra (CLI) eta irudi anizkoitza: laser bidez irarritako ezaugarri grafikoa da, begiratzen den angeluaren arabera aldakorra.
- Laser bidezko grabaketa: datuak irartzeko teknika bat da eta aldaketaren bat jasanez gero, aztarna uzten du.
- Mikro perforazioak: laser bidez, neurri ezberdinetako perforazioak egin daitezke.
- Leiho gardena: dokumentuen euskarrietan jarri daitezke eta funtzio ezberdinak izan ditzakete. Adibidez, legendak jar daitezke gainean edo dokumentuaren titularraren datu pertsonalak.
- Txipa: txiparen funtzioak informazioa gordetzea eta segurtasun neurri gisa jokatzea dira.

Ikusi dugunez, dokumentuek izan ditzaketen segurtasun neurriak anitzak dira eta mota ezberdinetakoak bereizten dira: edukizailean daudenak, inprimaketa tekniken bidez erantsi direnak eta beste elementu gehigarrien bidez erantsi direnak. Segurtasun neurri guzti hauen helburua, jada esan dugun moduan eta hitzak berak esaten duen moduan dokumentuen segurtasuna bermatzea da, faltsifikazioak eta manipulazioak ekiditeko. Baina dokumentuen inguruko delituzko egitate bat gertatuz gero, adituek, ondoren ikusiko ditugun eragiketak egin ahal izango dituzte dokumentuari eta inguruabarrei buruzko informazioa eskuratzeko.

## 2.5. Dokumentuetan ikertu daitekeena

Dokumentuek, duten informazioari, formatuari, segurtasun neurriei... esker, gauza ezberdinak ikertzeko aukera ematen digute. Martinek (2010, 195-198. or.) dokumentuetan ikertu edo egin daitezkeen eragiketak adierazten dizkigu *Documentoscopia: método para el peritaje científico de documentos* liburuan. Autore honen ustez, lau hauek dira:

1. Dokumentu bat egiazkoa edo faltsua (guztiz edo partzialki) den zehaztu.
  - Zein atal diren egiazkoak edo zeintzuk aldatu diren.
  - Zein motatako aldaketa jasan duten.
  - Aldaketa egiteko erabilitako prozedura.
  
2. Egilea identifikatu.
  - Idazki edo sinadura baten egilearen inguruko kontuak zehaztu.
  - Parte hartu duten pertsona kopurua zehaztu.
  - Testu bat idatzi duen mekanografoa identifikatu.
  
3. Nola egin den jakin.
  - Dokumentua osatu duten gailuak aurkitu: boligrafoa, luma...
  - Atala originala den edo ez zehaztu (kopia normala, laser bidez egindakoa...)
  - Dokumentu anonimoen kasuan, zein bitarteko edo metodo erabili diren.

- Dokumentu bat dagokion datan idatzia izan edo ez zehaztu.
  - Etab.
4. Dokumentuaren egoera fisikoa ikertu.
- Erretako edo zikindutako atalak.
  - Irakurgaitzak diren atalak.
  - Tinta eta papera.
  - Etab.

Ikertu daitezkeen elementuei esker, informazio asko eskuratu daiteke dokumentuen inguruan eta hau baliagarria izan daiteke adibidez, delitu bat gertatu bada autorea identifikatzeko, dokumentuaren egiazkotasuna zehazteko...

## 2.6. Konklusioa

Ikusi dugunez, dokumentuaren kontzeptua zabala da eta mota ezberdinetako dokumentuak barnebiltzen ditu, paperezkoak zein elektronikoak. Gainera, 1995eko Zigor Kodeari esker, legeak esaten duen definizio zehatza dugu eta horrez gain, adituek eskaintzen duten definizioa, erreferentzia izango dena sailkapen perizialerako.

Sailkapen perizialak zehazten dituen lau dokumentu motak ikusi ditugu eta kasu batzuetan izan behar dituzten ezaugarriak. Adibidez, dokumentu erakusgarrien kasuan bete behar dituzten baldintzak. Gainera, beste sailkapen batean gehien faltsifikatzen diren dokumentuak ere ikusi ditugu eta faltsifikazio motak. Esan daiteke, kasu honetan, gehienak diruarekin erlazionatzen diren dokumentuak direla eta baita pertsonen identifikazioari eta baimenei loturikoak, hala nola, bankuko billeteak, nortasun agiriak eta gidabaimenak.

Hirugarren atalean Zigor Kodeak faltsifikazioaren inguruan biltzen dituen artikuluen errepasso bat egin dugu eta taula baten bidez artikulua batzuen arteko ezberdintasunak nabarmendu ditugu. Bereziki, esan daiteke, funtzionarioek beraien karguan daudela egikaritzen dituzten delituak direla zigor gogorrenekin zigortzen direnak eta

norbanakoek egiten dituztenak arinenak. Delitu gehienentzat espetxe zigorra aurreikusten da eta orokorrean isuna ere. Gainera funtzionarioentzat desgaitzuntza edo beraien kargutik etetea ere aurreikusten da. Beraz, esan daiteke, dokumentuen faltsifikazioari loturiko zigorrak nahiko gogorrak direla.

Laugarren atalean, dokumentuek izan ditzaketen segurtasun neurriak azaldu ditugu. Hiru taldetan bereizten dira: edukitzailean daudenak, inprimaketa bidez eransten direnak eta elementu gehigarriak. Guzti hauei esker, dokumentuen segurtasun areagotzen da eta faltsifikazioekiko duten zaurgarritasuna murrizten da.

Azkenik, dokumentuetan ikertu daitezken gaiak azaldu ditugu eta hauek erabilgarriak izango dira faltsifikazio baten kasuan (edo beste hainbat kasutan) informazio ezberdina eskuratzeko.

## 3. ATALA: DOKUMENTUEN PERITATZEA EDO DOKUMENTOSKOPIA

---

### 3.1. Sarrera

Kapitulu honetan, dokumentuen peritatzea edo Dokumentoskopia zer den azalduko dugu eta baita Dokumentoskopiak lan hau aurrera eraman ahal izateko erabiltzen dituen teknika instrumentalak. Esan beharra dago, azken atal honek, aurreko bi atalekin lotura estua duela, lehenik, kriminalistikaren adarretako bat delako, bigarrenik, polizia zientifikoaren arduretako bat delako eta horrenbestez, krimen-ikerketaren ikerketa-objektua bilakatzen delako eta hirugarrenik, dokumentuei loturiko delituei dagokionez, dokumentuak ikertzeaz arduratzen delako. Beraz, lehen atalean, Dokumentoskopiaren kontzeptua azalduko dugu eta baita zientzia honek dituen helburuak, izan ere, helburuak kontutan izanik, funtzioak agerian geratzen dira. Bigarren atalean, Dokumentoskopiak dokumentuak ikertzeko erabiltzen dituzten teknika instrumentalak azalduko ditugu, horretarako bi liburu izango ditugu kontutan *Tratado de Grafística y Documentoscopia* eta *Documentoscopia. Método para el peritaje científico de documentos* eta hauen sailkapenak oinarri gisa harturik, beste sailkapen bat egingo dugu. Sailkapen honetan zortzi teknika, baliabide edo bitarteko azalduko ditugu, zer diren eta zertarako balio duten. Atal honen helburua, dokumentuen azterketarako erabiltzen diren teknika ezberdinak ezagutzea da. Hirugarren atalean, arrazoi ezberdinak direla eta, Dokumentoskopiak dituen mugak aipatuko ditugu, kasu honetan, asko ez badira ere, lana oztopatu dezakete zenbait kasutan. Laugarren atalean, grafistikari aipamena egingo diogu, izan ere, Dokumentoskopiaren adar garrantzitsuetako bat da eta beraz, bere lekua du atal honetan. Bosgarren atalean, auzitegiko hizkuntzalaritza aipatuko dugu, Dokumentoskopiaren alorrean ere garrantzizkoa delako. Seigarren atalean, aditu-txostenari buruz hitz egingo dugu, zer den, aditu-txostenari eta adituen jardunari buruz legeak zer esaten duen eta txostenak jarraitu beharreko gidalerroak ikusteko, Dokumentoskopian adituak egiten duen lana baita. Gainera, lan honen bukaeran pasaporte baten aditu txostena-atxikiko dugu, beraz, hau lagungarria izan daiteke. Bukatzeko, zortzigarren atalean, aurreko atal guztietan ikusitakoaren sintesi bat egingo da, konklusio modura.



### 3.2. Kontzeptua eta helburuak

Aurreko atalean dokumentu bat zer den azaldu dugu eta honen nondik norako guztiak ere, bereziki dokumentuei loturiko delituetan ardaztuz. Orain, dokumentuak ikertzeaz arduratzen den zientzia ikusiko dugu, izan ere, dokumentuetan egin daitezkeen aldaketak, faltsutzeak, manipulazioak... ikertuko ditu. Beraz, ikus dezagun Dokumentoskopia zer den eta zein helburu dituen.

Martinek (2010, 47. or.) esaten digun moduan, dokumentuen peritatzea edo Dokumentoskopia, ekintza analitiko eta ikertzaileen multzoa da eta honako helburuak ditu:

- Dokumentu bat egiazkoa, guztiz faltsua edo partzialki faltsua den zehaztu.
- Dokumentuaren egiazko atalen zein faltsifikatutako atalen egilea edo egileak nortzuk diren identifikatu.
- Dokumentuak (zalantzazkoak eta zalantzarik gabekoak) kaltetu gabe edo manipulazioak jasan dituzten zehaztu.
- Nahita edo nahigabe hondatu edo suntsitu diren dokumentuak berreskuratu.
- Osagai baten edo batzuen bidez (zigiluak, mekanografia, eskuidazkiak...), dokumentuaren atal baten edo guztiaren datazioa egin.
- Atal bat, osorik edo partzialki, nola egin den zehaztu.
- Prestatzeko erabili diren materialak, gailuak edo teknikak zehaztu.
- Dokumentuaren jatorriaren, erabileraren edo aldaketaren (hondamena, gratuak, perforazioak, apurketak, tolesdurak, markak...) inguruko informazioa eskaini dezakeen dokumentuaren beste edozein alderdiren ikerketa.

Ondorioz, diziplina honen ikerketa objektua dokumentua izango da, bere osotasunean. Baita, helburu frogagarriarekin, datuak, egitateak eta narrazioak jasotzen dituzten edukitzaile mota guztiak eta hau osatzen duten elementu guztiak (Viñals eta Puente, 2003, 111. or.).

Beraz, esan daiteke, Dokumentoskopia diziplina zientifikoa dela, honetan parte hartzen duten adar zientifiko ezberdinak (argazkilaritza, kimika, informatika...) eta objektibotasunez eta ziurtasunez ikertzea ahalbidetzen duten bitarteko teknologikoak

direla eta. Gainera, Kriminalistikaren alorrean kokatzen den eta bere ikerketa objektu propioa duen diziplina praktikoa bat kontsideratzen da (Martin, 2010, 49. or.).

Honaino heldurik, ezinbestekoa da azaltzea zergatik erabiltzen den “Dokumentoskopia” hitza eta ez beste termino batzuk. Historian zehar, beste hitz batzuk erabili izan dira Dokumentoskopiari buruz hitz egiteko: paper susmagarrien errebisioa, perizia grafikoa, kaligrafiaren perizia, grafokritika, grafistika, grafoteknia etab. Termino guzti hauek, Dokumentoskopiaren sinonimo gisa erabili izan badira ere, guztiek letrari egiten diote erreferentzia. Adibidez, kaligrafiaren periziak, letra ona izateari edo abileziari egiten dio erreferentzia, perizia kaligrafikoak soilik letrari, grafistikak letrari loturiko kontuei... Gainera, azken hau, orokorrean Dokumentoskopiaren adar bat kontsideratzen da, idazkien letra eta egilea ikertzen dituen.

Beraz, aurretik esandakoa kontutan izanik, esan daiteke termino hauek zaharkituta egoteaz gain, ezin direla Dokumentoskopiaren sinonimotzat jo, izan ere, ez dute kontutan hartzen dokumentuaren ikerketa, baizik eta dokumentuetan egon daitekeen letra dute ikerketa objektu. Soilik, dokumentologia erabili ahalko da sinonimotzat, nahiz eta Dokumentoskopia hitza egokiagoa izan (Martin, 2010, 51-53. or.).

Beraz, esan daiteke, Dokumentoskopia dokumentuei loturiko ikerketaz arduratzen den zientzia dela. Helburuetan ikusi dugun modura, Dokumentoskopiak hainbat ikerketa ezberdin egin ditzake dokumentuetan, baina horretarako metodo, baliabide, teknika... ezberdinak erabiliko ditu. Beraz, ikus ditzagun Dokumentoskopiak ikerketarako erabiltzen dituen teknika instrumentalak.

### 3.3. Teknika instrumentalak

Batzuetan, dokumentu baten faltsutasuna begi bistara antzeman genezake, segurtasun neurriak falta dituelako, datuak gaizki daudelako idatzita, argazkia ez dagoelako ongi... baina beste batzuetan ez da hain lan erraza eta beraz, Dokumentoskopiak ikerketa-objektua aztertzeke teknika ezberdinak erabili behar izaten ditu, dokumentuaren egiazkotasuna frogatzeko edo ukatzeko. Teknika horiei teknika instrumentalak deritze eta mota ezberdinetakoak izan daitezke.

Romerok eta beste adituek (2018, 3-4. or.) esaten digute dokumentuen egiazkotasuna frogatzeko orduan lau ikuspegitatik egin daitekeela:

1. Baimentzailearen hasierako borondatea gutxiesten edo indargabetzen dituzten aldaketen identifikazio objektiboa.
2. Dokumentua sinatu dutenen sinaduraren originaltasunaren / egiazkotasunaren analisia.
3. Dokumentuan egin diren aldaketa kronologikoen ikerketa.
4. Paperen eta tinten bereizketa ikerketa.

Beraz, hau oinarri gisa izanik, dokumentuen egiazkotasuna zehazteko lau teknika instrumental nagusi bereizten dituzte: espektroskopia atomiko eta molekularra, mikroskopia, kromatografia eta elektroforesi kapilarra.

Martinek (2010), teknika instrumental hauen zerrendara beste teknika edo baliabide batzuk gehitzen ditu: lupa eta mikroskopia, mikroargazkia eta makroargazkia, neurketa instrumentuak, argiztapen mota ezberdinak eta gailu informatikoak. Beraz, ikus ditzagun guzti hauek zer diren eta zertarako balio duten.

### 3.3.1. Espektroskopia atomiko eta molekularra

Espektroskopia, materiaren eta erradiazio elektromagnetikoaren arteko interakzioen ikerketa bezala definitu genezake. Dokumentoskopiaren barruan lau interakzio nagusi bereizten dira (Romero et. al, 2018, 5-8. or.):

- Islatzea: argiak objektu baten kontra talka egiten duenean sortzen den norabide aldaketari argiaren islatzea deritzo. Objektuaren gainazala laua denean, argia norabide batera islatzen da (islatze espekulatua) eta gainazala erregularra denean, norabide guztietara (islatze difusoa).
- Xurgatzea: erradiazioa gainazal batetik igarotzerakoan, zenbait frekuentzia ezabatuak izan daitezke xurgapen bidez.

- Emisioa: kitzikatutako partikulak energia maila txikiago batera erlaxatzen direnean eta kanporatzen duten energia hori fotoi bilakatzen denean erradiazio elektromagnetikoa ematen da. Hemen fluoreszentzia eta fosforeszentzia izango ditugu. Bi hauen erradiazioaren emisioa energia bere hasierako egoerara itzultzerakoan ematen da. Fluoreszentziaren kasuan, iraupena 0.01 milisegundotakoa da, baina fosforeszentzia denbora gehiagoz mantentzen da, minutuak eta orduak ere.
- Difrakzioa: erradiazio sorta paralelo bat objektu zorrotz batetik igarotzean kurbatzean datza.

Aurreko atalean esan dugun moduan, dokumentuek segurtasun neurri ezberdinak izaten dituzte, horien artean: harizpi fluoreszenteak, erreaktiboak, tinta ezberdinak, propietate infragorriak... Aipatutako segurtasun neurri hauek espektroskopia bidez ikusten dira, kasu honetan islatze bidez. Beraz, esan daiteke, espektroskopia segurtasun neurri konkretu batzuk ikusteko teknika erabilgarria dela.

### 3.3.2. Mikroskopia

Mikroskopiak, gizakiaren begiak ikusi ez ditzakeen objektuak ikusgai bilakatzea edo anplifikatzea du helburu. Dokumentoskopiaren barruan, gehien erabiltzen diren teknika mikroskopikoak hauek dira (Romero et. al, 2018, 17-22. or.):

- Mikroskopia optikoa: material batzuen bidez argi izpien norabidea aldatu daiteke, horri esker argia konbergitu edo dibergitu dezaketen lenteak sortzen dira. Lente hauen konbinazioari esker, objektuen irudi handiagoak sortu daitezke.
- Argi ultramorezko mikroskopia: mikroskopia mota honek argi ultramore iturria erabiltzen du, honek irudiaren erresoluzio handiagoa eta kontraste handiagoa sortzen du.

- Argi infragorrizko mikroskopia: espektroskopia infragorriaren eta mikroskopiaren konbinazioak Dokumentoskopiarentzat baliagarria den informazioa eskaintzen du. Teknika hau, zigiluak, billeteak, hatz-markak... ikertzeko baliagarria da.
- Ekorketa-elektronikozko mikroskopia: kasu honetan, argiaren ordez, elektroiak erabiltzen dira irudia sortzeko. Honen bidez, erresoluzio altuko irudiak sortu daitezke eta analisi kualitatiboak eta kuantitatiboak egiteko balio du eta honek dokumentuen faltsifikazioen, aldaketen... inguruko konklusioak ateratzeko balio du.

Dokumentuetan, segurtasun neurri gisa, xehetasun txikiak kokatzen dira, adibidez: mikrotextuak eta mikroinpresioak. Xehetasun hauek ikusi ahal izateko, mikroskopia erabiltzen da.

### 3.3.3. Mikroargazkia eta makroargazkia

Mikroargazkia, mikroskopia elektronikoko bidez egindako argazkia da, baina argazki honen kalitatea egokia izateko, ezinbestekoa da argiztapen iturri bereziak erabiltzea. Mikroargazkiaren bidez, dokumentuaren egoera ikus daiteke. (Martín, 2010, 225. or.).

Makroargazkia, mikroskopia bidez eskuratzen den argazkiaren handipen maila baino maila txikiago bat da. (Martín, 2010, 225. or.).

### 3.3.4. Kromatografia

Kromatografia, nahaste konplexu baten osagai ezberdinak bereizteko balio duen metodoa da. Bereizketa hau, orokorrean, lagina, gaseosoa edo likidoa den fase mugikor baten bidez egiten da eta ondoren fase hau fase egonkor batetara igarotzen da. Hasieran disolbatu diren lagin honen osagaiak abiadura ezberdinetan mugitzen dira fase

egonkorren bidez eta bukaeran bereizi egiten dira. Azkenik, detektagailu baten bidez, osagaiak neurtzen dira.

Teknika hau baliagarria da, Dokumentoskopiaren eta grafistikaren alorretan, dokumentuaren tintak dituen osagaiak ikertzeko. (Romero et. al., 2018, 23 eta 31. or.).

### 3.3.5. Elektroforesi kapilarra

Elektroforesiaren bidez, ioiak edo partikulak, eremu elektriko baten duten abiaduraren arabera bereizten dira eta emaitzak elektroferograma baten ikusten dira (kromatograma baten antzekoa). Teknika instrumental honek, dokumentuetako tintan eta paperean dauden pigmentu eta bestelakoak ikertzeko balio du. (Romero et. al., 2018, 31 eta 33. or.).

### 3.3.6. Neurketa instrumentuak

Neurketa instrumentuak dokumentuen elementu mekanikoak edo bestelako ezaugarri fisiko batzuk ikertzeko erabiltzen diren gailuak dira. Martinek (2010, 226-228. or.), hainbat neurketa instrumentu ezberdin aipatzen dizkigu:

- Erregelak: dokumentuen neurriak neurtzeko erabiltzen dira, hala nola, letra tamaina, hitzen arteko distantzia, lerroarteko distantzia... Neurketa zehatzak egin ahal izateko, erregelek milimetroak izatea komeni da.
- Erretikuladun lupa: lupa hauek osagarri bat daramate, objektua erreferentziatzko eskala oso handitu baten ikusteko aukera ematen duena.
- Garraiatzaileak: angeluak neurtzeko baliagarriak dira eta horretarako, eskala frakziotan grabatuta izan behar dute eta zirkunferentzia guztia neurtzeko balio behar dute.

- Tipometroak: graduazio ezberdina duten erregelak dira. Hauen bidez, neurri tipografikoak beste neurri batzuetara bilakatu daitezke, dezimaletara adibidez.
- Milimetratutako txantiloak: txantilo hauek orri gardenetan inprimatutako milimetratutako lauki-sare bat dute. Dokumentu baten gainean jartzerakoan honen elementuen arteko distantziak neurtu daitezke.
- Mikrometroak: mikroskopioetan jartzen diren erretikula bereziak dira, ikertu nahi dena modu oso zehatzean ikusi ahal izateko.
- Aplikazio informatikoak: diseinu teknikora zuzendutako aplikazio informatikoez neurketak errazten ditu eta gainera zehaztasun oso handia dute.

### 3.3.7. Argiztapena

Argiztapena, teknika instrumental garrantzitsua da Dokumentoskopiarentzat, dokumentuen ikerketan aurkikuntza ezberdinak egitea erraztu edo oztopatu baitu. Beraz, egoera bakoitzari edo ikertu nahi denaren arabera, dagokion argiztapena erabiltzea ezinbestekoa izango da. Adibide gisa esan genezake, argiztapenik gabe ezinezkoa dela ikerketa bat burutzea edo argi ultramore edo infragorri gabe, ezinezkoa dela dokumentuetan dauden segurtasun neurri batzuk ikustea (Martín, 2010, 229. or.).

Honen garrantzia dela eta, argiztapen mota ezberdinak izango ditugu (Martín, 2010, 235-242. or.):

- Argi naturala: dokumentuan aztertu nahi dena ez denean oso konplexua erabiltzen da. Beraz, hemen ez da erabiltzen inolako irradiaziorik dokumentuak dituen propietateak ikusteko. Gomendagarria da, argiztapena zeharkakoa edo iragazia izatea.
- Argi gorria: argi hau, filamentuak dituzten lanparen irradiazio bidez lortzen da. Ez da gomendagarria koloredun argazkiak ikusteko, koloreak aldatzen bai ditu

eta denbora luzez erabiliz gero, irradiatzen duen berotasunak dokumentuan kalteak sor ditzake.

- Halogenoa: printzipioz, argi gorien antzekoa da, baina honek zurtasun eta intentsitate gehiago eskaintzen ditu.
- Xenona deskargatzen duen argia: tintaren eta koloreztatutako paperen analisirako egokiak dira, tarteko banaketa espektrala eskaintzen baitu (zeru lainotsu eta eguzkitsuaren arteko zerbait).
- Argi ultramorea: erradiazio monokromatikoa eskaintzen du eta lan kriminalistikoetarako oso erabilia da. Argi mota honek, objektuek fluoreszentiarekin erreakzionatzea eragiten du eta baliagarria da, txekeek, billeteek... dituzten segurtasun neurriak ikusteko.
- Erradiazio infragorria: begi bistara ikusezina den argi mota bat da eta dokumentuen analisiari dagokionez, erretako edo manipulazio kimiko bidez ezabatu diren elementuak berreskuratzeko eta tintak ikertzeko balio du.
- LED argiztapena: argiztapen intentsua eskaintzen du, inolako berorik sortu gabe eta mikroskopiari gehituz, behaketa eta argazkiak hobetzen ditu.
- Fluoreszentea: ohiko argiztapen fluoreszentea behaketarako eta argazkietarako desegokiena da, baina badago beste argiztapen fluoreszente bat bereziagoa dena eta lan mota guztietarako baliagarria dena, adibidez argazkilaritzarako.
- Argiztapen monokromatikoa: aukeratzen den kolore konkretu batetako erradiazio mota erabiltzean datza eta azterketa konkretuetarako balio du. Adibidez, gaur egun, bankuek argi ultramorea erabiltzen dute billete faltsuak detektatzeko.



### 3.3.8. Gailu informatikoak

Gailu informatikoek, Dokumentoskopian ez ezik, beste edozertarako abantaila eta aukerak eskaintzen dituzte: azkartasuna, malgutasuna eta perfekzioa. Kasu honetan, Martínek (2010, 245-251. or.), dokumentuen analisirako baliagarriak izan daitezkeen hainbat gailu aipatzen dizkigu:

- Ordenagailua (nukleoa): dokumentuei dagokionez, ordenagailuaren funtzioa bereziki argazkiak atzematea da, informazio bisualarekin modu azkar eta zehatzean lan egin ahal izateko.
- Monitorea (pantaila): argazkien, bideoen... emaitzak ikusteko monitoreak kalitate handia izan behar du.
- Eskanerra: bilaketarako baliagarria da eta horrez gain, argazkiak digitalizatzeko.
- Negatiboen eskanerra: koloredun eskanerraren sorrerarekin bigarren plano baten geratu da, baina negatiboak errebelatzeko balio du.
- Inpresora: inpresora motaren arabera, kalitate handiko argazkiak inprimatu daitezke.
- Argazki kamera digitala: sentsoreen aurrerapenei esker kalitate eta megapixel altuko argazkiak atera daitezke.
- Bideokamera: mikroskopioari gehiturik, tratamendurako eta artxiborako abantailak eskaintzen ditu.
- Bideo-inpresora: bestelako inpresoren sorrerarekin garrantzia galdu du.
- Programa informatikoak: edizio elektronikorako baliagarriak dira. Dokumentoskopian, ikertzen den argazki originalen erreproduzio oso zehatzak sortzeko balio dute.

Ikusi dugun moduan, dokumentuen analisirako erabiltzen diren teknika instrumentalak anitzak dira. Sailkapen honetan zortzi teknika ikusi ditugu eta hauen barnean dauden bestelakoak ere. Horietako batzuk, gaur egungo aurrerapenak direla eta, jada ez dira (hainbeste) erabiltzen, baina besteek Dokumentoskopian paper garrantzitsua jokatzen dute. Izan ere, dokumentuek dituzten segurtasun neurriak ikertzea, aztertzea, ikustea... errazten dute eta beraz, hauen egiazkotasuna zehazteko edo faltsifikazioak identifikatzeko bitarteko egokiak dira.

### 3.4. Dokumentoskopiaren mugak

Dokumentoskopiak, aurretik aipatu ditugun teknika-instrumentalei esker, dokumentuetan aurkikuntza ezberdinak egiteko aukerak ditu, adibidez: dagozkien segurtasun neurriak dituzten edo ez ikusi, egiazkoak diren edo faltsifikazioak diren... Dena den, Dokumentoskopiak baditu mugak ere, beraz ikus ditzagun eskaintzen dizkigun aukerak eta mugak.

- Dokumentuen datazioa: Dokumentoskopiak duen lehen muga dokumentuen datazioa da. Ikerketa ugariaren bidez datazio zehatza egiteko teknikak aurkitu nahi izan dira, baina oraindik ez da lortu dokumentuak datatzeko metodo ziur eta zehatzik. Datazio erlatiboa egiteko kromatografia erabiltzen da, baina horretarako dokumentuek baldintza zehatz batzuk bete behar dituzte eta hala ere, ezinezkoa da data zehatza lortzea.
- Paperen inguruko arazoak: datazioarekin gertatzen den bezala, oraindik ez da lortu dokumentuen paperen antzinatasunaren data zehatza lortzea.
- Marren gurutzaketa: aurreko biek in lotura duelarik, beste zalantza bat marren gurutzaketari buruzkoa da. Gurutzatzen diren bi edukien (esku-idazkia eta mekanografia, esku-idazkia eta zigilu-markaketa etab.) gauzatzea zein sekuentzian egin den jakitea ere ezinezkoa da oraindik. Gai hau, abokatuentzat eta epaileentzat garrantzizkoa da, duen garrantzi juridikoa dela eta.

- Fotokopiak: zalantza asko sortzen dituzten gai bat dira fotokopiak, dokumentuak aztertzeko orduan eta baita peritazioa egiteko orduan. Baina, fotokopiak ere dokumentuak dira, bitarteko mekanikoei sortutakoak eta peritaziorako neurri baten baliagarriak, erabilitako makinaren kalitatearen arabera.
- Bitarteko instrumentalak: bitarteko instrumentalen gabezia adituarentzako muga bat da, nola jokatu edo nola ikertu jakin arren, ez bai ditu dokumentuetan ikertu beharrekoa ikertzeko bitarteko fisikoak/materialak (Martín, 2010, 201-204. or.).

Beraz, ikusi dugun moduan, Dokumentoskopiak baditu oztopoak lana egiteko orduan.

### 3.5. Grafistikari aipamena

Grafistika Dokumentoskopiaren adarretako bat da eta literaturan garrantzi handikoa, izan ere, ohikoa da Dokumentoskopiaren inguruko bibliografia bilatzean liburu hauen atal handi bat grafismoari, grafistikari, grafologiari... buruzkoa izatea. Beraz, grafistika zer den azaltzeari ekingo diogu, Dokumentoskopiaren barruan zein paper jotzen duen ikuste aldera.

Peritatze kaligrafikoaren helburua hasiera baten dokumentu baten egiazkotasuna eta faltsutasuna zehaztea zen, grafismoaren<sup>2</sup> ikerketa oinarri gisa harturik. Denborarekin ikerketa objektuaren esparrua zabaldu egin da eta orain, aldaketak, datak, tintak, paperen konbinazioak... etab. ere ikertzen ditu. (Romero et.al., 2018, 3. or.). Beraz, esan daiteke, grafistika, dokumentuaren egiazkotasuna edo faltsutasuna zehazteko helburuarekin, eskuidazkiak, sinadurak... ikertzeaz arduratzen den zientzia dela. Zientzia hau, Kriminalistikaren adar bat da eta Dokumentoskopiaren barnean kokatu daiteke, hau, dokumentuen ikerketaz arduratzen den zientzia denetik, guztia barne hartzen duelako.

---

<sup>2</sup> Grafismo: bajo el lema de grafismo, el DRAE lo define como: "(De grafo- e -ismo). 1. Cada una de las particularidades de la letra de una persona, o el conjunto de todas ellas (Martín, 2010, 574. or.).

### 3.6. Auzitegiko hizkuntzalaritza eta Dokumentoskopia

Valero-Garcések (2018, 13. or.) esaten digu ez dagoela auzitegiko hizkuntzalaritzaren inguruko definizio zehatzik, baina Auzitegiko Hizkuntzalarien Nazioarteko Elkartearen definizioa eskaintzen digu. Hauek auzitegiko hizkuntzalaritza zuzenbidearen eta hizkuntzaren arteko interfazea bezala definitzen dute.

Beste definizio baten arabera, auzitegiko hizkuntzalaritza, diskurtsoaren auzitegiko ikerketa da eta hizkuntzalaritzaren barruan dauden zientzia ezberdinetatik ekarpenak jasotzen ditu, hala nola, soziolinguistika, pragmalinguistika, diskurtsoaren analisia, erretorika... Honek, beste alor zientifiko batzuetan murgiltzeko aukera ematen dio (Viñals eta Puente, 2003, 195. or.).

Beraz, zientzia hauek krimen-ikerketan erabiltzerakoan ekarpen ezberdinak jaso ditzakegu (Viñals eta Puente, 2003, 195. or.):

- Hitzunaren pertsonalitatearen profila lortu daiteke.
- Mezu bat interpretatu eta deskodifikatu testuinguruaren arabera eta horrela autorearen benetako nahia ezagutu.
- Diskurtsoetan/testuetan erabiltzen diren estrategia linguistikoak identifikatu.
- Hartzailearengan duen influentzia neurtu (pertsuasioa, manipulazioa...).

Gainera, Auzitegiko Hizkuntzalarien Nazioarteko Elkarreak, ikertu daitezkeen beste alor batzuk aipatzen dizkigu (Valero-Garcés, 2018, 17. or.), eta horietako batzuk zuzenean lotu daitezke Dokumentoskopiarekin:

- Idatzizko zein ahozko informazio linguistikoaren erabilera, aniztasun linguistiko ezberdinak dituzten hitzun eta idazleak identifikatzeko.
- Sinaduraren imitazioaren analisia eta delituzko helburuak dituzten testuen produkzioaren analisia egiteko.
- Egilea zehazteko, idatzizko testuetan zein ahozko kasuetan, eta plagioaren analisia egiteko.
- Diskurtso legala eta judiziala ikertzeko.
- Interpretazio eta itzulpen legala, judiziala eta babesekoa hizkuntza anitzeko testuinguruetan .

Beraz, ikusi dugun moduan auzitegiko hizkuntzalaritzak bere garrantzia du Dokumentoskopiaren barruan. Aurretik aipatu ditugun ikerketa objektu guztiak ez dira zuzenean lotzen Dokumentoskopiarekin edo dokumentuen analisiarekin, baina adibidez, sinaduraren analisiak, egilea zehazteak, hiztun eta idazleak identifikatzea eta delituzko helburua duten testuen analisiak bai eta hauei auzitegiko hizkuntzalaritzak laguntza eskaintzen die.

### 3.7. Aditu-txostena

Kapitulu honen ondoren, aditu-txosten bat atxikiko da, beraz, aditu-txostena zer den eta jarraitu behar dituen gidalerroak ezagutzea interesgarria izan daiteke. Beraz, atal honen helburua ondoren jarriko den pasaporte baten aditu txostenarentzat sarrera gisa jokatzea da eta irakurleari aditu-txostenaren ingurukoak azaltzea. Horretarako, Rafael Martín Ramosen *Documentoscopia, método para el peritaje científico de documentos* (2010) liburutik ateratako informazioa erabiliko da eta baita 197001 ISO arauak esaten duena.

Martinek (2010, 1047-1050. or.) esaten digu, aditu-txostena, Dokumentoskopian aditua den pertsona baten lana dela. Lan hau egiteko orduan, ez dago erregela zehatz bat, izan ere, aditu bakoitzak bere ustetan egokiena den modura egingo, besteentzat ulergarria suertatzeko helburuarekin. Dena den, aditu-txostenak sekuentzia logiko bat jarraitu behar du, lan honen helburua erakuste eta frogatzea baita. Hori horrela izanik, aditu-txosten batek orokorrean zazpi atal izango ditu, edukia ulergarria izan dadin:

1. Aurrekariak: sarrera antzeko bat, adituaren eta txostena eskatu duen pertsonena.
2. Aztertutako dokumentua: peritatzearen objektu izango diren dokumentu guztien zerrenda eta deskribapena. Gomendagarria da deskribapena oso zehatza eta argia izatea eta argazkiekin identifikatzea.
3. Azterketaren objektua: adituak aztertzea garrantzizkoa ikusi duenaren azalpena.
4. Nota teknikoak: ez da askotan jartzen aditu-txostenetan. Nota hauek dokumentuen ezaugarrien ingurukoak izaten dira orokorrean: dokumentuaren izaera, egoera fisikoa, lagin kantitatea, kronologia, formatua, erabilitako bitarteko teknikoak...

5. Egindako alderaketak: balorazioarekin eta ondorioekin batera, txostenaren nukleoa osatzen du. Ezagutza demostratu, teknika ezberdinak erabili eta egiaztapenak egiten ditu atal honetan adituak.
6. Emaizten balorazioa: ez da askotan jartzen aditu-txostenetan, baina beharrezkoa da, izan ere, lortutako emaitzen balorazioa egiten da eta honek ondorioak ulergarriagoak egiten ditu.
7. Ondorioak: azken atal honetan, ezinbestekoa da ahalik eta argiena, laburrena eta zehatzena izatea.

Aditu-txostenak, ikusi dugunez, zazpi atal nagusi izaten ditu orokorrean, batzuetan gutxiago ere. Dena den, badaude txostenak derrigorrez bete behar dituen baldintza batzuk, ikus ditzagun:

- Egiazkoa izan behar du: bai adituari dagokionez, bai egindako lan guztiari dagokionez.
- Garrantzizko informazioa izan behar du: ezin da lanarekin zuzenean loturik ez dagoen ezer jarri.
- Aditu-txostena ez da lan grafoskopikoa hala eskatzen ez bada, beraz esku idazkien kasuan, ez zaio subjektuaren pertsonalitatea kontutan izan beharrik.
- Frogagarriak, zalantzazkoak edo ikertzeko ezinezkoak diren fenomeno guztiak azaldu behar dira.
- Argitasuna: eskaintzen den informazioak adierazgarria eta argitzailea izan behar du eta ahal den neurrian, teknizismorik gabekoa.
- Ez du luzea izan beharrik, ezinbestekoa ez bada.
- Egindako alderaketen atalean jarritako ondorioak ez dira jarri behar ondorioetan.
- Pertsonak errespetatu behar ditu: trakestasuna, ezgaitasunak aipatzea, kalifikazioak... egitea ekidin behar du.

Beraz, ikusi dugun moduan, aditu-txostena oso lan tekniko eta zehatza da, dokumentuak aztertzean erabilitako baliabideak edo teknikak eta ondorioak ongi azaldu behar dituen, ulertteraza izateko helburuarekin. Aditu-txostenaren xedea Dokumentoskopiak aztertu duena plazaratzea baita, dokumentu bat egiazkoa,

faltsua, aldatua... den zehazteko. Hori dela eta, aurretik aipatu dugun egitura zehatza izan behar du eta zenbait baldintza bete behar ditu.

Txostenean sakonago azalduko badugu ere, 197001 ISO arauari aipamena egingo diogu. Izan ere, 2011ko martxoko ISO arauak, aditu txostenen irizpide orokorrak eskaintzen dizkigu. Arau honen helburua, gaur egun egiten diren aditu lanen ugaritasuna dela eta, hauen erabilera egokiari buruzko berme bat eskaintzea da. Horrez gain, aditu-txosten guztiek bete beharreko baldintza formal komunak zehaztea du xede, txosten hauek egiteko erabiltzen diren metodo eta teknikei eragozpenik egin gabe.

### 3.8. Konklusioa

Ikusi dugunez, lehen atalean Dokumentoskopiari buruz hitz egin dugu eta beraz, esan genezake Dokumentoskopia dokumentuen gora behera guztiak ikertzeaz arduratzen den Kriminalistikaren adarra dela. Hala ere, ikerketa honen helburua dokumentuaren egiazkotasuna edo faltsutasuna zehaztea da.

Aurreko atal dokumentuetan egin daitezkeen aldaketak, peritatzean gehien erabiltzen diren dokumentuak, dokumentuei loturiko delituak eta dokumentuek izaten dituzten segurtasun neurriak aipatu ditugu eta atal honetako bigarren atalean, dokumentu hauek aztertzeko erabiltzen diren teknika instrumentalak. Teknika hauen helburua, dokumentuak ikertzea da, dituen (edo falta zaizkion) segurtasun neurriak aztertuz, dokumentu erakusgarriekin alderatuz, aldaketak ikusiz... dokumentuaren faltsutasuna edo egiazkotasuna zehazteko helburuarekin. Hori dela eta, azkeneko atalean aditu-txostenari buruz hitz egin dugu. Izan ere, aditu-txostena Dokumentoskopian aditua den pertsonak erabiltzen duen bidea da, dokumentuetan ikertu duena adierazteko. Horrenbestez, aditu-txostenak izan behar dituen atalak eta baldintzak azaldu ditugu.

Laugarren atalean, Dokumentoskopiaren mugez hitz egin dugu, izan ere, lan konplexua den aldetik, bere mugak ditu eta asko ez badira ere, lana oztopatu dezakete.

Bosgarren atalean, lanean azaldu dugun moduan, grafistikak bere garrantzia du Dokumentoskopiari buruz hitz egiten dugunean, hori dela eta, aipamen bat egin diogu, grafistika zer den edo zer ikertzen duen ikusteko.

Seigarren atalean, auzitegiko hizkuntzalaritzak Dokumentoskopiarekin duen erlazioa eta eskaini diezaiokeen laguntzari buruz hitz egin dugu, izan ere, sinaduraren analisisian, egilea identifikatzen... esku bat bote diezaioke.

Bukatzeko, zazpigarren atalean, jada aurretik aipatu dugun modura, aditu-txostenari buruz hitz egin dugu eta ISO araua aipatu dugu, izan ere, aditu-txostenen baldintza formalak zehazten ditu. Ondoren pasaporte baten aditu-txostena eta txosten tekniko-poliziala atxikiko ditugun aldetik, lehenak izan behar duen egitura ikusteko.



## 4. ATALA: Dokumentoskopia aplikatuta: txosten tekniko-poliziala eta aditu-txostena

---

### 4.1. Testuingurua

Lan hau, aurretik azaldu den modura, praktikei loturiko Gradu Amaierako Lan bat da. Kasu honetan praktikak Donostiako Udaltzaingoetan egin ziren, otsailaren 1etik apirilaren 8ra bitartean, udaltzaingoetako Polizia Zientifikoaren sailean hain zuzen ere. Polizia zientifikoak lan ezberdinak egiten ditu eta horien artean esleitutako gaia Dokumentoskopia izan zen, hots, dokumentuen analisis arduratzen den zientzia.

Praktika hauetan Dokumentoskopiaren inguruko ezagutza ezberdinak eskuratu dira dokumentuek dituzten segurtasun neurri ezberdinak zeintzuk diren eta zertarako balio duten, segurtasun neurri horien azterketa, azterketarako erabiltzen diren baliabide ezberdinak.

Hori horrela izanik, praktiketako koordinatzailea den Patxi Anguera Ayalari, egindako lan ezberdinetatik ezagutzak eskuratu zirela frogatzeko txosten tekniko-polizial bat aurkeztu genion. Kasu honetan, esleitutako lana pasaporte baten analisisa izan zen eta hau polizia zientifikoko udaltzaingo baten ikuskaritzapean egin zen. Txosten hau eredu gisa harturik Gradu Amaierako Lan honetarako aditu-txosten bat egin da. Aditu-txosten hau egiteko, GAL honetako bibliografia aztertu da (legeria eta bibliografia teknikoa) eta txosten perizialak egiteko nazioarteko ISO-AENOR arauak ezagutu eta aztertu dira, eta horretan guztian oinarrituz, txosten berri bat egin da nazioarteko arauak betetzen dituen.

Beraz, hurrengo ataletan bi txosten hauek egiteko jarraitu den metodologia azaltzeari ekingo diogu. Eta ikerketa honen bidez, azken ekarpena diren, txostenen inguruan eskuratu diren emaitzak eta ondorioak adieraziko ditugu.

## 4.2. Helburuak

Atal honek helburu ezberdinak ditu:

- Txosten tekniko-poliziala eta aditu-txostena testuinguruan kokatzea.
- Bi txosten hauek egiteko erabili den metodologia azaltzea.
- Erabilitako ISO arauak zer diren azaltzea.
- Dokumentoskopiaren alderdi praktikoa edo aplikatua erakustea, ondoren jarriko diren txostenen bidez.
- Eskuratutako emaitzak azaltzea.
- Ondorioak azaltzea.

## 4.3. Metodologia

Ondoren jarriko diren bi eranskinak egiteko metodologia konkretu bat erabili da. Txosten tekniko-poliziala egiteko, Donostiako Udaltzaingoetan egiten diren txostenak hartu dira eredu, izan ere, aurretik azaldu den modura, bertan egin dira praktikak. Bestalde, aditu-txostena egiteko, txosten tekniko-poliziala hartu da eredu gisa eta GAL honetan erabilitako iturriak eta 197001<sup>3</sup> eta 16775<sup>4</sup> ISO arauk esaten dutenaren arabera moldatu da, aditu-txosten batek izan behar dituen baldintzak bete ditzan.

Metodologia azaldu baino lehen, txosten bietan agertzen diren pasaportearen datuen inguruko argibide bat. Txostenetan ageri diren datuak (datak, zenbakiak...) simulatuak dira eta dokumentuaren titularraren argazkia eta datuak ezabatu dira konfidentziasuna eta pertsona horren identitatea sekretuan mantentzen direla bermatzeko. Beraz, hemen jasotako datuak ez dira pasaportearen ageri direnak.

---

<sup>3</sup> UNE 197001:2011 Criterios generales para la elaboración de informes y dictámenes periciales.  
<https://www.aenor.com/normas-y-libros/buscador-de-normas/UNE?c=N0046980>

<sup>4</sup> UNE-EN 16775:2016 Servicios periciales. Requisitos generales para los servicios periciales.  
<https://www.aenor.com/normas-y-libros/buscador-de-normas/UNE?c=N0056898>

#### 4.3.1. Txosten tekniko-poliziala

- Azterketa

Metodologiari dagokionez, dokumentuaren azterketarako lehendabizi pasaporteari begiratu orokor bat eman zitzaion, begi bistara aurkitu zitzaketen faltsutasun zantzuak ikusteko, adibidez, agertzen ziren datu pertsonalak egiazkoak ziren edo ez, zerbait ezabatuta zegoen edo ez, alteraziorik zuen edo ez ikusteko... Faltsutasun zantzurik ez zirenez aurkitu, ondoren, bulegoan eskuragarri zeuden teknika instrumentalak erabiltzera ekin zen.

Lehenik, dokumentuaren azala, kontrazala eta bi hauen goardak aztertu ziren, argiztapen forentse ezberdinen bidez, horretarako argi ultramorea erabili zen, begi bistara ikus ez zitezkeen dokumentuaren segurtasun neurriak ikusteko. Azterketa honen bidez, dokumentuaren segurtasun neurriak ikusi ziren, portadan ikusten den zigilua adibidez (argazkietan ez da ondo atzematen pasaportea zaharkituta baitzegoen).

Bigarrenik, barnealdeko orriak aztertu ziren, argi transmititu eta ultramore bidez. Horrez gain, Agfa markako lupa bat erabili zen, dokumentuaren atalak hobe ikusteko. Azterketa honek zenbait segurtasun neurri ikustea ahalbidetu zigun: segurtasun fondoa, harizpiak... Segurtasun neurri hauek bateragarriak ziren Honduraseko pasaporte ofizialaren segurtasun neurriekin.

Azkenik, datu pertsonalen orrialdea aztertu zen eta horretarako argiztapen ezberdinak eta lupa erabili ziren, eta dokumentuaren titularraren datu pertsonalak ere aztertu ziren. Azterketa honek, zenbait faltsutasun zantzu ikustea ahalbidetu zigun: inprimaketa mota ezberdina zuela eta segurtasun fondoa ere ez zela berdina.

Horrez gain, gailu informatikoak erabili ziren: argazki kamera digitala eta ordenagailua. Lehenarekin dokumentuari argazkiak atera zitzaizkion, ondoren ordenagailuan tratatu ahal izateko. Argazkiak editatzeko, Photoshop CS programa erabili zen.

- Erabilitako teknika instrumentalak

NIKON D 300 S markako argazki kamera, Agfa markako lupa bat eta argiztapen forentse ezberdinak (argi ultramorea, arraseko argia eta argi transmititua). Horrez gain, argazkien tratamendurako, Photoshop CS programa erabili zen.

#### 4.3.2. Aditu-txostena

Aditu-txosten honen bidez, kriminologoen aditu bezala egin dezaketena nabarmendu nahi da eta Donostiako Udaltzaingoetan eskuratu diren ezagutza ezberdinak, txosten tekniko-poliziala ez den beste txosten batean adierazi nahi izan dira.

Aditu-txosten hau, txosten tekniko-polizialean ikertu den pasaportearen inguruko moldatutako txosten bat da. Hau egin ahal izateko, jada aipatu diren ISO arauak izan dira kontutan eta hauek zehaztutako jarraibideak jarraitu dira. Gai honi loturik, bi ISO arau ditugu:

- 197001 ISO araua, aditu-txosten batek jarraitu beharreko irizpide orokorrei buruzkoa.
- 16775 ISO araua, aditu zerbitzuak izan behar dituen betekizun orokorrei buruzkoa.

197001 ISO arauak, aditu-txostenean jarraitu den egitura adierazten du. Arau honi jarraituz, ondoren erantsiko den aditu-txostenak honako egitura izango du: identifikazioa, hutsegite deklarazioa, zin edo agintza, helburua, aurrekariak, aurretiko kontsiderazioak, erreferentziako dokumentuak, terminologia, azterketa, azterketaren emaitzak, ondorioak eta bibliografia.

16775 ISO arauak, aditu batek bere zerbitzua eskaintzen duenean zerbitzu horrek izan behar dituen betekizunak adierazten dizkigu. Izan ere, aditu batek lana egiterakoan kode etiko bat jarraitu behar du eta ezagutza eta kualifikazio batzuk izan behar ditu. Horrez gain, prozesu perizialak jarraitu behar dituen pausoak adierazten dizkigu, hala nola, bezeroak eskatutakoaren hasierako ebaluazioa egitea, arriskuen identifikazioa, bezeroarekin egin beharreko akordioa, zerbitzuak nolakoa izan behar duen (prozedura, dokumentazioa...).

Beraz, aditu-txostena egiteko bi arau hauek adierazten dituzten irizpideak jarraitu dira, lana ahalik eta modu egokienean egin ahal izateko eta Gradu Amaierako Lanean zehar landu den bibliografia ere oinarritzat hartu da.

#### 4.4. Emaidzak

Pasaporte honen analisitik bi emaitza nagusi atera ziren:

1. Aztertutako pasaporteak, legezko dokumentuek bete beharreko segurtasun neurriak betetzen zituela, salbu datu pertsonalen orrialdeak.
  2. Datu pertsonalen orrialdeak, begi bistara ofiziala bazirudien ere, faltsutasuna adierazten zuten zeinuak adierazten zituela ez bai zituen Honduraseko pasaporte ofizialak zituen ezaugarri berberak.
- Legezko dokumentuak inprimatzeko erabiltzen den teknika ez zen beste teknika bat erabili zen.
  - Datu pertsonalen orrialdeko segurtasun fondoa ez zegoela lerrokatuta beste orrialdeekin.

#### 4.5. Ondorioak

Egindako analisiaren emaitzei erreparatuz honako ondorioak atera ziren Honduraseko pasaporteari buruz:

- Faltsututako edo manipulaturako dokumentu bat zela.
- Dokumentuaren orrialde guztiak, salbu datu pertsonalen orrialdea, legezko dokumentuekin bat zetoze.
- Datu pertsonalen orrialdea ez zetoze legezko dokumentuekin bat, beraz, faltsututa edo manipulaturata zegoela.
- Faltsutzea nola burutu zen. Kasu honetan, datu pertsonalen orrialdean, orrialde faltsu bat erantsi zen.
- Dokumentuaren kalitatea oso ona zela, faltsutasuna zehazteko orduan zalantzak sortzeko punturaino.

Beraz, egindako ikerketa lan honetatik bi ekarpen atera dira: Donostiako Udaltzaingoetan egindako txosten tekniko-poliziala eta Gradu Amaierako Lanaren alderdi teorikoa eta ISO arauak errebisatu ondoren egin den aditu-txostena. Ondoren jarriko diren lehen bi eranskinetan ikerketa honen emaitzak eta ekarpenak adieraziko dira.

## 5. ATALA: Lanaren ondorioak eta gogoeta

---

### 5.1. Lanaren ondorioak

Hasieran aipatu den modura, lan honen helburua Polizia-ikerketaren eta Dokumentoskopiaren inguruko ikusmira orokorra eskaintzea zen. Beraz, hau kontutan izanik, lanaren hasieran aipatutako helburuak lortu direla kontsideratu daiteke. Hala ere, esan beharra dago, Dokumentoskopiari buruz eskuragarri dagoen bibliografia nahiko mugatua dela, orokorrean liburuak Kriminalistikari buruzkoak baitziren eta gehiago sakontzen zuten analisi lofoskopikoan eta bestelako gaietan, Dokumentoskopiari aipua eginez baino ez. Honek, lana egiteko izandako denbora tarte laburrari loturik, lanaren zailtasun maila areagotu zuen. Alabaina, irakaslearen laguntzari eta eskuragarritasunari esker, Polizia-ikerketaren eta Dokumentoskopiaren inguruko lan apal bat egitea lortu da.

Lanaren hasieran, hainbat helburu aipatu dira, hala nola, Polizia-ikerketari eta Krimen-ikerketari zer diren eta zein funtzio dituzten azaltzea, polizia mota ezberdinak ikustea, dokumentuen inguruko gai ezberdinak jorratzea, Dokumentoskopia eta lan hau egiteko erabiltzen dituen baliabideak azaltzea... Horretarako lana hiru atal teorikotan banatu da, bakoitza elkarloturik dauden gai ezberdinei buruzkoa.

Beraz, lehen atala, Polizia-ikerketari eta Krimen-ikerketari buruzkoa izan da. Hemen, lana kokatzeko, lehenik, Krimen-ikerketak, Kriminalistikak eta Kriminologiarekin duen lotura nabarmendu nahi izan da. Izan ere, hiru hauek delituari loturik daude eta guztiek eskain diezaioke laguntza elkarri, delituzko fenomenoari aurre egiteko orduan. Ondoren, polizia eta polizia-ikerketari buruz aritu gara, zer diren, polizia mota ezberdinak eta zein funtzio egikaritzen duten ikusteko. Hauei estuki loturik, Krimen-ikerketaren ingurukoak azaldu ditugu: barne hartzen dituen ekintza ezberdinak, izan behar dituen ezaugarriak eta helburuak. Gainera, ikerketaren subjektuez ere aritu gara, izan ere, Polizia-ikerketaren eta Krimen-ikerketaren alderdi aktiboa dira. Hemen, polizia judiziala eta polizia zientifikoa aipatu ditugu, bereziki hauen arteko ezberdintasuna nabarmentze aldera. Izan ere, biak arduratzen dira nolabait ikerketaz eta kontzeptuak nahas daitezke. Aurretik aipatutako guzti hau, legean sostengatuz egin da, izan ere, legeak bakoitzari izaera eta betebeharrak zehatz batzuk esleitzen dizkio eta hau kontutan

izatea ezinbestekoa da. Azkenik, udal polizien zereginaz aritu gara eta Donostiako Udaltzaingoen organigrama baten bidez, nola egituratzen diren ikusi dugu. Beraz, esan daiteke, atal honek, eduki aldetik, aurretik aipatu diren helburuak bete dituela.

Beraz, lehen atal honetatik ondorioztatu da, bereziki, Kriminologiak eta Kriminalistikak Krimen-ikerketan paper garrantzitsua jokatzen dutela eta hiru hauen arteko erlazioa nabarmena dela. Eta hori horrela izanik, Kriminologo batek, Kriminalistikaren, poliziaren, ikerketaren... inguruko ezagutzak izatea ezinbestekoa dela, Krimen-ikerketan ekarpen garrantzitsuak egin bai ditzake.

Bigarren atala, izenburuak berak esaten duen moduan, Polizia-ikerketaren objektuaren ingurukoa izan da: delitua. Zigor Kodeak, hainbat delitu mota jasotzen ditu xedatutako artikuluetan zehar, baina kasu honetan, dokumentuei loturiko delituetan baino ez gara zentratu. Orain aipatutakoa kokatzeko, lehendabizi dokumentuez aritu gara. Horretarako, dokumentu bat zer den, dokumentu mota ezberdinak nola sailkatzen diren, peritajea ohikoenak diren dokumentuak, dokumentuetan ikertu daitekeena eta faltsifikazio mota ohikoenak azaldu ditugu. Dokumentuen inguruko guztia kokatu ondoren, dokumentuei loturiko delituez Zigor Kodeak esaten duena ikusi dugu. Horretarako, artikulua guztien errepeaso eta analisi bat eginez.

Zigor Kodearen analitika, zenbait gauza ondorioztatu dira:

- Ikusi den modura, Zigor Kodeak dokumentuen arteko ezberdintasun bat egiten du, batetik ziurtagiriak aipatuz eta bestetik, agiriak. Azken hauei loturiko delituentzat zigor altuagoak aurreikusiz.
- Gainera, subjektu aktiboen bereizketa egiten du, funtzionario publikoen eta norbanakoen artean. Lehen hauentzat zigor larriagoak aurreikusiz.
- "*Animus-aren*" arabera bereizketa ere egiten du, hau da, delituzko ekintza doluz edo zehurtziagabekeriaz egin den edo ez. Beraz, elementu guzti hauek kontutan izanik, zigor mota ezberdinak aurreikusten ditu dokumentuen faltsutze hauentzat.

Bigarren atalarekin bukatzeko, dokumentuen segurtasun neurriak azaldu ditugu, ezagutzen direnak azaletik azalduz. Hemen ikusi dugu, segurtasun neurriak dokumentuetan hiru modutara erantzen direla: edukitzailearen bidez, inprimaketa bidez eta elementu gehigarrien bidez. Zerrendan ikusi den bezala, dokumentuek hainbat segurtasun neurri ezberdin izan ditzakete. Guzti hauei esker, dokumentuen segurtasun



maila ezberdina izango da eta ondorioz, faltsifikazioekiko zaurgarriagoak edo seguruagoak izango dira.

Bigarren atal honek, dokumentuei buruzko informazioa eskaintzeaz gain, hirugarren atalarentzako sarrera gisa balio izan digu. Izan ere, azken atal teoriko honetan, Dokumentuen peritatzeari edo Dokumentoskopiari buruz aritu gara eta honek lan egiteko erabiltzen dituen teknika instrumentalak aipatu ditugu. Lanean esan den modura, Dokumentoskopia, dokumentuei loturiko ikerketaz arduratzen den zientzia da eta hainbat ikerketa ezberdin egin ditzake dokumentuetan. Horretarako, atalaren mamian azaldu diren teknika instrumental ezberdinak erabiltzen ditu. Ikusi dugun modura, Dokumentoskopiak mugak izan ditzake dokumentu baten egiazkotasuna edo faltsutasuna zehazteko orduan, baina lan horretarako dituen baliabideak anitzak dira. Atala ixteko eta lanaren alderdi teorikoarekin bukatzeko, Dokumentoskopiari loturiko beste gai batzuk aipatu ditugu, hala nola, grafistika, auzitegiko hizkuntzalaritza eta aditu-txostena. Azken honek, lanaren alderdi praktikoarekin lotura du, izan ere, bukaeran pasaporte baten inguruko aditu-txostena eta txosten tekniko-poliziala erantsiko dira, Dokumentoskopiaren lana nabarmentze aldera eta alderdi praktikoa irudikatze aldera.

Beraz, guzti honekin, lanaren hasieran aipatu diren helburuak bete direla kontsideratu daiteke.

## 5.2. Dokumentoskopia, polizia-ikerketa eta kriminologia: gogoeta

Ikusi den modura, egokitutako lana Dokumentoskopia eta Polizia-ikerketari buruzkoa izan da. Esan behar dut, gai hau, guztiz ezezaguna zitzaidala hasiera batean. Polizia-ikerketa ezagutzen nuen, baina ez nekien dokumentuen azterketaren inguruko zientzia bat existitzen zenik eta ezta Dokumentoskopia deitzen zenik.

Practicumari esker, Dokumentoskopia, zerbait ezezaguna izatetik gustuko dudan zerbait izatera pasatu da eta ikerketa objektu interesgarria bilatu da niretzat. Dokumentuak ikertzeko erabiltzen diren teknikak oso dinamikoak dira eta dokumentuak ere. Izan ere, dokumentu mota ezberdin asko daude, eta egun batean pasaporte bat

ikertzen egon zaitezke eta hurrengo egunean faltsututako baimen bat edo billeteak. Eta logikoa den modura, dokumentu mota ezberdin hauek ikertzeko erabili beharreko teknikak eta baliabideak ere aldatu egiten dira. Dinamikotasun honek, dokumentu ezberdinak ikertzen ikasteko aukera eskaini dit eta hauek ikertzeko erabiltzen diren teknika instrumental mota ezberdinak erabiltzen ere.

Gainera, ikerketa honi esker, Dokumentoskopiak, dokumentuen egiazkotasuna edo faltsutasuna zehazteaz haratago, beste hainbat gauza ezagutzea ahalbidetzen du, hala nola, egiletza identifikatzea, dokumentuak jasandako moldaketak zeinek egin dituen, moldaketa horien intentzioa, izan ere honek delitu mota aldatu dezake, moldaketa horrek dokumentua plagiozkoa, difamaziozkoa... bilakatzen duen, faltsutzeak edo aldaketak dokumentua erabat baliogabetzen duen... Hori dela eta, Dokumentoskopiaren inguruko ezagutzak eskuratzeko ezinbestekoa da izango da formazio epealdi bat, Donostiako Udaltzaingoen kasu honetan eskaini didatena bezalakoa

Horrez gain, lan hau egiterakoan, Kriminologiak beste zientzia batzuekin duen erlazioa ikusi dut. Graduak irauten duen lau urteetan zehar Kriminologiari loturiko hainbat ikasgai ezberdin izan ditugu: lege medikuntza, segurtasun pribatuari buruzko aukerako ikasgai bat, auzitegiko antropologia, zigor zuzenbidea... Guztiek zeukaten Kriminologiari eskaintzekoak eta aberasgarriak suertatu zaizkigun ezagutzak, baina praktikekin eta lan hau egiterakoan ohartu naiz, Kriminologiak, ikasgai horiei eta unibertsitatetik kanpo lantzen diren beste zientzia edo gai batzuei eskaintzekoak ere badituela. Eta, lan hasieran adierazi den bezala, dirudiena baino lotura estuagoa duela Kriminologistarekin eta Krimen-ikerketarekin. Hori dela eta, Kriminologistika eta Krimen-ikerketari buruzko ezagutzak eskuratzeko garrantzitsua dirudit Kriminologoentzat. Diziplinarteko zientzia bat den aldetik, honi loturik dauden gai guztietatik edan beharko lukeelako.

Jakina denez, Kriminologistikak, Dokumentoskopia ez ezik, gai ugari barnebiltzen ditu eta praktiketako koordinatzaileei esker, beste hainbat gairen inguruko ezagutzak eskuratu ahal izan ditut: hatz aztarnen analisiak nola egiten diren, atestatuak zer diren, genero indarkeriaren inguruko hainbat gauza, biktimen arreta, inspezio tekniko-okularrak egiten... eta esperientzia izugarria iruditzen zait. Hori dela eta, praktiketara laguntzaile izan ditudan udaltzain guztiei eskerrak eman nahiko nieke berriro.

Bukatzeko, Dokumentoskopiak gaur egun eta etorkizunean izan ditzakeen erronkei aipamen bat egin nahi diet. Bereziki bi gai nabarmendu nahiko nituzke:

1. Faltsutze txikiak, batez ere, adingabeei eragiten dietenean.

Faltsutze txikiak kontsideratuko ditut, ondorio legal handiak ez dituzten faltsutzeak, delitua bera ez delako arriskutsua edo garrantzizkoa modu indibidual baten ikusirik. Indibidualekin esan nahi dut, faltsutzea bera soilik kontutan hartuz gero, hau da, delituzko egitatea bera, ez dela garrantzi handikoa. Adibidez, dantzaleku batera sartzeko nortasun agiria faltsutzen duten adingabeen kasua.

Garrantzizko delituak ez badira ere, faltsutze hauen atzean krimen-antolatuan aritzen diren erakundeak eta delituzko egitateak burutzen dituzten erakundeak egoten dira askotan. Posible da ondorioz ez izatea, baina posible da etorkizunean garrantzi gabeko faltsutze hori dela eta, pertsona horrek ondorioak izatea dokumentu faltsu honen egileekin. Honi loturiko beste ondorio bat da, adingabe hori dokumentu faltsuarekin harrapatuz gero, betiko jasango dituela eraginak, izan ere, jada delitugilea kontsideratuko da.

Beraz, horrelako faltsutze txikiek ondorio handiak izan ditzakete, izan ere, askotan modu horretara hasten da jendearen delituzko karrera, gazteak eta zaurgarriak direnean izandako akats baten ondorioz. Hori dela eta, eskoletan prebentzioa ezinbestekoa da eta hemen sartzen da Kriminologia. Kasu honetan dokumentuen faltsutzei buruz ari gara, baina prebentzioa edozein motatako delituak ekiditeko helburuarekin egin behar da. Delitu bat burutzeak dakartzan ondorioak, juridikoak zein pertsonalak, eta delitua bera ekidite aldera.

2. Dokumentuen digitalizazioa eta azken honi loturik sortzen dituen zalantzak.

Dokumentoskopiak gaur egun duen beste erronka garrantzitsu bat gizartearen digitalizatzea da. Gizartea, denbora oso gutxian eman diren aurrerakuntza teknologikoetara egokitzen ari da oraindik eta horrek dokumentuei ere eragiten dio. Teknologien aurrerakuntza dela eta, dokumentu motak ere aldatu egin dira. Duela urte asko paperean baino ez genituen, baina gaur egun interneteko aplikazio ezberdinek dokumentu mota ugari eskaintzen dizkigute klik batean. Gainera, dagoeneko toki askotan, derrigorrezkoa da dokumentu digitalak erabiltzea, paperezkoen ordez. Egia da,

batzuetan erosoagoa suerta dakigukeela ordenagailuan gure datuak jarri eta dokumentua posta elektronikoa bidez bidaltzea, postontzi batera joatea baino. Baina askotan ez gara kontziente aurrerakuntza hauek eta erosotasun honek ekar ditzakeen ondorioez edo zalantzez.

Dokumentuen digitalizatzearen ondorioz, delitu ezberdinak egin daitezke. Adibidez, dokumentu baten sinadura faltsutzea edo titularraren datuak aldatzea. Horrek, legislazioaren aldakuntza edo berrikuntza bat eskatzen du, izan ere, ez da berdina paperezko dokumentu bat faltsutzea edo digitalki sinatzen den dokumentu bat faltsutzea. Gainera, hirugarren atalean azaldu diren Dokumentoskopiak erabiltzen dituen teknika instrumentalaren garapen edo aldaketa bat suposatzen du dokumentuen digitalizatzeak. Izan ere, ez dira berdinak izango dokumentu hauek ikertzeko erabili beharko diren teknikak edo baliabideak.

Bestalde, digitalizatzeko horrek beste zalantza bat dakarkigu, zein punturaino bermatzen da gure segurtasuna dokumentu digital bat erabiltzerakoan? Guztia ordenagailu bidez gestionatzen bada, nola ziurtatu daiteke gure dokumentua segurua dela eta inork ez duela faltsutuko? Izan ere, horrelako kontuetan aditua den pertsona batek manipulatu dezake gure dokumentuan jarritako informazioa. Beraz, ezinbestekoa izango da, horrelako dokumentuei loturik egin daitezkeen delituak ekiditeko prebentzio kanpainak abian jartzea, jendea arriskuez kontzientziatzeko eta Kriminologiak prebentzio honetan lagundu dezake.

Konklusio modura, esan daiteke, Dokumentoskopiari loturiko bi erronka hauen aurrean Kriminologiak bere garrantzia duela delitu mota hauek prebenitzeko orduan. Eta honek, hasieran aipatutakoaren harira, Kriminologiaren eta Dokumentoskopiaren arteko lotura begi bistan uzten duela.

### 5.3 Lan honen ekarpenak

Gradu Amaierako Lan hau, interesekoa edo lagungarria suerta dakioke Kriminologia ikasten ari den edota gai honen inguruan interesa duenari. Hori horrela izanik, lan honen ekarpenak honakoak dira:

- Aurretik esan bezala, lan hau Dokumentoskopiaren inguruan egin den euskarazko lehen lana da, beraz, den-dena berria eta originala da. Horrek, etorkizunean lan hau egitea erabakitzen duen ikasleari ongi etor diezaioke ideiak hartzeko, edota gaien interesa duen pertsonari informazioa jasotzeko.
- Dokumentoskopiaren, polizia-ikerketaren eta krimen-ikerketaren inguruko ikusmira orokorra eskaintzen du, Kriminologiako ikasle baten ukitu pertsonala eskainiz.
- Aurretik aipatutako gaien inguruko legeria azterketa bat eskaintzen du, bereziki, polizia-ikerketaren erregulazioan eta Zigor Kodeak dokumentuen inguruko delituei buruz esaten duenean zentratuz.
- Kriminologiako irakasgaietan lantzen ez den gai baten inguruko bibliografiaren lanketa bat eskaintzen du, modu autonomoan egina.
- Txosten ezberdinak egiteko jarraibideak biltzen ditu, arau ezberdinek esaten dutenean oinarrituz.
- Gai hauen inguruko euskarazko terminologia landu eta zabaldu da eta horrek lagungarria suerta dakioke gai honen inguruko lan bat egin behar duen pertsonari edo interesa duenari.
- Guzti hau, beste erabiltzaileen esku geratzen da, interesa badute edo txostenak egiteko arau eta jarraibideei buruz informazioa nahi badute, bertan izan dezaten.

- Antón Barberá F. eta De Luis y Turégano J.V. (1993). *Policía Científica, Volumen I*. Valentzia: TIRANT LO BLANCH.
- Blázquez González F. (1998). *La policía judicial*. Madrid: Editorial Tecnos S.A.
- Collado Medina J., González Más J.L., Magaz Álvarez R., Manzanero Puebla A.L., Otero Soriano J.M, Pardo Mateos R.J., Pecharromán Lobo Y., Rodríguez Núñez A. eta Tovan Martín L. (2010). *La investigación criminal y sus consecuencias jurídicas*. Madril: Editorial DYNKINSON, S.L.
- Fernández Sánchez J.I. (2009). *Investigación criminal, una visión innovadora y multidisciplinar del delito*. Bartzelona: Editorial BOSCH, S.A.
- Ferro Veiga J.M. (2013). *El método técnico-científico en la investigación del delito*. Jaen : Alcala grupo editorial.
- García-Pablos de Molina. A. (2013). *Criminología: una introducción a sus fundamentos teóricos*. Valentzia: TIRANT LO BLANCH.
- Lago Montejo V. (2017). *La práctica de la investigación criminal: Inspección técnico ocular (ITO)*. Madril: REUS EDITORIAL.
- Martín Ramos R. (2010). *Documentoscopia: método para el peritaje científico de documentos*. Madril: LA LEY.
- Queralt J.J. (1999). *Introducción a la policía judicial*. Bartzelona: J.M. Bosch, editor.
- Queralt J.J. eta Jimenez Quintana E. (1989). *Manual de Policía Judicial*. Madril: Ministerio de Justicia.
- Romero Tallafigo M., Marchal Escalona N.E., Vega Moreno D., Conde Hardisson F., García Llanos G., Vega Ramos A., Ledesma Sánchez A., Cordobilla Parra E. eta Vallivana Querol Sabater P. (2018). *Tratado de Grafística y documentoscopia Vol I*. Delta publicaciones.
- Valero-Garcés C. (2018). *Lingüística Forense. Contextos, teoría y práctica*. Madril: Edisofer S.L.
- Viñals F. eta Puente. M.L. (2003). *Análisis de escritos y documentos en los servicios secretos*. España: Herder Editorial.

- Europar Batasuneko Kontseiluaren Glosarioa, dokumentuen segurtasunaren, segurtasun neurrien eta bestelako termino teknikoetarako buruzkoa.

## Webgrafia

---

Enciclopedia Jurídica

## Legeak

---

- 197001 ISO araua, aditu-txosten batek jarraitu beharreko irizpide orokorreari buruzkoa.  
url: <https://www.aenor.com/normas-y-libros/buscador-de-normas/UNE?c=N0046980>
- 16775 ISO araua, aditu zerbitzuak izan behar dituen betekizun orokorreari buruzkoa.  
url: <https://www.aenor.com/normas-y-libros/buscador-de-normas/UNE?c=N0056898>
- 769/1987 Polizia judizialaren errege-dekretua  
url: [http://noticias.juridicas.com/base\\_datos/ Penal/rd769-1987.html](http://noticias.juridicas.com/base_datos/ Penal/rd769-1987.html)
- Botere Judizialaren Lege Organikoa  
url: <https://www.ehu.es/documents/2660428/2799934/Legeak06.pdf>
- Espainiako Konstituzioa  
url: <https://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionEUSKERA.pdf>
- Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Lege Organikoa  
url: <https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd1998003495>
- Martxoaren 13ko 2/1986 Segurtasun indar eta kidegoen Lege Organikoa  
url: [http://noticias.juridicas.com/base\\_datos/Admin/lo2-1986.t2.html](http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/lo2-1986.t2.html)
- Prozedura Kriminalaren Legea  
url: <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/derecho/derecho06.pdf>
- Prozedura Zibilaren Legea  
url: <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/derecho/derecho02.pdf>
- Zigor Kodea

url:https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3DBlobServer2.1.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290507873026&ssbinary=true





# 1. ERANSKINA

---

Txosten znbk. 033/19

Eginbide znbk. P/01234/19

Data: 2019ko martxoaren 13a

## TXOSTEN TEKNIKO-POLIZIALA

### AURREKARIAK

Donostian, 2019ko martxoaren 13an, XXX zenbakidun karnet profesionala duen Udaltzaingoetako agenteak polizia zientifikoaren unitate honetara honako arrasto hau igorri du:

**ZALANTZAZKO ARRASTOA BAT:** Honduraseko Errepublikako **Pasaporte** bat, A111111 zenbakiduna, \*\*\*\*\*-ren izenean.



Hori dela eta, Donostiako Udaltzaingoko Polizia Ikuskari Teknikoen XXY zenbakidun agenteak hiri honetako Instrukzio epaitegira izapidetu ditu P/01234/19 zenbakidun eginbideak.

Sinatuta: XXY Agentea

Sinatuta: XYY Agentea

## AZTERTU BEHARREKOAK

Aurretik aipatutako dokumentuaren zalantzagarritasuna dela eta, instruktoreak Polizia Zientifikoari dokumentu honen egiazkotasuna aztertzea eskatu dio, faltsua den ala ez zehazteko.

## ERABILITAKO TEKNIKA

Aurretiaz aipatutako zalantzazko arrastoa aztertzeke, legezko dokumentuei dagozkien segurtasun neurriak izan dira kontutan. Neurri hauek identifikatu ahal izateko, dokumentuaren azterketa sakon bat egin da, bakoitzaren ezaugarri fisikoak ezartzeko helburuarekin.

Azterketarako erabilitako teknikak: NIKON D 300 S markako argazki kamera, Agfa markako lupa bat eta argiztapen forentse ezberdinak (argi ultramorea, arraseko argia eta argi transmititua). Horrez gain, argazkien tratamendurako, Photoshop CS programa erabili da.

## ARRASTOAREN AZTERKETA

Jada aipatu den bezala, aztertu beharreko arrastoa, \*\*\*\*\*-ren izenean dagoen, A111111 zenbakidun Honduraseko Errepublikako **Pasaporteari** dagokio.

Dokumentuak honako ezaugarriak aurkezten ditu:

- **Azala:** kolore urdin ilunekoa da eta material bigunez egina. Portadan, estantantze bidez inprimatutako urre koloreko zigilu bat du, Erdialdeko Amerikaren maparena. Zigiluaren gainean “CENTROAMÉRICA – República de HONDURAS” letrak irakurtzen dira, eta azpian, “PASAPORTE”.
  - o Argi ultramore azpian jarri ondoren, modu zehiarrean

“CENTROAMÉRICA” letrak ikusten dira idatzita azal guztian zehar, legezko dokumentuan ikusten diren bezala.

- **Azalaren eta kontrazalaren goarda:**
  - o Argi ultramore azpian jarri ondoren, modu zeharrez eta irregularki kokatuta “CENTROÁMERICA” letrak ikusten dira, legezko erabilerako dokumentuetan bezala.
  
- **Barnealdeko orriak:** dokumentuak guztira 48 orrialde ditu, ez da orririk falta. Datu pertsonalen orrialdea salbu, beste orrialde guztiek zenbakia dute, goikaldean eta behekaldeko kanpoko muturrean.
  - o Argi transmititu bidez begiratu gero, 2-48 orriek, Honduraseko Errepublikako zigiluaren ur marka dute inprimatuta eta pasaportearen zenbakia trokel bidez zulatuta.
  - o Argi ultramore bidez begiratuta, Honduraseko errepublikako legezko dokumentuak dituen segurtasun neurri berberak ikusten dira: segurtasun haria, harizpi argikorrek, zenbaki argikorrek eta “CENTROAMÉRICA” letrak modu zeharrez kokatuta. Hau da, segurtasun hondoan legezko dokumentuek dutenaren berdina da.

Datu pertsonalen orrialdea salbu, beste orrialde guztiak dokumentu legalak inprimatzeko erabiltzen diren teknika berberekin inprimatu dira.

24 eta 25 orrialdeetan josteta haria ikusten da eta argi ultramore azpian jartzerakoan erreakzionatu egiten du, kolore berdexka bat hartuz. **48. orrialdean josteta hariaren zuntz bat ikusten da, ez dena beste orrialdeetan ikusten den josteta hariaren berbera eta ez duena argi ultramore azpian erreakzionatzen.**

- **Datu pertsonalen orrialdea:** bigarren orrialdean datu pertsonalak daude eta honako datu hauek ditu inprimatuta:

- Pasaporte zenbakia: **A111111**

- Dokumentuaren titularra: \*\*\*\*\* \*\*\*\*\* \*\*\*\*\*

- Jaioteguna: **1975eko urtarrilaren 1a**
- Identifikazio zedula: **1111-1110-00111**
- Sexua: **F**
- Jaulkipen data: **2012ko urtarrilaren 2a**
- Epemuga data: **2017ko urtarrilaren 2a**
- Sinadurarako tartea: beteta eta izenpetuta



Horrez gain, titularraren argazkia eta filiazio datuak ageri dira. Orrialdearen erdialdean titularraren argazkiaren bigarren kopia bat dago. Argazkiak dokumentua zeraman pertsonarekin bateragarriak dira.

Formatuari dagokionez ID- 3 motakoa da, 44 karakterdun 2 lerro ditu eta pasaporte zenbakia ez dago trokelez zulatuta.

Orrialdea plastiko laminatu bidez dago babestuta. Segurtasun neurri hau dokumentuen alderdi garrantzitsuenak babesteko erabiltzen da.

Argi ultramore bidez begiratzekoan erreakzionatu egiten du, Honduraseko Errepublikako zigilua eta “HONDURAS” hitza ageri dira zenbaitetan. Baina beste orrietan ez bezala, ez ditu harizpi ultramoreak eta segurtasun haria.

## AZTERKETAREN EMAITZAK

1. **Zalantzazko arrastoa bat** deituriko pasaporteak, legezko dokumentuek bete beharreko segurtasun neurriak betetzen ditu, salbu datu pertsonalen orrialdeak.
2. **Datu pertsonalen orrialdeak**, begi bistara, dagokion informazio pertsonala eskaintzen badu ere, sakonki aztertu ondoren, faltsutasuna adierazten duten zeinuak azaltzen ditu:
  - Legezko dokumentuak “Offset” teknika bidez inprimatzen dira baina kasu honetan “Tinta zurrusta” bidezko inprimatze teknika erabili da. Inprimatze teknika hau soilik datu pertsonalen orrialdean aurkitu da, gainerako orrialdeek legezko dokumentuen inprimatze teknika eta segurtasun neurriak dituzte.
  - Datu pertsonalen orrialdeko segurtasun fondoan dauden lerroak, legezko dokumentuetan ez bezala, ez daude hurrengo orrialdearekin lerrokatuta. Zenbait milimetroko desplazamendua dago hauen artean.
  - Argi ultramore azpian jartzerakoan erreakzionatzen badu ere, beste orrialdeek dituzten zenbait segurtasun neurri falta ditu: harizpi ultramoreak eta segurtasun haria.

Beraz, datu pertsonalen orrialdea inprimatzean erabilitako teknika ezberdina, zenbait segurtasun neurrien gabezia eta segurtasun fondoaren desplazamendua ez dira Honduraseko Errepublikako dokumentu ofizialarekin bateragarriak.



**Zalantzazko bat arrastoa**



### Honduraseko legezko pasaporte

- Lehenego argazkia Zalantzazko arrastoari dagokio. Erabilitako inprimazio teknika “Tinta zurrusta” bidezkoa izan da. Hori dela eta, ertzak ez dira oso garbiak eta mikrotxuaren kalitatea txarra da eta ondorioz, irakurtezina. Gainera segurtasun fondoko lerroen desplazamendua begi bistan geratzen da.
- Bigarren argazkia Honduraseko pasaporte legal bati dagokio. Erabilitako inprimazio teknika, kasu honetan, “Offset” teknika izan da. Ikusten den bezala, ertzak ongi ikusten dira eta mikrotxuaren kalitatea ona da. Dokumentu honetan, bi orrialdeen segurtasun fondoak lerrokatuta daude.





- Datu pertsonalen orrialdea eta babesteko erabilitako plastiko laminatuaren kalitatea ona da. Argi ultramorearen azpian jartzerakoan legezko dokumentuek dituzten antzeko segurtasun neurriak aurkezten ditu eta horrek zalantza sortu dezake.



- 24 eta 25. orrialdeetan ikusten den bezala, legezko dokumentuaren azala josteko erabilitako haria erreaktiboa da argi ultramore azpian. Baina, aurretik aipatu bezala, 48. orrialdean aurkitu den josteta hariaren zuntza ez da gainerako dokumentua josteko erabili den hariarekin bateragarria eta gainera ez du erreakzionatzen argi ultramore azpian jartzerakoan.

## ONDORIOAK

Aurretik aipatutako guztia oinarri gisa, ondorioztatzen da:


1. **Zalantzako arrastoa bat**, Honduraseko Errepublikako **Pasaportea, A111111** zenbakiduna eta \*\*\*\*\* \*\*\*\*\* \*\*\*\*\*ren izenean dagoena, **faltsututako edo manipulaturako dokumentu bat dela.**
2. Azala eta dokumentuaren orri guztiak, salbu datu pertsonalen orrialdea, legezko dokumentuen segurtasun neurri eta ezaugarriekin bateragarriak dira eta ez dirudite faltsutuak edo manipulatutak.
3. Faltsutzea egiteko modua, datu pertsonalen orrialdeari orrialde faltsu bat gehitzean datza.
4. Dokumentu faltsu honen kalitatea oso ona da eta beraz, faltsutasuna zehazteko orduan zalantzak sor ditzake.

Sinatuta: XXY Agentea

Sinatuta: XYY Agentea



1. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren azala, argi zuriarekin (ezkerra) eta argi ultramorearekin begiratuta (eskuina).



2. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren kontrazala, argi zuriarekin (ezkerra) eta argi ultramorearekin begiratuta (eskuina).




3. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren azalaren goarda eta dokumentuaren lehen orrialdea.



4. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren 48. Orrialdea eta kontrazalaren goarda. Faltsututako orrialdea josteko erabili den josketa hariaren zuntz bat ikusten da.



5. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren 48. Orrialdea eta kontrazalaren goarda argi ultramore azpian begiratuta. Legezko dokumentuen segurtasun neurri berberak dituzte, baina josketa hariaren zuntzak ez du erreakzionatzen argi ultramore azpian.



6. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren 24 eta 25. orrialdeak ikusgai. Josteta hariak argi ultramore azpian erreakzionatzen du.



7. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren 2. (datu pertsonalen orrialdea) eta 3. orrialdeak argi zuri azpian.



8. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren 2. (datu pertsonalen orrialdea) eta 3. orrialdeak argi ultramore azpian. Argi ultramore azpian erreakzionatzen duen tinta bidez, legezko dokumentuen segurtasun neurri berberak erreproduzitu dira.



9. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren datu pertsonalen orrialdea argi zuri bidez ikusita.



10. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren datu pertsonalen orrialdea argi ultramore bidez ikusita. Argi ultramore azpian erreakzionatzen duen tinta bidez, legeko dokumentuen segurtasun neurriak erreproduzitu dira.





11. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren 2. orrialdetik 3. orrialdera dagoen tartea ikusgai. Aurretik aipatu bezala, 2. orrialdea “Tinta zurrusta” bidez izan da inprimatua eta ez ditu legezko dokumentuek izan behar dituzten segurtasun neurriak. Aldiz, 3. orrialdeak “Offset” bidez inprimatutako lerroak eta mikrotestua ditu. Hau da, legezko dokumentuek izan behar dituzten segurtasun neurriak ditu.



12. **Argazkia:** zalantzazko bat arrastoaren 2. orrialdetik 3. orrialdera dagoen tartea ikusgai Honduraseko legezko pasaporte baten. 11. argazkian ikusten den 2. orrialdearekin alderatuz, ezberdintasunak argi ikusten dira.

## AMAIERA ETA IGORPEN EGINBIDEA

Honako txosten hau igortzen da, bere hamalau (14) orrialdeekin, Donostiako 5. Instrukzio auzitegiko Magistratu Epaile gorenari.

- Berori aditzera emanaz, Honduraseko Errepublikako **Pasaportea, A11111** zenbakiduna, \*\*\*\*\* \*\*\*\*\* \*\*\*\*\*ren izenean dagoena, egoitza honen zaintzapean geratzen dela, agintari judizialaren esku.
- HANDITZEKO beste eginbide batzuk egin behar izanez gero, berori bidaliak izango direla inongo kalterik gabe.

Hala jasota gera dadin,

Sinatuta: XXY Agentea

Sinatuta: XYY Agentea

## 2. ERANSKINA

---

# Aditu-txostena

## 5. Instrukzio auzitegia / Donostia - San Sebastián

Txosten znbk.: 033/19

Eginbide znbk.: P/01234/19

---

Eskatzailea: xxxxxx xxxxxx

NAN.: xxxxxxxxxx

Abokatuaren izen-abizenak: Maddi Guisasola Agirre  
Prokuradorearen izen-abizenak: Josune Iturrioz Urrutia

**Tamara Mayans Carabelos**

Kriminologian graduatua

Peritu judiziala

NAN znbk.: XXXXXXXXXXXX

Posta elektronikoa: XXXXXXXXXXXX

# AURKIBIDEA

---

1. Identifikazioa
2. Hutsegite deklarazioa
3. Zin edo agintza
4. Helburua
5. Aurrekariak
6. Aurretiko kontsiderazioak
7. Erreferentziazko dokumentuak
8. Terminologia
9. Azterketa
10. Azterketaren emaitzak
11. Ondorioak
12. Bibliografia

## 1. Identifikazioa

Ni, Tamara Mayans Carabelos, XXXXXXXXXX NAN zenbakiarekin eta Kriminologian graduatutako peritu judizial inskribatu gisa, 033/19 identifikazio zenbakia duen aditu-txosten bat egin dut, Donostiako 5. Instrukzio auzitegiarentzat, 2019ko maiatzaren 9an.

Peritu honek, Kriminologiako unibertsitate ikasketak burutu ditu Euskal Herriko Unibertsitatean, praktikak Donostiako Udaltzaingoko Polizia Judizialaren arloan eginez eta Dokumentoskopiaren gaian espezializatuz.

## 2. Hutsegite deklarazioa

Hasiera ematen diot peritatze honi, egia esango dudanaren sinadurapean, posible den objektibotasun guztiarekin jardunez eta alderdientzat kaltegarria zein faboragarria suerta daitekeena kontutan izanik. Aintzakotzat hartuz Prozedura Zibilaren Legeak 343. eta 344. artikuluetan xedatzen dituen ondorioak, lana modu desleialean burutzeagatik.

## 3. Zin edo agintza

Prozedura Zibilaren Legeak 335. artikulua xedatzen duenari men eginez, egia esateko eta objektibotasunez jarduteko zina egiten dut, kontutan izanik alderdientzat kaltegarria zein faboragarria suerta daitekeena eta peritu gisa dagokidana ez betetzeagatik aurreikusten diren santzio penalak ezagutuz.

## 4. Helburua

Aditu-txosten honen helburua, Donostiako Udaltzaingoetako XXX agenteak igorritako dokumentuaren egiazkotasuna edo faltsutasuna zehaztea da. Hain zuzen ere, Honduraseko pasaporte bat. Horretarako, analisi dokumentoskopiko bat burutuko da, dokumentuak sor dezakeen zalantza argitzeko helburuarekin.

## 5. Aurrekariak

Donostian, 2019ko martxoaren 13an, XXX zenbakidun karnet profesionala duen Donostiako Udaltzaingoetako agenteak, polizia zientifikoaren unitatera Honduraseko pasaporte bat bidali zuen. Honako egitateak azalduz:

- Matia kalean liskar bat gertatzen ari zenaren abisua eman zitzaiola eta helbide horretara gerturatu zenean bi pertsona elkarri oihuka zebiltzala.
- Agenteak, identifikatzeko eskatu ziela eta Honduraseko pasaportearen titularra zen emakumeak ez zuela nahi identifikatu ez zeramalako NANA berarekin, soilik pasaporteak.
- Azkenean, pasaporteak eman ziola eta hasieran emakumeak esan zuenarengatik mesfidati, agenteak pasaporteak konfiskatzea eta Donostiako Udaltzaingoetako polizia zientifikoari bidaltzea erabaki zuela, honen egiazkotasuna edo faltsutasuna zehazteko helburuarekin.

Hori horrela izanik, honakoa igorri zuen:

- **ZALANTZAZKO BAT ARRASTOA:** Honduraseko Errepublikako **Pasaporteak, A111111** zenbakiduna, \*\*\*\*\*-ren izenean.

Hori dela eta, Donostiako Polizia Ikuskari Teknikoen XXY zenbakidun agenteak, hiri honetako 5. Instrukzio auzitegira izapidetu ditu P/01234/19 zenbakidun eginbideak.

## 6. Aurretiko kontsiderazioak

Zalantzazko bat arrastoari loturik, dokumentu honen analisi bat egitea eskatu da, honen egiazkotasuna edo faltsutasuna zehazteko.

Erabilitako teknika:

- **ZALANTZAZKO BAT ARRASTOA:** pasaporte hau aztertzeo, legezko dokumentuei dagozkien segurtasun neurriak izan dira kontutan. Neurri hauek identifikatu ahal izateko, dokumentuaren azterketa sakon bat egin da, bakoitzaren ezaugarri fisikoak ezartzeko helburuarekin.

Azterketarako erabilitako teknikak: NIKON D 300 S markako argazki kamera, Agfa markako lupa bat eta argiztapen forentse ezberdinak (argi ultramorea,

arraseko argia eta argi transmititua). Horrez gain, argazkien tratamendurako, Photoshop CS programa erabili da.

## 7. Erreferentziazko dokumentuak

Peritatze hau egiteko kontsultatu diren erreferentziazko dokumentuak honakoak dira:

- Romero Tallafigo M., Marchal Escalona N.E., Vega Moreno D., Conde Hardisson F., García Llanos G., Vega Ramos A., Ledesma Sánchez A., Cordobilla Parra E. y Vallivana Querol Sabater P. (2018). *Tratado de Grafística y documentoscopia Vol I*. Delta publicaciones.
- Martín Ramos R. (2010). *Documentoscopia: método para el peritaje científico de documentos*. Madrid: La Ley.
- Europar Batasuneko Kontseiluaren Glosarioa, dokumentuen segurtasunaren, segurtasun neurrien eta bestelako termino teknikoei buruzkoa.

Liburu hauek dokumentu baten analisirako beharrezko baliabide teorikoak eskaintzen dituzte, dokumentuek dituzten segurtasun neurrietatik hasiz eta segurtasun neurri hauek ikertzeko erabili beharreko instrumentalarekin bukatuz. Hori dela eta, bibliografia hau Dokumentoskopian sakontzeko eta aditu-txosten bat egiteko oinarritzkoa kontsideratuko nuke, lan egoki bat egitea ahalbidetzen bai dute.

## 8. Terminologia

Aditu-txosten honetan zehar erabilitako terminologia Europar Batasuneko Kontseiluaren Glosarioan kontsultatu daiteke sakonago, baina kasu honetan erabiliko den hizkera teknika azalduko da, inolako ulermen arazorik egon ez dadin txostena irakurtzerakoan. Definizioak Glosariotik eta bestelako erreferentziazko dokumentuetatik atera dira eta batzuk norberak moldatutakoak dira.



- **SEGURTASUN HARIA:** paperaren euskarrian jartzen den plastikozko edo beste material batez eginiko tira bat da eta mota ezberdinetakoa izan daiteke (argi ultramore azpian erreazionatzen duena, polimerozkoa...).
- **HARIZPI:** mota ezberdinetakoak izan daitezke, batzuk paperari itsasten zaizkio eta beste batzuk paperaren masarekin nahasten dira ausaz. Fluoreszenteen kasuan, argi ultramore bidez ikusten dira eta koloreztatutakoen kasuan, begi bistara.
- **UR MARKA:** faltsifikazioen aurkako neurri eraginkorra kontsideratzen da. Ur marka, paperaren fabrikazioan gehitzen den segurtasun neurri bat da, argi transmititu bidez begiratzerakoan marrazki itxura duena.
- **OFFSET:** inprimaketa mota bat da. Teknika honen bidez, dokumentuetan marrak, ertzak eta karaktereak ongi definitzen dira.
- **MIKROTEXTUA:** dokumentuetan jartzen diren tamaina txikiko testuak dira.
- **PLASTIKO LAMINATUA:** datu pertsonalen orrialdea edo orrialde garrantzitsuak babesteko jartzen den plastikoa da.

## 9. Azterketa

Zalantzazko bat arrastoaren analisirako dagozkion teknikak erabili ondoren, honako emaitzak lortu dira:

- **Azala:** kolore urdin ilunekoa da eta material bigunez egina. Portadan, estantantze bidez inprimatutako urre koloreko zigilu bat du, Erdialdeko Amerikaren maparena. Zigiluaren gainean “CENTROAMÉRICA – República de HONDURAS” letrak irakurtzen dira, eta azpian, “PASAPORTE”.
  - Argi ultramore azpian jarri ondoren, modu zehiarrean “CENTROAMÉRICA” letrak ikusten dira idatzita azal guztian zehar, legezko dokumentuan ikusten diren bezala.
- **Azalaren eta kontrazalaren goarda:**

- Argi ultramore azpian jarri ondoren, modu zeharrear eta irregularki kokatuta “CENTROÁMERICA” letrak ikusten dira, legezko erabilerako dokumentuetan bezala.
- **Barnealdeko orriak:** dokumentuak guztira 48 orrialde ditu, ez da orririk falta. Datu pertsonalen orrialdea salbu, beste orrialde guztiek zenbakia dute, goikaldean eta behekaldeko kanpoko muturrean.
  - Argi transmititu bidez begiratuz gero, 2-48 orriek, Honduraseko Errepublikako zigiluaren ur marka dute inprimatuta eta pasaportearen zenbakia trokel bidez zulatuta.
  - Argi ultramore bidez begiratuta, Honduraseko errepublikako legezko dokumentuak dituen segurtasun neurri berberak ikusten dira: segurtasun haria, harizpi argikorrek, zenbaki argikorrek eta “CENTROAMÉRICA” letrak modu zeharrear kokatuta. Hau da, segurtasun hondoa legezko dokumentuek dutenaren berdina da.

Datu pertsonalen orrialdea salbu, beste orrialde guztiak dokumentu legalak inprimatzeko erabiltzen diren teknika berberekin inprimatu dira.

24 eta 25 orrialdeetan josteta haria ikusten da eta argi ultramore azpian jartzerakoan erreakzionatu egiten du, kolore berdexka bat hartuz. **48. orrialdean josteta hariaren zuntz bat ikusten da, ez dena beste orrialdeetan ikusten den josteta hariaren berbera eta ez duena argi ultramore azpian erreakzionatzen.**

- **Datu pertsonalen orrialdea:** bigarren orrialdean datu pertsonalak daude eta honako datu hauek ditu inprimatuta:

- Pasaporte zenbakia: **A111111**
- Dokumentuaren titularra: **\*\*\*\*\* \*\*\*\*\* \*\*\*\*\***
- Jaioteguna: **1975eko urtarrilaren 1a**
- Identifikazio zedula: **1111-1110-00111**



- Sexua: **F**
- Jaulkipen data: **2012ko urtarrilaren 2a**
- Epemuga data: **2017ko urtarrilaren 2a**
- Sinadurarako tartea: beteta eta izenpetuta

Horrez gain, titularraren argazkia eta filiazio datuak ageri dira. Orrialdearen erdialdean titularraren argazkiaren bigarren kopia bat dago. Argazkiak dokumentua zeraman pertsonarekin bateragarriak dira.

Formatuari dagokionez ID- 3 motakoa da, 44 karakterdun 2 lerro ditu eta pasaporte zenbakia ez dago trokelez zulatuta.

Orrialdea plastiko laminatu bidez dago babestuta. Segurtasun neurri hau dokumentuen alderdi garrantzitsuenak babesteko erabiltzen da.

Argi ultramore bidez begiratzerakoan erreakzionatu egiten du, Honduraseko Errepublikako zigilua eta “HONDURAS” hitza ageri dira zenbaitetan. Baina beste orrietan ez bezala, ez ditu harizpi ultramoreak eta segurtasun haria.

## 10. Azterketaren emaitzak

1. **Zalantzazko arrastoa bat** deituriko pasaporteak, legezko dokumentuek bete beharreko segurtasun neurriak betetzen ditu, salbu datu pertsonalen orrialdeak.
2. **Datu pertsonalen orrialdeak**, begi bistara, dagokion informazio pertsonala eskaintzen badu ere, sakonki aztertu ondoren, faltsutasuna adierazten duten zeinuak azaltzen ditu:
  - Legezko dokumentuak “Offset” teknika bidez inprimatzen dira baina kasu honetan “Tinta zurrusta” bidezko inprimatze teknika erabili da. Inprimatze teknika hau soilik datu pertsonalen orrialdean aurkitu da, gainerako orrialdeek legezko dokumentuen inprimatze teknika eta segurtasun neurriak dituzte.

- Datu pertsonalen orrialdeko segurtasun fondoan dauden lerroak, legezko dokumentuetan ez bezala, ez daude hurrengo orrialdearekin lerrokatuta. Zenbait milimetroko desplazamendua dago hauen artean.
- Argi ultramore azpian jartzerakoan erreakzionatzen badu ere, beste orrialdeek dituzten zenbait segurtasun neurri falta ditu: harizpi ultramoreak eta segurtasun haria.

Beraz, datu pertsonalen orrialdea inprimatzean erabilitako teknika ezberdina, zenbait segurtasun neurrien gabezia eta segurtasun fondoaren desplazamendua ez dira Honduraseko Errepublikako dokumentu ofizialarekin bateragarriak.



**Zalantzazko arrastoa bat**



**Honduraseko legezko pasaporte**

- Lehenego argazkia Zalantzazko arrastoari dagokio. Erabilitako inprimazio teknika “Tinta zurrusta” bidezkoa izan da. Hori dela eta, ertzak ez dira oso garbiak eta mikrotextuaren kalitatea txarra da eta ondorioz, irakurtezina. Gainera segurtasun fondoko lerroen desplazamendua begi bistan geratzen da.
- Bigarren argazkia Honduraseko pasaporte legal bati dagokio. Erabilitako inprimazio teknika, kasu honetan, “Offset” teknika izan da. Ikusten den bezala, ertzak ongi ikusten dira eta mikrotextuaren kalitatea ona da. Dokumentu honetan, bi orrialdeen segurtasun fondoak lerrokatuta daude.



- Datu pertsonalen orrialdea eta babesteko erabilitako plastiko laminatuaren kalitatea ona da. Argi ultramorearen azpian jartzerakoan legezko dokumentuek dituzten antzeko segurtasun neurriak aurkezten ditu eta horrek zalantza sortu dezake.



- 24 eta 25. orrialdeetan ikusten den bezala, legezko dokumentuaren azala josteko erabilitako haria errektiboa da argi ultramore azpian. Baina, aurretik aipatu bezala, 48. orrialdean aurkitu den josteta hariaren zuntza ez da gainerako dokumentua josteko erabili den hariarekin bateragarria eta gainera ez du erreakzionatzen argi ultramore azpian jartzerakoan.

## 11. Ondorioak

Aurretik aipatutako guztia oinarri gisa, ondorioztatzen da:

1. **Zalantzazko arrastoa bat**, Honduraseko Errepublikako **Pasaportea, A111111** zenbakiduna eta \*\*\*\*\* \*\*\*\*\* \*\*\*\*\*ren izenean dagoena, **faltsutua edo manipulatua** izanaren zeinuak adierazten ditu.
2. Azala eta dokumentuaren orri guztiak, salbu datu pertsonalen orrialdea, legezko dokumentuen segurtasun neurri eta ezaugarriekin bateragarriak dira.
3. Oro har, dokumentuak betetzen ditu legezko dokumentuen segurtasun neurriak salbu datu pertsonalen orrialdeak eta horrek jatorrizkoa moldatua izan dela pentsatzera garamatza.

## 12. Bibliografia

- Romero Tallafigo M., Marchal Escalona N.E., Vega Moreno D., Conde Hardisson F., García Llanos G., Vega Ramos A., Ledesma Sánchez A., Cordobilla Parra E. y Vallivana Querol Sabater P. (2018). *Tratado de Grafística y documentoscopia Vol I*. Delta publicaciones.
- Martín Ramos R. (2010). *Documentoscopia: método para el peritaje científico de documentos*. Madrid: La Ley.
- Europar Batasuneko Kontseiluaren Glosarioa, dokumentuen segurtasunaren, segurtasun neurrien eta bestelako termino teknikoiei buruzkoa.

### 3. ERANSKINA

---





# TXOSTEN EXEKUTIBOA

---

DOKUMENTOSKOPIA: Polizia-ikerketa eta  
dokumentuen peritatzea

Gradu amaierako lana

3. eranskina

Egilea: Tamara Mayans Carabelos  
Zuzendaria: Joseba Ezeiza Ramos  
Kriminologiako Gradua  
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU  
2018-2019 ikasturtea

# AURKIBIDEA

---

1. Sarrera
  - Sarrera
  - Helburuak
  - Kriminalistikaren eta Dokumentoskopiaren garrantzia  
Kriminologoentzat
2. Polizia-ikerketa eta Krimen-ikerketa
3. Dokumentoskopia eta honi loturikoak
4. Gradu amaierako lan honen ekarpenak



# 1. Sarrera

---

## Sarrera

Gradu amaierako lan honen inguruko txosten exekutiboaren helburua, lanean landu diren gaietarako buruzko informazio sintetizatua eskaintzea da, lanean landu diren gaiak irakurtzeari heldu baino lehen interesa pizteko.

Lana, izenburuak berak esaten duen modura Polizia-ikerketaren eta Dokumentuen peritatzeari buruzkoa da. Hori dela eta, bi hauen inguruko gaiak landu dira, ikusmira orokor bat eskaintze aldera eta gai hauen inguruan dagoen informazio garrantzitsuen modu laburtu batean eskaini ahal izateko. Lanean aipatu den bezala, Dokumentoskopiaren inguruan eskuragarri dagoen bibliografia nahiko mugatua dela eta horrek zenbait zailtasun suposatu dituela lan honen marko teorikoa idazteko informazioa eskuratzeko orduan. Izan ere, liburuak egon badaude, baina asko beste hizkuntza batzuetan zeuden idatzita edo eskuraezinak ziren, ez baitzeuden ez liburutegian ezta interneten ere. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honen zuzendariari eskerrak eman nahiko nizkioke, lan hau egiteko merkatuan dauden libururik onenak utzi baitizkit eta laguntza horri esker lan apala egin ahal izan dut. Izan ere, ez bazen bere laguntzagatik izango, ahalegin ekonomiko handia suposatuko luke lan honek niretzat, liburu horiek oso garestiak baitira.

Beraz, erabilitako bibliografiari dagokionez, batetik, Polizia-ikerketaren eta honi loturiko gaiak jorratzeko, bereziki hiru liburu erabili dira: Antón eta De Luis y Turéganoren *Policía Científica, Volumen I* liburua, García Pablos de Molinaren *Criminología: una introducción a sus fundamentos teóricos* liburua eta Lagoren *La práctica de la investigación criminal: Inspección técnico ocular (ITO)* liburua. Bestetik, dokumentuen eta Dokumentoskopiaren inguruko gaiak jorratzeko bi liburu erabili dira nagusiki: Romero et. al.en *Tratado de Grafística y documentoscopia Vol I* liburua eta Martínen *Documentoscopia: método para el peritaje científico de documento*” liburua. Liburu gehiago erabili dira, noski, baina hauek dira aipagarrienak. Horrez gain, atal eta gai bakoitzari dagozkien legeak ere erabili dira, ikuspegi juridikoa kontutan izatea

ezinbestekoa baita, legeek Dokumentoskopian duten garrantzia dela eta. Beraz, lana egiteko lau bibliografia iturri nagusi erabili dira:

1. Lege iturriak, polizia-ikerketaren lege-testuingurua finkatzeko.
2. Dokumentoskopiaren inguruko bibliografia teknikoa.
3. Aritu-txostenak egiteko jarraibideei buruzko bibliografia espezifikoak.
4. Nazioarteko ISO-AENOR arauak.

Hori horrela izanik, txosten exekutibo honetan, liburu hauetatik eskuratutako eta lanean erabilitako informazioa modu laburtuan plazaratuko da. Horretarako, lehenik, Polizia-ikerketari eta Krimen-ikerketari buruz arituko gara eta hauei loturiko zenbait gai ezberdinez ere. Bigarrenik, Dokumentoskopia zer den azalduko dugu eta gai hau inguratzen duten bestelakoak aipatuko ditugu, hala nola, dokumentuak, segurtasun neurriak eta teknika-instrumentalak. Azkenik, lan honek egin ditzakeen ekarpenak aipatuko ditugu.

Bukatzeko, aipatu nahiko nuke, lan honek esfortzu handia suposatu duela, izan ere, Dokumentoskopiaren inguruko lehenengo euskarazko lana da. Hori dela eta, terminologiaren alorrean izugarrizko ahalegina egin behar izan da, lanean zein txostena idazteko orduan, hizkera jaso zaindu ahal izateko. Hala ere, hau euskararen garapenaren ikuspegitik ekarpen esangarria da, eta erakusten du Kriminologia euskaraz irakasteari esker, euskarak eremu berriak irabazten dituela.

## Helburuak

Txosten exekutibo honen helburuak honakoak dira:

- Gradu amaierako lanean landu diren gaiak modu laburrean azaltzea.
- Polizia-ikerketaren, Krimen-ikerketaren eta Dokumentoskopiaren inguruko ikusmira orokor bat eskaintzea.
- Aurretik aipatutako gai hauen inguruko bestelako gaiak modu laburrean azaltzea.

- Dokumentoskopiak eta Kriminalistikak Kriminologoentzat duten garrantzia nabarmentzea.
- Gradu amaierako lan honek zein ekarpen egin ditzakeen adieraztea.

## Kriminalistikaren eta Dokumentoskopiaren garrantzia Kriminologoentzat

Gradu amaierako lanean landu diren gai ezberdinetan barneratu baino lehen, Kriminalistikak eta Dokumentoskopiak Kriminologoentzat duten garrantzia aipatuko da. Izan ere, Kriminologiako graduan zientzia eta ikasgai ezberdinak lantzen dira, etorkizuneko kriminologoen arlo ezberdinetako ezagutzak izan ditzaten eta beraien jakintza esparrua anitza eta ikuspuntutuz josia egon dadin. Beraz, esan daiteke Kriminologia diziplinarreko zientzia dela eta lau arloren inguruan ardatzen dela bereziki: delitua, delitugilea, biktima eta gizarte prebentzioa.

Kriminologiak, hainbat iturri ezberdinetatik edaten duen aldetik, Kriminalistikak horietako bat izan behar du eta honen barruan dago Dokumentoskopia. Graduan zehar Kriminalistikarekin erlazionaturiko zenbait ikasgai eskaintzen dira: lege medikuntza, segurtasun pribatuaren araubide juridikoa eta antropologia identitatea eta identifikazioa. Honek, Kriminalistika kontutan izaten dela esaten digu. Horrez gain, unibertsitateak praktikak eskaintzerako orduan, Donostiako Udaltzaingoetan Krimen-ikerketarako teknikak (identifikaioa eta Dokumentoskopia) ikasteko aukera eskaintzea ere, Kriminalistika eta honek barnebiltzen dituen gai ezberdinak kontutan izaten dituela ikusten dugu.

Egia da, Kriminalistikari loturiko ikasgai kopurua murrizta dela, baina horrek ez du esan nahi ez denik kontutan izaten, baizik eta Kriminalistikaren barruan zientzia ugari daudela eta ezinezkoa dela guztiak eskaintzea Kriminologiako graduan.

Dokumentoskopiari dagokionez, ikusi dut zenbait unibertsitatek honetan espezializatzeko aukera eskaintzen dutela, bai Kriminologiako graduan bai aparteko master batean. Adibidez, batzuk aipatzeagatik:

- UDIMA (Universidad a distancia de Madrid): “Máster en Pericia Caligráfica y Documentoscopia”.
- Universitat de Barcelona: “Documentoscopia y Grafología” masterra eskaintzen du.
- Camilo José Cela unibertsitateak “Máster Universitario en Grafística y Documentoscopia” eskaintzen du.

Beraz, ikusten den moduan, Kriminologoentzat Kriminalistikak eta honek biltzen dituen gaiak garrantzia dute eta graduan zein gradu ondoko ikasketetan Kriminalistikan eta Dokumentoskopian espezializatzeko aukerak eskaintzen dira.

## 5. Polizia-ikerketa eta Krimen-ikerketa

---

Polizia-ikerketa, delituen ikerkuntzaz eta delitugilea identifikatzeaz eta atxilotzeaz arduratzen den poliziaren funtzio garrantzitsuenetako bat da.

Gainera, polizia-ikerketaren garrantzia ukaezina da, izan ere, polizia, gizarteak eta bertako kideek babesteko duten mekanismo nagusia da. Delituari aurre egiteko instituzioa da eta beraz, justizia egikaritzeko eta gizartearen segurtasuna bermatzeko ere. Gainera, hau Espainiako Konstituzioak jasotzen du 104. artikuluan, zeinak segurtasun indarren zeregina zehazten duen, esanez hauen betebeharra gizarteko kideen eskubide eta askatasunen jardute librearen babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea dela.

### *104. artikulua*

*1. Segurtasun Indar eta Kidegoek, Gobernuaren mende direla, eginkizun hauek izango dituzte: eskubide eta askatasunen erabilera librea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea.*

Polizia-ikerketarekin estuki loturik, krimen-ikerketa dago. Krimen-ikerketa, delituari erantzuna emateko metodoa da, hau da, delituaren ikerketari loturiko metodo tekniko-poliziala. Beste modu batera esanda, delituaren fenomenoari buruzko egia ezagutzeko baliagarria den diziplinarteko ezagutza eta ekintza sistematiko multzoa da. Hori dela eta, funtzio ezberdinak bereizten dira: egitateak ikertzea, egitate zigorgarri bat gertatu den edo ez zehaztea, egitate horren erantzulea identifikatzea eta harrapatzea, prozesu penalean frogak eskaintzea... Beraz, esan genezake, krimen-ikerketaren helburu nagusia delituaren ikerketa dela, delitugilea nor den ezagutzeko eta justizia egikaritzeko.

Krimen-ikerketan bi subjektu nagusi bereizten ditugu, polizia judiziala eta polizia zientifikoa, hauek arduratuko baitira ikerketaz. Espainiar Konstituzioak 126. artikuluan esaten digu polizia judizialaren helburuak delitua ikertzea eta delitugilea aurkitzea direla. Beraz, poliziaren barruan funtzio espezifikoak duen polizia izango litzateke. Baina delituei aurre egiteko estrategia bezala, polizia zientifikoa dago, polizia judizialaren espezializazioaren ondorioz sortua eta delinkuentziari aurre egiteko espezializatutako unitate gisa definitu dezakegu.

Horrez gain, aipatzekoa da, polizia judizialaren funtzioak 769/1987 polizia judizialaren errege-dekretuan jasotzen direla.

Bukatzeko, udal poliziak daude, herrien eta hirien zaintzaz arduratzen diren poliziak. Segurtasun indar eta kidegoen Lege Organikoak hainbat funtzio esleitzen dizkie, batzuk aipatzeagatik: hiriguneko trafikoaren kontrola, laguntza eskaintzea, prebentzioa, toki publikoak babestea... Beraz, ikusten da udal polizien papera garrantzitsua dela herritarrak babesteko.

## 6. Dokumentoskopia

---

Honela definitzen digu dokumentua Zigor Kodeko 26 artikulua: *agiritzat hartzen da datuak, egitateak edo kontaketak adierazi edo barneratzen dituzten euskarri materialetatik edozein, baldin eta datu, egitate edo kontaketak froga-eragingarritasuna edo beste edozein motatako garrantzi juridikoa badute*. Beste modu batera esanda:



*“Documento es todo objeto cuyas cualidades físicas o contenidos sean susceptibles de analizarse con diferentes métodos, para llegar a establecer su autenticidad, su autoría, su estado o su origen”.*

Definizio honek esaten digun modura, dokumentua, bere izaera edo edukia dela eta metodo ezberdinen bidez ikertua izan daitekeen edozer dela. Dokumentuen ikerketa honi, aurrerago azalduko dugun modura Dokumentoskopia deritzo.

Dokumentuen ikerketaren arrazoa, orokorrean egiazkotasuna edo faltsutasuna frogatzea izaten da, izan ere, Zigor Kodeak 386-400 artikuluetan jasotzen denaren arabera, dokumentuei loturiko delitu ugari bereizten dira, izaera ezberdinekoak eta ondorio juridiko oso ezberdinak dituztenak. Delitu hauek ekidite aldera, dokumentuek segurtasun neurriak izaten dituzte, hau da, segurtasunerako elementu, dispositibo edo sistema multzoa; egiazko dokumentuek izan ditzaketen zaurgarritasunei aurre egiteko eta faltsifikazioa edo manipulazioa ekiditeko sortuak. Segurtasun neurri hauek ugariak dira baina bereziki hiru motatakoak bereizten dira: edukitzailearen bidez eransten direnak, inprimaketa bidez eta elementu gehigarrien bidez eransten direnak. Dokumentuek dituzten segurtasun neurri kantitatearen arabera, seguruagoak edo faltsutzeekiko zaurgarriagoak izango dira.

Dokumentu baten egiazkotasuna zalantzan jartzen denean edo faltsutze baten biktima izan dela pentsatzen denean, hau argitzeko, Dokumentoskopiak parte hartzen du. Beraz, Dokumentoskopia, dokumentuei loturiko ikerketaz arduratzen den zientzia edo diziplina zientifiko gisa definitu genezake. Horrenbestez, anitzak dira esleitzen zaizkion funtzioak: dokumentu bat egiazkoa, guztiz faltsua edo partzialki faltsua den zehaztea, egileak identifikatu, dokumentuak manipulazioak jasan dituen zehaztu, faltsutzeak nola egin diren jakin...

Aipatu diren funtzio guzti hauek egin ahal izateko, Dokumentoskopia teknika instrumental ezberdinez baliatzen da: espektroskopia, mikroskopia, neurketa instrumentuak, argiztapen mota ezberdinak, gailu informatikoak...

## 7. Gradu amaierako lan honen ekarpenak

---

Gradu amaierako lan honek Polizia-ikerketaren, Krimen-ikerketaren eta Dokumentoskopiaren inguruko ikuspegi orokor bat eskaintzea du helburu, autore ezberdinen informazio kontrastatu eta baliozkoaren bidez. Hizkuntza tekniko erabili bada ere, gaian interesa duen edozein irakurleri zuzenduta dago, izan ere, ulerterraza da eta ez da inolako gai korapilatsuetan barneratzen.

Horrez gain, Polizia-ikerketari eta Krimen-ikerketari buruzko informazio ugari eskaintzen du lan honek. Bi ikerketa hauek zer diren azaltzen da, zein funtzio eta zein helburu dituzten eta ikerketan parte hartzen duten subjektuak ere. Azken honi dagokionez, polizia judizialean eta polizia zientifikoan sakontzen da, hauen arteko bereizketa egite aldera. Izan ere, askotan nahasgarriak diren kontzeptuak izan daitezke. Udal Poliziari ere aipamena egiten zaio.

Dokumentoskopiari dagokionez, informazio ugari eskaintzen da, bigarren eta hirugarren atalak hartu baitira gai hau jorrazteko. Batetik, bigarren atalean Dokumentoskopia azaldu baino lehen ezagutu beharreko kontzeptuak azaltzen dira: zer den dokumentu bat, dokumentuen zein sailkapen egiten diren, zer ikertu daitekeen dokumentuetan eta dokumentuek dituzten segurtasun neurriak. Horrez gain, dokumentuei loturiko delituen analisi bat egiten da eta Zigor Kodeak esaten duenaren arabera konparaketa bat ere. Bestetik, hirugarren atalean, Dokumentoskopia zer den azaltzen da eta lana aurrera eramanez ahal izateko dituen teknika instrumentalen zerrenda bat eskaintzen da. Bi atal hauen ekarpen garrantzitsu gisa, segurtasun neurrien eta teknika instrumentalen zerrendak nabarmenduko nituzke eta delituen analisisa ere.

Bukatzeko, bi aditu-txostenen bidez, Dokumentoskopiaren alderdi praktikoa nabarmendu nahi izan da. Izan ere, teoria ezagutzea ezinbestekoa da, baina praktikan jartzen jakitea ere. Beraz, irakurleri aditu-txosten bat zer den eta zein eduki izan behar dituen azaltzeaz gain, nola egin behar den eta nolakoa den ere adierazi da eta horretarako, ISO arauak kontutan izan dira, bata aditu-txostenak izan beharreko irizpideak zehazten dituen eta bestea, aditu baten zerbitzuak bete beharreko baldintzak zehazten dituen.

Konklusio modura, esango nuke, lan honek Polizia-ikerketaren, Krimen-ikerketaren eta Dokumentoskopiaren inguruko oinarri teoriko nahiko zabala eta ulergarria eskaintzen duela, gai hauek inguratzen dituzten bestelakoak ere kontutan izaten dituelarik. Hori dela eta, edozein irakurlerentzat aproposa den lan bat da.

## 4. ERANSKINA

---

**IKASLEAREN TUTOREAREN AZKEN BALORAZIOA ETA ZIURTAGIRIA (5. eranskina)**  
INFORME DE VALORACIÓN FINAL DEL TUTOR /A Y CERTIFICADO ACREDITATIVO (anexo 5)

**DATU OROKORRAK DATOS GENERALES**

<b>Graduko kanpoko Praktika Nahitaezkoak</b> Prácticas externas obligatorias de Grado	
<b>Tutorea</b> Tutor o tutora	<b>Beatriz CASARES PASCUAL</b>
<b>Erakunde laguntzailea</b> Entidad colaboradora	<b>Guardia Municipal de Donostia</b>
<b>Instruktorea</b> Instructor o instructora	<b>Francisco José ANGUERA AYALA</b>

**IKASLEAREN DATUAK DATOS DEL ESTUDIANTE**

<b>Izen-deiturak</b> Nombre y apellidos	<b>Tamara MAYANS CARABELOS</b>
<b>Ikasketak</b> Titulación	<b>Kriminologiako Gradua</b> Grado en Criminología
<b>Ikasturte akademikoa</b> Año académico	<b>2018-19</b>

**PRAKTIKA PROGRAMA**

**DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA DE PRÁCTICA**

<b>Erakundeko saila</b> Departamento de la Entidad	<b>Policía Judicial</b>
<b>Praktikaldia</b> Fecha de práctica	<b>Del 1/02/2019 al 8/04/2019</b>
<b>Ordu-kopurua</b> Total de de horas	<b>200</b>

**JARDUERA EDO EGITEKOEN ZERRENDA**  
**ACTIVIDADES O TAREAS DESARROLLADAS**

<b>Egindako jarduera edo lanen azalpena</b> Descripción de actividades o tareas desarrolladas
(1) Conocer los fundamentos de la documentoscopia
(2) Análisis de documentos, tintas, soportes, técnicas de impresión, tratamiento de evidencias.
(3) Redacción de informes.

Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak  
Arautzeko UPV/EHUren Arautegiaren 16.  
artikuluak ezarritakoa jarraituz, eta instruktoreak  
nahiz ikasleak egindako txostenak ikusita, **modu  
positiboan** ebaluatzen dut haren parte-hartzea  
praktiken programan, eta ziurtagiri hau igortzen  
dut, horren egiaztagiri gisa.

Académicas Externas del Alumnado, y a la vista  
de los informes emitidos tanto por el Instructor/a  
como por el alumno/a, evalúo **positivamente** su  
participación en el programa de prácticas, por lo  
que se expide el presente certificado acreditativo.

En aplicación del artículo 16 de la Normativa de la  
UPV/EHU Reguladora de las Prácticas

En Donostia-San Sebastián a 14 de mayo de 2019

*Beatriz Casares*



Lekua, data eta tutorearen sinadura  
Lugar, fecha y firma del tutor o tutora